

aurkibidea

<i>Zenbaki honetan</i>	3
Euskal nekazaritza: egoera eta etorkizuna	
LEKUONA, A.: Nekazaritza gaurko munduan	7
EMALDI, J.: Hego Euskal Herriko nekazaritza	17
ASKOREN ARTEAN: Euskal nekazaritzaren etorkizuna (mahaingurua)...	59
Orain eta Hemen	
Ekainak 12: Kontra-Europaren garraisia – Euskararen berri onak – Biolentzia eta beldurra – Euskararen eguna: binaka? – Galizia zaila – Zer gertatzen da hitzaldiekin? – «Consumiciones en autóctono» – ETB: ez dago girorik – «Bertsolaritzaren inguruan» deituriko ekintzen ulermenerako	91
... hainbat aburu	
LARREA, Tx.: Hogei urteren buruan	107
Liburuak	
TORREALDAI, J.M.: 1984eko erdal liburuak Euskal Herriaz.....	113
ZELAIETA, A.: Euskal literatura eta gizartea edo Sarrionaindia-ren «Ni ez naiz hemengoa»	119
Jaso ditugu	128

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza

joan mari torrealdei
l.a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1985erako prezioak

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ..2.000 pta.	—	2.200 pta. (110 FF)	—
ale arrunta500 pta.	675 pta.	550 pta. (28 FF)	725 pta. (36 FF)
ale bikoitza900 pta.	900 pta.	1.000 pta. (50 FF) ...	1.000 pta. (50 FF)
ale extra.....1.100 pta.	1.200 pta.	1.200 pta. (60 FF) ...	1.300 pta. (65 FF)

ZENBAKI HONETAN

Eskutan duzun zenbaki hau JAKIN aldizkariaren bigarren aldiko 35. zenbakia da eta 1985eko bigarrenã.

Nekazaritza da zenbaki honen gai nagusia. Bere garaian industri sektoreari eskaini genion zenbaki bat, sektore honen birmoldaketa zela eta. Euskal baserriari eskaintzen diogu oraingoa, nekazaritza ere birmoldaketa garrantzizko baten aurrean aurkitzen delakoan. Kezkaturik eta asaldaturik dugu nekazaritzaren sektore osoa, EEEan integratzeak ekar ditzakeen aldakuntzak direla medio.

Birmoldaketaren ildotik beti, euskal baserriaren egoera eta perspektibak arakatu nahi izan ditugu zenbaki honegan.

Hasteko, sarrera gisako artikulu batean, Andoni Lekuona soziologoa nekazal sektorearen garrantzia eta eboluzioa zer-nolakoak diren argitzen saiatzen da.

Bigarren artikuluak Hego Euskal Herriko nekazaritzaren egoera aztertzen du luze eta zabal. Jon Emaldiren idazlan hau JAKINen ardura-pean Lankide Aurrezkiak egiten duen Euskal Herria liburuaren bigarren zatian («Errealitate eta Egitasmo») emango da argitara. Erabiltzeko eman dizkigun erraztasun eta baimenarengatik, gure esker ona agertu nahi diogu Lankide Aurrezkiari.

Ipar Euskal Herriko nekazaritzari ere berea eskaini nahi genion. Dominique Davant-ek egin behar zuen lan hori. Honen baietza jaso genuen, baina artikulurik ez. Hurrengo batean izango al da!

Mahainguru batez osatzen dugu nekazaritzari eskainiriko monografia hau. JAKINen bulegoan bildu genituen lau lagun, lau aditu, eta lauei euskal nekazaritzaren etorkizuna eman genien aztergai.

Orain eta Hemen sailak, izenak berak dioenez, gaurkotasuna eta ingurunea ditu batez ere kontutan. Aldizkariaren orrialdeak arintzea asmo duelarik, artikulu llabur, arin eta irakurterraz hauen bidez markaturiko xedea ongi betetzen duelakoan gaude.

... hainbat aburu sailean, Txema Larreak zenbait gogoeta jaulkitzen du azken hogei urteotako kultur, hizkuntz eta politika-planteamenduei errepaso txiki bat emanez.

Liburuak sailean, Joan Mari Torraldaik, iaz bezala —eta aurreko zenbakian emandako euskal liburuen zerrenda nolabait osatuz—, 1984ean euskal gaiez erdaraz argitara diren liburuen zerrenda eskaintzen digu. Eta Anjel Zelaietak Joseba Sarrionaindiaren «Ni ez naiz hemen-goia» liburuaren irakurketa egiten du.



Andoni Lekuona
Jon Emaldi
Mahaingurua

EUSKAL NEKAZARITZA EGOERA eta ETORKIZUNA

Nekazaritza gaurko munduan

Baserri-aldakuntzak. Nekazaritzaren lekua gizartean. Nekazaritza eta ustiategiak.

Hego Euskal Herriko nekazaritza

Nekazal sektorearen garrantzia. Nekazaritzaren eboluzioa: gerraondoko aroa; aldaketak laboreetan, azienda-ekoizpenean, oihan-ekoizpenean. Industrializazioaren ondorioak: lurrak, laneskua, autokontsumoa eta merkatua, iraultza teknologikoa. Ekoizpena, enplegua, produktibitatea. Euskal nekazaritzaren oinarritzko zenbait ikuspegi: ustiapenen neurria; enpresarien zahartzea eta ustiapenen jarraitasuna; sektorearen errentagarritasun txikia.

Euskal nekazaritzaren etorkizuna

Zenbait arazo larri: nekazaria (prestakuntza, heziketa, sistemaren krisia), lurra (plangintzaren premia eta zailtasunak; jabetgoa eta erabilera), ustiapenen egituraketa. Europan sartzea: Europako laborantza krisian, alde on eta txarrak, hartu beharreko neurriak. Erakundeen eginkizuna eta jokamoldea.

Nekazaritza gaurko munduan

Andoni Lekuona

Gogoan hartzekoa da, gure artean baserri-munduaz edozeinek daukan hitzegiteko eskubidea eta bere formulatxoa. Egia esan, mundu horretan, irakasle bezala lehenik eta sindikatu-gizon bezala azkenik, urte asko daramatzagunok nahikoa buruhauste eta kezka sentitzen dugu baserri-munduaz hitzegiterakoan eta, askoz ere gehiago, baserriari eta nekazaritzari norabide bat markatu nahi zaionean. Izan ere, hain da mundu alderdi askoduna eta korapilotsua! Dena dela, mundu horren alderdi nagusiak agertzen saiatuko gara.

Baserri-aldakuntzak

Askok uste dute, edo askotan uste izaten da, baserriak bere hartan jarraitzen duela eta aldakuntzarik ez dela mundu honetan. Uste okerragorik ezin liteke izan. Puntu hori garbi uzten du eskuratu berria dudan estudio batek¹. Agiri horretan azaltzen denez, 20 urtetan (1952-1972), industri zerbitzuen emankortasuna 2,7 aldiz igo den bitartean, urte beretan nekazaritzaren emankortasuna 3,75 aldiz hazi da. Emankortasuna, kasu honetan, langile bakoitzak sortzen duenarekin neurtzen da. Dena dela, ekonomi sailen arteko aldea garbi dago eta nekazaritza da irabazle.

Beste aldetik, urte beretan kapital erabilia industri zerbitzuetan 2,4 aldiz handitu den bitartean, nekazaritzan 5,5 aldiz igo da. Beraz, nekazaritzako berrikuntza askoz ere garestiagoa izan da.

Esandako hori Frantziari dagokio. Baina gure artean zer gertatu da azkenaldi honetan? Berriz ere estudio batetaz baliatuko gara². Hemengo aldakuntzak beranduago etorri dira eta ez dira hain gogorrak izan. Hala ere, Douglass ikertzaile amerikarrak Murelagan eta Etxalarren aurkitu duenez eta XX. gizaldiari dagokionez, 3 aro nagusi bereizten dira: gizaldiaren hasieratik 1925 arte; urte honetatik 1945 arte eta 1945az gorakoa.

Lehen aroa

Garai honetan, baserria, berak behar duena sortzeari lotua dago gehienbat. Hau dela eta, etxean behar zen garia eta artoa egiten ziren eta urte osorakoa sortu behar zuten etxalde ona izatekotan. Gaur baino askoz lur gehiago erabiltzen zen labore hauetan.

Lan-molde aldetik, ez zen gaurko golderik ezagutzen. Murelagan laiez aritzen ziren eta Etxalarren lurra harrotu besterik egiten ez zuen golde-klase bat erabiltzen zen. Segarik ere ez zen ezagutzen eta igitaiarekin ebaki behar zen ganadu-bazka. Itxura denez, udaberri, uda eta udazkenean, behiak larrera botatzen ziren.

Etxean behar zen gehiena bertan sortzen zenez gero, ezer gutxi erosten zen kanpoan, eta hauek luxuzko gauzatat jotzen ziren: azukrea, txokolatea, kafea, arrain gazituak eta edari batzu. Zenbait pagamentu gauzez ordaindu ohi zen (errenta eta abar), eta dirua bera estuasun batzutarako gorde ohi zen, dotea emateko, herentzia garbitzeko eta abar.

2. aroa

Bi sistemak, zaharra eta berria, nahasturik bizi dira: berez bizi dena eta salmenta-bidean jartzen dena.

Sega eta goldea sartuz, bi tresna hauek zeharo aldatzen dute baserrietako lana, azkartuz eta erraztuz. Era berean, ganadu-janariak kanpotik ekartzen hasten dira eta ongarri mineralak erabiltzen dira karearen orde. Guzti honek diru-beharra sortzen du baserrian eta merkatu-bidean jartzen du berau.

Ganadutzatik datoz orain ere diru-sarrerak gehienbat: esnea eta gazta batez ere eta esneko txekorrak. Esnearen estimazioak bi ondorio dakartza: urte osoan behiak etxean edukitzea esnea kentzeko eta suitzar arrazako behiak eskuratzea gorrien orde. Hauek

esne gehiago ematen zuten eta, nahiz eta janari gehiago eskatu, lanerako, uztarrirako ere balio zuten.

Gaztak egiten ziren baserrietan, gazura txerrientzat erabiltzen da. Modu honetan, zenbait tokitan, batez ere Nafarroan, txerri-gizentzeari eta umeak sortzeari ekiten zaio.

Ganaduak indar hartzen duen neurrian, belardiak handitzen dira eta lur landuak, nekazari-lurrak, gutxituz doaz. Artoa bera ere ganaduentzat erabili ohi zen pertsonentzat baino gehiago. Jakina, joera horiek guztiak gerratearekin eta gosetearekin aldatu ziren urte batzutan behintzat.

3. aroa

Baserria diru-munduan sartzen da erabat eta saltzeko gauzak sortzera jartzen da.

Makinak sartzen dira, motosegak, belar-zuloak egiten eta ikui-luak berritzen, dirutza handia erabiliz. Aldi berean, lurrak analizatzen dira eta ongarrri mineralak erabiltzen. Arto hibridoa sartzen da eta, behientzat, txekorrentzat, oiloentzat eta untxientzat pentsu osatuak gero eta gehiago erabiltzen dira. Ganaderitzan, behi holandesak, esne-behiak alegia, ugaritzen dira. Baita ere, haziaren bidez, arraza hobetzeari ekitzen zaio. Labrantza-lurretan, belardi landuak, artifizialak, jartzen dira martxan.

Kanpora saldu behar honek aldaketak dakartza baserri-mundura. Batetik, saltzaileak sartzen dira tartean; hasieran esneketariak, letxeroak alegia, eta esne-zentralak geroago. Beraz, salmenta bera eta jeneroen prezioak besteren esku gelditzen dira eta baserria bere burujabetza galduz doa. Berdintsu gertatzen zaio kanpotik erosi behar dituen jeneroekin, ongarririk direla, pentsuak direla, eta abar luzea.

Oraindik menpetasun handiagoa. Etxean eta baserrian sartu dituen hobekuntzak bere diruz egiterik ez du izan eta diru bila atera beharrean aurkitu da. Nekazaritzako kreditu bereziak izan dira, baina, azken batean, nekazari-jeneroen merkatua ere berezia denez gero, nahikoa baldintza estuak suertatu zaizkio, batez ere esfortzu handia egin beharrean aurkitu delako. Egia hauxe da: baserria zorpean aurkitzen dela erabat eta burua altxatzea oso nekosoza zaiola.

Nekazaritzaren lekua gizartean

Nekazaritzak gizartean duen lekua neurtzeko, neurri desberdinak erabili ohi dira. Izan ere, gizarteak —eta berdin gurea bezalako gizarte batek— ikuspegi asko ditu bere baitan eta horietan nekazaritzak maila eta leku desberdinak hartzen ditu. Gaurko honetan, nagusienak jorratuko ditugu.

Lehenengo, nekazaritza-sailak hartzen duen jendetza eta, batez ere, langile-multzoa dator³. Aurreko puntuan ikusi dugunez, nekazaritzaren emankortasuna asko handitu da; beste modura esanda, jenero-multzo berdina ateratzen da langile gutxiagorekin. Ondorioz, numeroz eta konformidadean nekazari-langileak gutxituz doaz herri aurreratu guztietan, eta gurean ere bai. Hala ere, nekazaritzaren garrantzia osoan neurtzeko, kontutan hartu beharko lirateke, goi aldetik, nekazaritzak erabili ohi dituen tresneria eta instalazioak eratzeko behar diren langileak eta, berdin, jenero horiek transformatzeko eta kontsumitzaileen eskuetara iristeko enplegatzen direnak. Era honetan neurturik, hobeto ikusiko litzateke nekazaritzaren benetako lekua eta garrantzia.

Euskal Herrian, zuzeneko nekazari-langileek langilego osoaren 7,6 osatzen dute. Konformidade handiena Nafarroak dauka % 15,9rekin; txikiena, Bizkaiak % 4rekin; eta Arabak eta Gipuzkoak % 11,4 eta 5,7 dituzte hurrenez-hurren. Zenbaki horiek 1981. urtekoak dira. Urte horretan, Europari begira, proportzio hauek aurkitzen ditugu: Alemanian 5,9; Frantzia 8,6; Holandan 5; Ingalaterran 2,8 eta Italian 13,3. Europa osoan, batezbeste, % 8,1. Proportzio horiek adierazten dutenez, Europaren maila berean gabiltza oker handirik gabe eta, beharbada, beheraxeago.

Baina zenbat langile diren jakiteak ez du gauza askorik argitzen, zer eta zenbat sortzen duten jakin gabe. Puntu hau sakon aztertzerik ez daukagu, baina hau esan liteke: Europan jenero gehienak sobrante diren bitartean, gu eskasian gabiltzala behi- eta untzi-haragitan, fruta eta zenbait barazkitan, arrautza eta ardotan eta, zer esanik ez, Mediterraneo aldeko jeneroetan. Guzti horrek garbi azaltzen digu emankortasunean pauso asko eman beharra daukagula; eta puntu honetan emango digu Europak nahikoa lan.

Dena dela, ez dirudi beharrezkoa —eta askotan ezinezkoa izango litzateke— behar diren jenero guztiak bertan sortzeak; baina gaurko krisialdi honetan beharrezkoa da ahal den lanposturik

gehiena sortzea eta ahal den probetxurik handiena ateratzea gure lurrari.

Hain zuzen, probetxu hori neurtzeko, ekonomi sail bakoitzak sortzen duen balio erantsia erabili ohi da. Europa osoan, nekazaritzaren balio erantsia balioa nekazari-langileena baino txikiagoa da. Gurean ere horixe bera gertatzen da, eta diferentzia handiagoekin. Araban, langileen % 11,4k, % 5,1eko balioa sortzen du; Gipuzkoan % 5,6k % 2,2ko balioa; Bizkaian % 4k % 1,1eko balioa eta Nafarroan % 15,9k 8,6ko balioa; Euskal Herri osoan langileen % 7,6k 3,3ko balioa. Ondorioz, nekazaritzako langileen emankortasuna ekonomia osokoekin parekatuz, % 55,8 txikiagoa da Araban; % 60,3 Gipuzkoan; % 72,5 Bizkaian; % 45,7 Nafarroan eta 56,7 Euskal Herrian. Baina puntu honetan jeneroen prezioak zerikusi handia du balio erantsia neurtzerakoan eta azken urte hauetan nekazari-prezioak besteak baino gutxiago igo direla, gauza jakina da.

Puntu hau nolabait zehazteko, Banco de Bilbaok⁴ errenten azken azterketan azaltzen dituen datuak erabil daitezke. Azterketa horrek, ekonomi saila, 22 azpisailetan banatzen du eta hauen artean, Komunitate Autonomoari dagokionez, nekazaritzak 15. lekua du. Atzetik datoz, ura, gasa eta argi-indarraren azpisaila; meatzaritza eta petroleoa; arrantza; zura eta kortxoa; zeramika, kristala eta ormigoia; larrua, jantziak eta oinetakoak eta, azkenik, oihaletza. Beraz, balio erantsiaren aldetik ere, nekazaritza ez da bil azken postuetan.

Azkenik, nekazaritzak gizarte-giroan duen lekua ikusi nahi genuke. Politikan nekazaritzak ez du zenbait herritan eta zenbait naziotan duen garrantzirik, Frantzian adibidez. Jokabide horretan, jakina, badu zerikusirik nekazaritzaren pisu txikiak jendetzaren eta ekonomiaren aldetik. Nahikoa da alderdi politikoen jokabidea ikustea. Hautagaien listetan, bai herri mailan eta bai herrialde mailan, baserri-munduko ordezkari gutxi ikusten da; partiduen programetan ere aipamen gutxi izan ohi ditu nekazaritzak eta aipamen arin batzu besterik ez. Hauteskunde-modeloak ere horretara bultzatzen du. Hauteskunde-barrutiak probintziak egin ohi dira. Barrutiak txikiagoak balira eta barruti bakoitzean gehiengoaren bidez aukeratuko balitz, Frantzian egin ohi den bezala, dudarik ez dago, zenbait tokitan behintzat, gurean ere garrantzi handiagoa izango lukeela nekazaritzak.

Beste hainbeste gertatzen da egunkari, aldizkari, irrati eta telebistetan. Komunikabideetan nahikoa baztertua dago nekazaritza.

Gertakari bereziren bat izan ezean (manifestaldi bat, batzarre bereziren bat, Europan sartzea eta abar), askotan kronika mailatik ez da pasatzen komunikabideetan nekazaritzak duen lekua. Ikusi besterik ez dago. Orri berezirik ez dute gure egunkariak, merkaturako orria izan ezik, ezta gai hauetan ohitu eta jantzitako kazetaririk ere. Puntu honetan, beharbada, irрати euskaldunak dira ardura gehiena agertzen dutenak. Baina, onenean ere, nahikoa arina eta profesionaltasun gutxikoa.

Nekazaritza eta ustiategiak

Lurralde batetik bestera, giroak eta lurrak eraginda, nekazaritza desberdinak aurkitzen dira. Baina desberdintasuna, baserri bakoitzak, ustiategiak ere, beren beharren eta baliabideen arabera, sortzen dute.

Hau kontutan izanik, era askotako klasifikazioak egin daitezke eta guztiak baliagarriak izan daitezke. Guk ere Gipuzkoari begira klasifikazio bat presentatu izan dugu⁵. Nolanahi ere, probintzia baten barruan ez da hainbesteko alderik aurkitzen.

Nere irakasle izandako Klatzmann jaunak⁶, harritzekoa ez denez, Frantziari begira alde handiagoak aurkitzen ditu. Frantziako Iparraldean, 30 hektareako ustiategiak aurkitzen dira, baina emaitza ugariarekin. Tamaina aldetik erdi-parekoak dira eta dedikazioz, zenbait laboreri eta ganaderitzari emanak eta beti teknika aurreratuz baliatzen direnak.

Bretainian ustiategiak txikiagoak dira eta langintza nagusia ganadularitza da. Lurrik eza, lurrik gabeko langintzaz (hegiatiak, xerri-aziendak eta abar) osatzen da.

Erdi aldean eta Paris aldean, ganadularitza utziz, laboreak bazarrik lantzen dira (garia eta artoa), 200 hektareako ustiategiekin.

Languedoc aldean (Hegoaldean) puntako espezializazioa (mahastizaintza) aurkitzen da, ustiategi handi eta txikiekin.

Mendialdeetan, ganadularitza da nagusi. Ustiategiak txikiak izanik, herri-lurrekin osatzen dira.

Beste erako klasifikazioak ere baditugu. Mainié jaunak, bere klasifikazioa egiteko, ustiategien aldakuntza hartzen du oinarri-

tzat. Batzu atzeraka doaz, besteak aurrera eta gainerakoek bere hartan diraute. Aurrera doazenek bi erataria jokutzen dute: eremuak handituz edota emaitza trinkotuz.

Klasifikazioen alderdi hau bukatzeko, beste estudio bat aipatuko dugu⁸. Estudio honek 3 eratako ustiategi-tipoak aurkezten ditu. «Modernizatu» deitzen ditu batzu, hau da: teknika aurrerratuaz erabiliak eta nahikoa ustiategi handiak direnak. Hauek ez dute Estatuaren laguntza-beharrik. «Modernizable» lirateke besteak, hau da: eremuz txikiegiak direnak eta tresneriaz iristen ez direnak. Baina jabeak teknikaz ondo jantziak daudenez gero, diru-laguntza baten bidez —batez ere lur gehiago eskuratzeko— aurrekoen mailara iritsiko lirateke. Hauek epe jakin batean Estatuaren diru-laguntza beharko lukete. Beste guztiak, «modernizatu» nahi ez duten edo ezin duten ustiategi txikiak izango lirateke. Hauek, laguntza soziala izango lukete erretiro-garaira heldu arte eta orduan hauen lurra modernizazio-bidean daudenentzat izango lirateke.

Azken klasifikazio honek, diru-laguntzaren arazoa sortzen du. Puntu hau Europa mailako estudio eta azterketetan aspaldi aipatu zen⁹. Azkenaldi honetan, kritika hori asko zabaldu da Europako jenero soberakoen arazoa sortu eta produkzio-kuoten sistema ezarri denean. Europako FEOGaren diruak (Fonds européen d'O-orientation et de Garantie agricoles) gehienbat merkatuari eta prezioei eusteko erabili ohi dira. Beraz, era honetara, jenero gehien sortzen duenak jasotzen du laguntzarik gehien, baserri eta ustiategi handiek alegia. Aborokinen garaian jokabide honek ez du zentzurik.

Egoera honen aurrean, bi erataria joka liteke. Batetik, Norvegian egiten den bezala, zer-nolako baserriak diren ikusiz, prezio desberdinak jarri familia bakoitzak bizitzeko adina izan dezan¹⁰. Edota, garantiatzko prezioa jaitsi eta horrela libratzen den dirua nekazari-familiei laguntzeko erabili, nekazaritzako errenta arazo sozial bezala hartuz, langabezia hartzen den bezala.

Bigarren sistema hau garbiagoa izango litzateke, baina baditu bere alderdi txarrak: nekazariak limosnazko langintza egiten dutela pentsatuko lukete eta, bestetik, oraingoa bezalako krisialdi batean, Estatuak begi txarrez ikusten dituzte subentzioak eta gutxitu egin nahi izaten dituzte.

Dena dela, nekazaritzan gero eta subentzio gehiago erabiltzen da (adibidez, Mendiko Nekazaritzan) eta, bestetik, produkzioaren arabera (adibidez, Alemanian) produkzio-kuotak banatzen dira.

Prezioei eutsi ordez, familiei eusteño jokabidearen garaia etorri ote da Europara?

Gutxien-gutxienez galdera plazara da eta erantzun baten zain dagoela ere nahikoa bistan dago.

A.L.

-
- 1 E.L.B. (Euskal Laborarien Batasuna): *Une nouvelle politique agricole*, C.N.S.T.P. 1984.
 - 2 DOUGLASS, Willian A.: *Oportunidad y Exodo Rural en dos Aldeas Vascas*, Auñamendi, Donostia 1977.
 - 3 DPTO. DE ESTUDIOS DE CAJA LABORAL POPULAR: *El Sector Agrario Vasco ante la Comunidad Económica Europea*, 1985. KLATZMANN, Joseph: *L'Agriculture Française*, Edit. du Seuil, 1978.
 - 4 BANCO DE BILBAO: *Renta Nacional de España*, 1981, 1983.
 - 5 LEKUONA, Andoni eta beste: *Estudio socio-económico del Caserío Guipuzcoano*, Escuela Rural Zabalegui, 1973.
 - 6 KLATZMANN, J.: aip. lib.
 - 7 *Les Exploitations Agricoles en France*, P.U.F. (Que sais-je?), Paris, 1971.
 - 8 GERVAIS, M., SERVOLIN, C. et WEIL, J.: *Une France sans paysans*, Edit. du Seuil 1965.
 - 9 ZELLER, Adrien: *L'Imbroglia Agricole du Marché Commun*, Colmann-Lévy, 1970.
 - 10 Ik. 1. oharreko agirian «quantum» izeneko sistema.

LA AGRICULTURA EN EL MUNDO DE HOY

L'AGRICULTURE DANS LE MONDE D'AUJOURD'HUI

El autor, conocido profesor de una escuela rural y dirigente sindical, se propone ofrecer algunas coordenadas de la compleja problemática del mundo rural.

Transformación del caserío

Contra lo que se cree frecuentemente, el caserío se ha transformado profundamente. Como prueba, el autor ofrece algunos datos referentes a la situación francesa respecto a la productividad y al capital invertido en la agricultura, comparándolos con el sector industrial. Asimismo, sintetiza los resultados de unos estudios del in-

investigador americano Douglass, quien distingue tres periodos en la agricultura del País Vasco durante el siglo XX: 1) Hasta 1925: El caserío procura su autoabastecimiento; la labranza tiene mayor importancia; la técnica actual no se conoce; el dinero tiene poca circulación. 2) Entre 1925 y 1945: Junto al sistema anterior, surge uno nuevo caracterizado por el creciente desarrollo del mercado, de una mayor importancia de la ganadería vacuna y porcina, de la maquinaria agrícola, de las praderas. 3) Desde 1945: El caserío entra de lleno en el régimen de mercado. Los signos del periodo anterior se acentúan. El intermediario (los recogedores de leche y las centrales lecheras, los suministradores de piensos) cobra una fuerte presencia con la correspondiente pérdida de independencia del productor agrícola. Esta dependencia presenta otra dimensión: la relativa a las instituciones que ofrecen créditos, difíciles de amortizar.

Lugar de la agricultura en la sociedad

La importancia social de la agricultura se puede medir con diversos baremos. Desde el punto de vista del conjunto de trabajadores agrícolas, el País Vasco en su conjunto se halla en torno a la media europea y disminuye progresivamente. Sin embargo, a diferencia de la media de Europa, la producción respecto a muchos géneros es insuficiente; ello es índice de una productividad deficiente. Desde el punto de vista del valor añadido creado por cada sector económico, la agricultura produce un valor menor en relación al número de los agricultores. Esto ocurre también en Europa; pero entre nosotros con mayor diferencia. Sin embargo, al sopesar estos datos, hay que tener presentes otros factores, como la importancia de los precios políticos que se imponen a los productos agrícolas. De todos modos, existen sectores económicos menos rentables que el agrícola.

La escasa importancia social del mundo agrícola se puede deducir de su poca incidencia en la política (pocos representantes del mundo rural; pocas ofertas en los programas de partidos; poco peso de las circunscripciones rurales en el sistema de elecciones actual) y en la prensa.

La agricultura y las explotaciones

Otro factor importante para sopesar la agricultura es la dimensión de las explotaciones. Se recuerda la clasificación hecha en los estudios de Klatzmann y de Mainié. Es particularmente interesante la división de explotaciones modernizadas, modernizables y no-modernizables, por su importancia en la política de ayudas seguida por FEOGA (Fonds européen d'Orientation et de Garantie agricoles), que priman precisamente a los productores más poderosos. Posiblemente ha llegado la hora de iniciar otro sistema de ayuda al sector agrícola, que, más que a sostener los precios, se orienta a apoyar a las familias.

L'auteur, un professeur connu d'une école rurale et dirigeant syndical, nous présente quelques données importantes des problèmes complexes du monde rural.

Transformation de la ferme.

Contrairement à ce que l'on croit souvent, la ferme a subi des transformations profondes. Comme preuve, l'auteur apporte des données concernant la situation française quant à la productivité et au capital investi dans l'agriculture, en les comparant au secteur industriel. De même, il résume les résultats des études réalisées par le chercheur américain Douglass, qui distingue trois périodes dans l'agriculture du Pays Basque durant le XX^e siècle: 1) Jusqu'à 1925: la ferme procure son auto-approvisionnement; le labourage a une plus grande importance; on ne connaît pas les techniques actuelles; l'argent circule peu. 2) Entre 1925 et 1945: avec le système antérieur surgit un nouveau système caractérisé par le développement croissant du marché, de l'élevage bovin et porcin, de l'outillage agricole, des prairies. 3) Depuis 1945: la ferme entre de plein pied dans le régime de marché. Les signes de la période précédente s'accroissent. La présence de l'intermédiaire (les ramasseurs de lait et les centrales laitières, les fournisseurs d'aliments de bétail) acquiert une grande importance, ce qui entraîne la perte d'indépendance du producteur agricole. Cette dépendance se manifeste aussi face aux institutions qui offrent des crédits, difficiles à amortir.

Place de l'agriculture dans la société.

L'importance sociale de l'agriculture peut se mesurer selon des barèmes différents. Du point de vue de l'ensemble des travailleurs agricoles, le Pays Basque se situe globalement au niveau de la moyenne européenne et diminue progressivement. Cependant, contrairement à la moyenne européenne, la production de beaucoup de produits est insuffisante; cela est l'indice d'une productivité déficiente. Du point de vue de la valeur ajoutée créée par chaque secteur économique, l'agriculture produit une valeur moindre par rapport au nombre des agriculteurs. Cela se produit aussi en Europe, mais chez nous l'écart est plus grand. Néanmoins, lorsqu'on considère ces données, il faut tenir compte d'autres facteurs, tels que l'importance des prix politiques imposés aux produits agricoles. De toute manière, il existe des secteurs économiques moins rentables que l'agriculture.

La faible importance sociale du monde agricole peut se déduire de sa toute aussi faible incidence dans la politique (peu de représentants du monde rural; peu d'offres dans les programmes des partis; peu de poids des circonscriptions rurales dans le système électoral actuel) et dans la presse.

L'agriculture et les exploitations.

Un autre facteur important pour soupeser l'agriculture est la dimension des exploitations. L'auteur rappelle la classification faite dans les études de Klatzmann et de Mainié. Particulièrement intéressante est la division des exploitations modernisées, susceptibles d'être modernisées et non susceptibles d'être modernisées, selon leur importance dans la politique d'aides suivie par le FEOGA (Fonds Européen d'Orientation et de Garantie Agricoles), qui favorise précisément les producteurs les plus puissants. Certainement, le moment est venu d'appliquer un autre système d'aide au secteur agricole, qui soit dirigé d'avantage à appuyer les familles qu'à soutenir les prix.

Hego Euskal Herriko nekazaritza

Jon Emaldi

Euskal Herriko nekazal sektorearen garrantzia

Euskal Herriko nekazal sektore honen barruan sartzen dira nekazaritza, ganadularitza eta oihan-azpisektorea. Sektore honek gaur egun duen garrantzia, duela urte batzu izan zuenarekin konparatuz, txikiagoa da. Jarraiko zifra hauek laborantzak ekonomia osoan duen garrantzia laburtzen dute: sektorean bertan egindako berrenpleguak kenduta, 1981eko azken ekoizpena 68.675 milioi pezetatan baloratu zen. Honek Hego Euskal Herriko Barne-Produktu Gordinari (BPGari) 42.627 milioi pezetako, hau da, BPGaren % 3,3ko ekarpena egin diola suposatzen du. Bestalde, 65.513 laguni ematen die lana. Honek, lau eskualdeetako enplegatu guztiak batera hartuta, % 7,6 suposatzen du. Zifra hauek ere 1981ekoak dira.

Nekazaritzak eskualde horietako bakoitzean dituen hedadura eta garrantzia desberdinak bait dira, izan, nekazaritzako azken ekoizpen hori ere desberdinki banatzen da: Nafarroari orotatik erdia baino gehiago dagokio (% 54,6), eta ez dagokio bakarrik bera delako eskualderik hedatuena (berak bakarrik 10.421 km² besarka-

tzen ditu eta Euskal Komunitate Autonomoak 7.261 besterik ez), baita nekazaritzari atxekiena bera delako ere; Arabakoak % 17,1 suposatzen du; Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza oso txikia bada ere, ez da horrela azienda- eta oihan-azpisektoreetan eta horien ekoiizpena, hurrenez-hurren, % 14,6koa eta 14,7koa da.

Nekazal sektorearen *ondare*-balioa (hor barruan sartzen dira makineria eta tresnen balorazioa, aziendak, lurrak, landaketak eta nekazal eraikuntzak), Deustuko Merkatal Unibertsitateak 1965ean argitaratutako *La riqueza nacional de España* lanean kalkulatu zuenaren arabera, 73.642,5 milioi pezetakoa zen. Honek Euskal Herri osoaren aberastasunaren % 13 suposatzen du. Bizkaia eta Gipuzkoan, data horretako nekazal ondarea % 6,8koa eta % 7,4ekoa zen, hurrenez-hurren; Araban, aldiz, % 19,9koa eta Nafarroan % 32,6koa. Zifrok eskualde bakoitzaren guztizko kopuruari begira kalkulatu daude. Harez gero Nekazaritzako Ministraritzak eguneratu ditu zifra horiek 1972. eta 1976. urteei dagokienez, baina nekazal sektoreari buruzkoak bakarrik; sektore horretako beste azpisektoreei dagozkien zifra konparatiboak ez dira ezagutzen. Nolanahi ere, badirudi gaur egun nekazal aberastasunaren guztizko ondare-portzentaiak 1976koen aldean nahikoa txikiagoak direla.

Sektorearen *inbertsioa*-ri dagokionez, 1979an 6.944 milioi pezetakoa izan zela kalkulatu da. Honek balio erantsiaren % 12,9 suposatzen du. Inbertsio hau gehienbat (orotatik % 70) makinerian eta etengabeko hobakuntzetan (bideak egiten, lurrak ureztatzen, lurzoruak hobetzen,... ekimen pribatu nahiz publikoen bidez egindakoak) eta, neurri apalagoan, nekazal eraikuntzetan egin da. Azken urteetako (1978 eta 1979) datu eskuragarrietan oso nabarmen ageri da aziendatan nahiz oihan-landaketan egindako inbertsioak negatiboak izan direla.

Sektore hau nola dagoen ikusteko, informazio-iturri garrantzitsua dira *Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko input-output taulak*, Bilboko Bankuak argitaratuak eta 1972koak. Taula horiek lehen gaiak (*input*-ak) nondik datozen eta sektore desberdin horietako bakoitzetik irtetzen diren produktu landuak (*output*-ak) nora doazen aztertuz egiten dira. Honela, sektore desberdinetan lehen-gaiak eta bukatutako produktuen arteko salmenta-harremanak (*industriarteko* harremanak) eta sektore bakoitzak gainerako ekonomiarekin (kontsumitzaile, esportazio, inportazio eta abarrekin) dituenak nolakoak diren azaltzen da. Taula hauek bereizten dituzte Euskal Komunitate Autonomoko ekonomia eta Nafarroako ekonomia.

Nekazal sektoreko *input*-en ikuspuntutik begiratuta, hau da, nekazal sektoreak bere ekoizpenerako erosten dituen lehengaiak kontutan hartuta, hiru azpisektoreetan dagoen *harremana* nabarmentzen da. Bai Euskal Komunitate Autonomoan bai Nafarroan, hiru azpisektore hauetan (nekazaritza, ganadularitza eta oihanean), erabilitako *input*-en zati garrantzitsu bat azpisektoretik bertatik eta gainerako nekazal sektoreetatik datorrena da. Oihan-sektorean, lehengaien erabilera txikia da. Sektore hori gutxi industrializaturik dagoela esan nahi du horrek eta ekoizpenaren zatirik handiena oihanen hazkunde naturalari zor zaiola.

Bestalde, *output*-en ikuspuntutik begiratuta, hau da, lortutako produktuak nora doazen kontutan hartuta, jarraiko grafikoek erakusten dute hiru nekazal azpisektoreetan landutako produktuen kontsumoa nola banatzen den, batetik, *azkeen eskariaren* (hots, sektore kontsumitzaileen, funtsean familien, eta, Nafarroaren kasuan, Estatuko beste lekuetara egindako esportazioen) eta, bestetik, *industriarteko* kontsumoaren (gero beste sektore batean landua izateko esleitzen den ekoizpen-zatiaren) artean.

Ikusten den bezala, Euskal Komunitateak garrantzi handiagoa du zona *kontsumitzaile* gisa. Familien kontsumoak nekazal eta azienda-produktuen erabilera guztizkoaren % 35,5 eta % 65,4 suposatzen du, hurrenez-hurren. Nafarroak, aldiz, bere ekoizpenaren zati on bat Estatuko beste lekuetara (EKA barne) *esportatzen* du: nekazal produktuen % 35 eta azienda-produktuen % 22,8.


Beste industrietarako (industriarteko kontsumorako) nekazal produktuen salmentari dagokionez, *janari-industriak* dira nekazal produktuen helburu nagusia; ardo-industriek badute garrantzirik, baita ostalaritzak eta jatetxeetakoek ere, batez ere EKA. Nafarroan, halaber, zukugintza eta barazki-kontserbagintzarako erabiltzen den nekazal ekoizpen-zatia aski handia da.

Azienda-produktuei dagokionez, logikoa denez, berorien helburu industrial nagusia haragi- eta esne-enpresak dira. Esne-industriek garrantzi handiagoa dute Euskal Komunitatean, hemen esnetarako azienda espezializatuagoa bait dago; Nafarroan, aldiz, azienda-ekoizpenetik zati handiagoa erabiltzen da haragi-industrietarako. Familiek zuzenean kontsumitzen dutenari dagokionez, azienda-ekoizpenaren helburu nagusia bera dela erakusten du grafikoak. Honek Euskal Komunitate Autonomoan du garrantzirik handiena.


Oihan-ekoizpena (zura) gehienbat zerratako eta papergintza eta kartoigintzarako erabiltzen da.

1. grafikoa: Azpisektorerik garrantzitsuenetako bakoitzak, industrialak eta azken kontsumoak, suposatzen duten portzentaia nekazaritzan landutako produktuen (output) destinoan.

Euskal Herriko K.A.




Nafarroa




Iturria: Bilboko Bankuaren Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko input-output taulen gain geuk landua.

2. grafikoa: Azpisektorerik garrantzitsuenetako bakoitzak, industrialak eta azken kontsumoak, suposatzen duten portzentaia gaudularitzan landutako produktuen (output) destinoan.

Euskal Herriko K.A.




Nafarroa




Iturria: Bilboko Bankuaren Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko input-output taulen gain geuk landua.

3. grafikoa: Azpisektorerik garrantzitsuenetako bakoitzak, industrialak eta azken kontsumoak, suposatzen duten portzentaia oihan-sektorean landutako produktuen (output) destinoan.

Euskal Herriko K.A.



Nafarroa



Iturria: Bilboko Bankuaren Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko input-output taulen gain geuk landua.

Grafiko hauetan lehen iruzkindu dugun beste ezaugarri bat ere agertzen da: nekazal azpisektoreen arteko harremana. Izan ere, ikus daitekeenez, nekazal eta azienda-produktuen kontsumoaren zati garrantzitsu bat nekazaritza eta ganadularitzako azpisektoreetan egiten da.

Input-output Taulek erakusten duten beste alderdi bat, zera da: bi unitate administratibo hauen autohornidura-maila desberdina. Euskal Komunitate Autonomoko hiru nekazal azpisektoreek defizita ematen duten bitartean, Nafarroako nekazaritzak zein ganadularitzak soberakina ematen dute.

Euskal Komunitate Autonomoan, kontsumoa orotara hartuta (eta hemen azken kontsumitzaileei dagokiena nahiz gero landuak izateko erosketa industriartekoak sartuz), nekazal produktuekiko elkartrukkeen saldo garbia (esportazioen eta inportazioen arteko diferentzia, alegia) honelakoa da: nekazal produktuen kontsumoaren % 54 Estatuko beste lekuetatik (Nafarroa barne) datorrena da eta % 10 atzeritik. Honek zera suposatzen du: nekazal produktuen % 64 EKA osatzen duten hiru eskualdeetatik at datozenak direla. Azienda-produktuei dagokienez, esan behar da nazioarteko merkataritzaren pisua eskasa dela eta EKAn kontsumitzen den % 38 Espainiako beste lekuetatik datorrela. Oihan-produktuen sailean, berriz, kontsumoaren % 36 Estatuko beste lekuetatik dator eta % 4 atzeritik.

Nafarroako nekazal egoera, aldiz, bestelakoa da. Honek Estatuko beste lekuetan (Euskal Komunitate Autonomia barne) salduz, soberakinak lortzen ditu. Nafarroak Espainiako beste lekue-tara nekazaritzan lorturiko produktuen % 19,4 eta ganadularitzan lorturikoen % 8 esportatzen du. Hala ere, atzerrira begira, nekazal sektorearen beraren inportazioak zerbait handiagoak dira esportazioak baino. Oihan-azpisektoreak, honen garrantzia txikia bada ere, defizita ematen du; Estatuko beste lekuetatik inportatzen da kontsumitzen denaren % 36. Honek ere, atzerrira begira, defizit txiki bat ematen du.

Gipuzkoa eta Bizkaia (funtsean azienda- eta oihan-lurraldeak) eta Araba eta Nafarroa (funtsean nekazal lurraldeak) elkarren artean bereizi ordez, Euskal Herriaren oraingo zatiketa administratiboaren arabera jotatuko dugu, batetik Euskal Komunitate Autonomia (EKA) aztertuz eta, bestetik, Nafarroako Foru-Lurraldea. Honela, 1981eko zifren arabera, Euskal Herriko *ekoizpen* nagusiak jarraiko hauek dira:

- Lehenbizi, *haragia* eta *aziendak* daude. Hauek azken nekazal ekoizpenaren % 27,4 eta % 28,3 suposatzen dute, hurrenez-hurren, Euskal Komunitate Autonomoan eta Nafarroan.

- EKAKo bigarren nekazal produktua *esnea* da, zeinaren balioa ekoizpen osoaren % 23ra iristen bait da; laugarren postuan *arraultzak* daude (% 8,7). Azienda-produktu hauez gainera, *barazkiak* ere inportanteak dira (EKAKo nekazaritzaren balioa oro har, % 9,5 dagokie barazkiei).

- Nafarroan, aldiz, esneak eta arraultzeek garrantzi txikiagoa dute (ekoiztutako guztizkoaren % 6,6 eta % 3,3 hurrenez-hurren); *zerealek* (% 20,9) eta *barazkiek* (% 19,3), aldiz, ekoizpen handiaren balioan hartzen dute parte.

- Aipatutakoez gain, lursagarren garrantzi ekonomikoa ere azpimarratu beharra dago, beraren ekoizpen-balioa % 5,4koa delarik EKAn (nagusiki Araban) eta % 2,5koa Nafarroan; *ardoak* Euskal Komunitate Autonomoaren ekoizpenen % 4,5 suposatzen du eta, Nafarroari dagokionez, % 4,1. Zerealen ekoizpena Euskal Komunitate Autonomoan % 3,8koa da. Azkena EKAREN ekonomian aldetik, Araban bakarrik da esanguratsua.

Orotara, nekazal azpisektoreari dagokio azken nekazal ekoizpenaren % 49; azienda-azpisektoreak % 44 baino zertxobait gehiago suposatzen du eta oihanekoak, % 5.

Nekazaritzaren eboluzioa

Gerraondoko aroa

Nekazal sektorearen eboluzioa aztertzen hasi aurretik, gerra zibilak euskal nekazaritzan utzi zituen ondorioez hitzegingo dugu. (Nekazal sektorea esatean, nekazaritza, ganadularitza eta oihan-azpisektorea ulertzen dira, nahiz eta batzutan «nekazaritza» hitza hiru azpisektore horiek adierazteko erabili). Gerra zibila bukatzean, ongarririk eta, baita tirakako azindarik eza eta lanekuaren eskasia ere zirela bide, *hektarea* bakoitzeko *errendimenduak* oso apalak izan ziren: Gari-errendimenduak Nafarroan, adibidez, gerraurreko 1931-1935 epealdian, batezbeste 13,30 eta 19,59 kintalekoak ziren hektarea bakoitzeko lur ureztatu gabeetan eta ureztatuetan, hurrenez-hurren; 1943an, berriz, hektarea bakoitzeko 6,56 eta 15,0 kintalekoak ziren.

Input erabilgarrien eskasia honek, errendimendu hain txikiak sortzeaz gainera, zerealez landutako azalera gutxitzea ekarri zuen ondorio gisa. Honela, baldin 1931-35 epealdian batezbeste 157,4 mila hektarea bazeuden garia ereinda, 1943an 114,4 mila hektarea bakarrik erein ziren; honi hektarea bakoitzeko eman zen errendimendu apala eransten bazaio, zera gertatzen da: ekoizpena gerraurrekoaren erdia izan zela. Honek esplikatzeko laguntzen du gerra zibila pasa eta berehala ezagutu zen hornidura eskasiazko egoera.

Aldaketa laboreetan

Euskal nekazaritzaren eboluzioak 1936tik gaurdaino ezagutu dituen ezaugarriarik adierazgarrienetako bat, nekazal ekoizpenetan gertatutako aldaketa da. Honek aldatu du, hein handi batean, gure soroen itxura.

Lehenbizi, *labore-lurrak*, oro har, gutxitu egin dira: Nekazaritzako Ministraritzak 1943an eta 1982an argitaratutako zifrak konparatzen badira eta, kontzeptuek erabat homogenoak ez diruditen arren, Euskal Herriko azalera geografikoa (1.767 mila hektarea) orotara hartzen bada, landutako azalera 530etik 475 mila hektareatarra pasa da. Labore-lurren hedakuntzan gertaturiko murriztapen hau Gipuzkoara eta Bizkaira mugatu da. Seguraski bi eskualde hauetan egon den industria eta hirigintzaren beharrek eraginda gertatu da horrela. Bestalde, gogoan eduki behar da hedadura txikiak direla eta leku ordeka gutxi dutela. Horietako bakoitzean 46.000 hektarea lantzen ziren eta orain 13.000 inguru bakarrik. Orobat, koniferoen birlanaketa handiak (intsinis pinuarenak) egin dira: koniferoek 1947an, Gipuzkoan eta Bizkaian 37.400 hektarea betetzen zituzten eta 1972an, berriz, 175.000. Bi prozesu hauek (hirigintzak eta pinu-landaketak) eragin txikiagoa izan dute beste bi eskualdeetan. Hauetan labore-lurrek 86.000 hektarea gainditu dituzte Araban eta 363.000 Nafarroan. Hau da, Nafarroak berak bakarrik hiru aldiz lur gehiago landu zuen 1982an Euskal Komunitate Autonomoak batera baino.

Giza elikadurarako zerealen lekuan, *animali elikadurarako zerealak* eta aziendak bazkatzeko *zuhain-ekoizpenak* landu dira eta, laboreei dagokienez, puntu honetan egon da aldaketarik adierazgarriena. Aldaketarik handiena jasan duen produktua *garia* da. Lehengo nekazal ustiapenetan, funtsean, familiako kontsumoa asebetzera zuzendua zegoen ekoizpenaren antolakuntza; orain, ordea, egoera berri baten aurrean aurkitzen gara, zeren, komunikabideak

hobetu direnez gero, ahalezko izan bait da norberaren ustiapenean produktu jakin batzu ez egitea, adibidez garia, eta ustiapeneko ekoizpenak merkatura begira gehiago lantzea. Horregatik, gariak, gerraurrean Euskal Herriko lau eskualdeetan 157.000 hektarea hartzen zituenak, 1960an 133.000 bakarrik hartzen zituen. Zifra hau hogeitaz urteren buruan erdira murriztu zen (64.000 ha 1981ean). Gariari dagokionez, ekoizpen hau Gipuzkoa eta Bizkaiko soroetatik erabat desagertu zen 1981ean. Oso adierazgarria da datu hauxe. Esan beharrekoa da, garitarako ez direla batera egokiak bertako lurrak.

Zereal honen lekua, hein handi batean, *garagarrak* betetzen du, zeina animalia elikadurarako erabiltzen bait da. Garagarlantza hau, gainera, Nekazaritzako Ministraritzak bultzatu du 1960. urtetik aurrera, batez ere, berorren ekoizpen-erosketari dagokionez, gariaren kasuan baino garanti prezio faboragarriagoak jarritz, batez ere. Honela, garagarlantzan erabilitako azalera 1960. urtea arte ez da izan gerraurrekoan baino askoz handiagoa (30.000 hektarea baino txikiagoa izan da); 1970ean 76.000 hektarea izan dira landuak eta zifra hori, hurrengo hamar urteetan, ia bikoiztu egin da, 1981ean 144.000 hektarea hartzen bait ditu labore horrek. Gariarekin gertatzen denaren antzera, garagarrik ez da egiten, ezta deus ere, ez Gipuzkoan eta ez Bizkaian.

Artoa da garrantziaren aldetik hirugarren lekuan datorren zereala, baina honen garrantzia txikiagoa da, 1981ean 19.000 hektarea bakarrik hartzen bait zituen. Artogintza ere gutxituz etorri da, 1960. urtea arte egoera nahikoa egonkorrean egon den arren. Gerraurreko urteetan 30.000 hektarea hartzen zituen, honela banaturik: 3.000 baino zertxobait gehiago Araban eta 9.000 inguru Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako eskualdeetako bakoitzean; 1981ean, ordea, praktikan desagertu egin da Araba eta Bizkaiko soroetatik; Gipuzkoan 1.600 hektarea bakarrik lantzen dira, baina Nafarroako lur ureztatueta 16.000 hektarea hartzeraino iritsi da arto-laborea.

Esan dugun bezala, animalia elikadurarako garrantzitsuagoak diren zerealei eman zaie lehentasuna. Ez hori bakarrik: zerealen lekuan, hein batean bederen, zuhainak hazten dira. Hala erakusten dute jarraiko zifrek: *belardi artifizialak* (ez berezkoak, landutakoa baizik) eta *zuhainak*, zeinek 1943an 23.000 hektarea hartzen bait zituzten, 1951n ia 43.000 eta 1981ean 57.000 hektarea betetzen zituzten, eskualdeen arabera honela banaturik: 25.000 Nafarroan, 13.000 Bizkaian eta 10.000 baino zertxobait gutxiago Araba eta Gipuzkoako eskualdeetako bakoitzean. Hazkunderik bizkorrena

izan duten zuhain-landareak, belardi artifizialez (polifitez) aparte, alpapa eta zuhain-artoa izan dira.

Ikusi dugun bezala, autokontsumora zuzendutako nekazal ekonomiatik merkatu-ekonomiara pasatzean, labore-ordezkatze guztiz garrantzitsua ematen da. Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, aldaketa hori ganadularitzan espezializatzean datza. Esan liteke gure nekazaritzaren fisonomia aldatu egiten dela.

Euskal Herriko nekazaritza deskribatzeko orduan, hain zuzen ere, bitan zatitu ohi da: *artoaren azalera* eta *gariaren azalera* (edo mediterranear trilogiarena: garia, mahatsa eta olibondoa). Hala ere, lehen aipatu dugu, artoaren eremuan, edo atlantikoko nekazaritzan (Bizkaian, Gipuzkoan, Arabako Iparraldean eta Iparmendebaldeko Nafarroa Umelean) nola desagertu den izena ematen zion labore hori. Labore hau mekanizatzen zail samarra bait da eta asko garestitu den laneskua eskatzen bait du, beharbada horregatik gertatuko zen horrela. Eskualde honetan laneskua gehienbat familiarra bait da, garestitze hori alokairu-lanari baino gehiago laneskulari familiarren aukera-kostuari dagokio; aukera-kostu kontzeptu honetan biltzen da, hain zuzen, beste enplegu alternatibo batean ihardun ordez nekazaritzan lan egiteagatik lorturiko sarrera txikiagoa.

Area honetan nekazal sektorea funtsean *azienda*-rena da. Azpisektore honek, hurrenez-hurren, Gipuzkoako eta Bizkaiko nekazal ekoizpenaren % 60 eta % 70 baino gehiago suposatzen du; belardiek hartzen dute nekazal lurretako zatirik handiena.

Arto-azalerako nekazaritzari dagokionez, aipatzekoak dira 1968az geroztik sorturiko *aterpeko laboreak* ere. Hauek uzta goiztiarrak lortzeko sortu ziren: tomateak, lekak eta piperrak. Labore babestu honetan (batez ere baratzantzan) erabilitako azalera, 1980an, 269.500 m²-koa (ia 27 hektareakoa) zen Euskal Komunitate Autonomoan. Zifra honek bi urte lehenagokoa bikoiztu egiten du. Horiematik, 177.500 m² Bizkaia dagozkio, 85.500 m² Gipuzkoari (hemen lorelantz babestua garrantzitsua da) eta gainerako 6.500 m²-ak Arabari.

Artoaren azalera-ri edo mediterranear nekazaritzari dagokionez, ikusi dugu nola artoaren ordez garagarra landu den heinean batean, ia dena animalia elikadurarako. Mediterranear trilogia osatzen duten beste bi produktuei dagokienez, *mahastiak* garrantzi handia du Araban eta Nafarroan; gaur egun, Arabako herrietan (eta Nafarroako batzutan) egiten diren «Rioja» Jatorrizko Deitura daramaten ardoak ezezik, «Navarra» Jatorrizko Deitura daramate-

nak ere badira. Nolanahi ere, mahats-landaketak 1950az geroztik etengabeko atzerakada jasanez datoz. *Olibondoak*, bestalde, 4,3 mila hektarea bakarrik hartzen ditu bi probintzia hauetan.

Zona honetan, ohizko lur ureztatu gabea aparte utzita, *lur ureztatua* landutako lurren % 25 da Nafarroako Erriberan eta honen ahalbidetu du zona umelagoei dagozkien produktuak lantzea. Ohargarria da artoaren ekoizpenak 1953az geroztik egin duen gehikuntza eta alpapak 1940az geroztik egin duena; ohargarria da, halaber, *frutarbolan* eta *barazkien* hedadura. Honela, Nafarroan, azken bi horiek garatuz joan diren neurrian, barazki-kontserben industria ere haziz joan da. Hauek osatzen dute lurralde honetako janari-industria garrantzitsuaren % 30 baino gehiago, produkturik inportanteenak jarraiko hauek izanik: tomateak, esparragoak, piperrak eta alkatxofak, gainera ilarrak, lekak, txanpinoiak, azalorreak, espinakak eta porruak. Azken hauek gutxiago lantzen dira.

Arabaren *lursagarra*-ren ekoizpenak ezagutu duen gehikuntza aipatu behar da (batez ere, ereintzarako lursagarrarena, Nafarroako pirinear haranetan ere garrantzitsua den produktua). Patata da Arabako lehen ekoizpena, bai balioaren bai bertan diharduen laneskuen aldetik bigarrena.


Ikus dezakegunez, neurri handi batean desagertu egin da gariaren monolaborea Araban eta Nafarroan eta artoarena Gipuzkoan eta Bizkaian, hori izan bait zen 1930. urte-inguru haietako euskal nekazaritzaren ezaugarri nabaria. Hain zuzen ere, 1935ean gariak hegoalderago dauden bi eskualdeetan landutako azaleraren % 34 hartzen zuen eta artoak % 19 inguru atlantikoaldean kokatzen diren beste bietan.

Jarraiko mapa horietan, Euskal Herriko eskualde bakoitzean garrantzitsuenak diren zerealez eta zuhainez landutua dagoen azalera nolakoa den deskribatzeko orduan, grafiko bidez argitzen da kostaldeko bi probintzien eta barnealdeko beste bien artean dagoen diferentzia jadanik iruzkindua.

Bi zereal nagusiei, *garia*-ri eta *garagarra*-ri alegia, dagozkien grafikoek (hurrenez-hurren, 4. eta 5. grafikoek) erakusten dute labore horiek desagertu egin direla Bizkaian eta Gipuzkoan eta, halaber, garagarrak gariaren aldean leku handiagoa hartzen duela beste bi lurraldeetan.


Zuhainei dagokien grafikoak (6. grafikoak) eskualde desberdinetan bi zuhain-labore nagusi hauek, hots, alpapak eta belardi polifitek (belardi artifizialek) hartutako azalera biltzen du. Hor ikus-

4. grafikoa: garia lantzen erabilitako azalera, Euskal Herriko eskualde bakoitzean 1982an.



Iturria: Azalera landuei buruzko udal-datuak, Nekazaritzako Ministraritzaren Probintzi Ordezkaritzetatik eta Nekazal Ganbaretatik lortuak.


5. grafikoa: garagarra lantzen erabilitako azalera, Euskal Herriko eskualde bakoitzean 1982an.



Iturria: Azalera landuei buruzko udal-datuak, Nekazaritzako Ministraritzaren Probintzi Ordezkaritzetatik eta Nekazal Ganbaretatik lortuak.

ten denez, aurreko biei buruz nahikoa *osagarri* gertatzen da. Honela, zuhainean azalera hedatuagoa duten eskualdeak (Bizkaia eta Gipuzkoa ezetik, Arabako eta Nafarroako Iparraldeak ere bai) zerealetan garrantzi txikiagoa dutenak dira; eta, alderantziz, zereal-eskualdeek zuhainean garrantzi txikiagoa dute.

6. grafikoa: *alpapa eta belardi polifitak lantzen erabilitako azalera, Euskal Herriko eskualde bakoitzean 1982an.*



Iturria: Azalera landuei buruzko udal-datuak, Nekazaritzako Ministraritzaren Probitntzi Ordezkaritzetatik eta Nekazal Ganbaretatik lortuak.

Azienda-ekoizpena

Arestian esan berri dugu euskal azienda-azpisektoreak nekazal azken ekoizpenean duen garrantzia, laborantzarekin konparatzen bada, zerbait apalagoa dela. Honek ekoizpenaren balioaren % 44,3 suposatzen du.

Euskal Herriak, 1982ko Martxoko Zentsuaren arabera, jarraiko azienda-kopuru hauek dauzka:

Behi-azienda: 165.400 buru Euskal Komunitate Autonomoan eta beste 76.100 Nafarroan. Guztira, 241.500 abere. Berau da aziendarik garrantzitsuena Euskal Herrian. Buru-kopururik han-

diena batez ere Bizkaian (81.600) eta Gipuzkoan (59.900) ematen da, bi probintzia hauek esnetarako behi-aziendan bereziki espezializatuak bait daude.

Europako Elkarte Ekonomikoan sartzeari dagokionez, esan behar da esnekia sektore bereziki gatazkatsua dela. Eta halaxe da, batetik, EEEaren baitan esne eta esnekietan soberakin estrukturalak gertatzen direlako eta, bestetik, Euskal Herriko esne-azienda desabantaila estrukturalan aurkitzen delako. Europako herriekin konparatuta, zeinek in produktuen zirkulazio librea egongo den, gure esplotazioetan ustiatzen den buru-kopurua txikia da eta esnetan behi bakoitzeko lortzen diren errendimenduak, halaber, apalak dira.

Ardi-azienda: berau da ugariena, 731.800 burerekin. Horieta-
tik % 70 baino gehiago Nafarroari dagozkionak dira (523.100 buru). Euskal Komunitate Autonomoan ere ugari dira ardiak: Gipuzkoan 97.700, Araban 82.700 eta gutxiago Bizkaian.

Ahuntz-azienda garrantzi txikikoa da, Euskal Herri osoan 28.000 buru bakarrik bait daude.

Txerri-azienda: 451.400 buru dira zentsaturik daudenak eta horien % 80 (360.600) Nafarroan aurkitzen dira. Euskal Komunitatean, 47.500 txerri daude Araban; horien kopurua txikiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan.

Azienda honek prezioetan gorabehera handiak ezagutzen ditu eta, horregatik, urte batetik bestera dexente aldatzen dira txerri-zentsuak. Azken bi azienda-zentsu orokorrak (1978ko Martxokoa eta 1982ko Martxokoa) konparatzen badira, ageri da azken lau urteotan txerrien kopurua Nafarroan 273.500etik jadanik aipaturiko 360.000eko zifrara pasa dela. Honek % 32ko gehikuntza inportantea suposatzen du.

Zaldi-azienda: Honek garrantzi txikia du. Euskal Herrian, 1982an, 19.500 zaldi daudela kalkulatu da, 8.900 asto eta 2.800 mando.

Azken urteotan, azienda-zentsuek erakusten dutenez, azien-
den kopurua gehitu egin da: behiak, 1978-1982 epealdian, 217.200 burutatik 241.500etara pasa dira; ardiak, 711.500 burutatik 731.800etara (gehikuntza hau Gipuzkoan eman da); ahuntzak eta txerriak ere gehitu egin dira. Baina zamarien eta tirakako animalien (asto eta mandoen) kopurua gutxitu egin da, oso nabarmen gutxitu ere; zaldiek, alderantziz, eboluzio egonkorragoa agertzen dute; beharbada haragitarako probetxatzen direlako izango da horrela.

Haragi-ekoizpena-ri dagokionez, hauxe hartu behar da gogon: haragitarako azienda beste eskualdeetan erosten dela gero hemen, Euskal Herrian hiltzeko. Horregatik, hemen dagoen haragi-ekoizpenaren zifrak oso garaiak dira bertako azienda-zentsuarekin konparatzen badira. Nafarroan hiltzen den aziendaren % 90 baino gehiago bertako lurralde foraletik datorrena da; Euskal Komunitate Autonomoan, aldiz, 1980ko portzentaian arabera, hildako behien % 48, ardien % 83, txerrien % 85 eta zaldien beste hainbeste, *kanpotik* datozenak dira. Horregatik, lehen esana errepikatuz, ez da ahaztu behar ondoren biltzen diren zifrak Euskal Herrian hildako animaliei buruzkoak direla eta horiek, neurri handi batean bederen, bertatik kanpo hazitakoak direla.

Azken hogeitun urteotan (1961-1981), *hiltzeko* animalietan eman den gehikuntzarik ohargarriena txerri-aziendetan eta hegaztietan eman da. Nekazaritzako Ministraritzako zifren arabera, 1961ean 97.500 txerri-buru hil ziren, 1970ean 373.000 eta 1981ean 513.400; hau da, 20 urteren buruan 5 aldiz biderkatu da txerrien hiltzea. Hegaztietan, orobat, 1961ean 5,5 milioi hiltzetik 1981ean, 32,5 milioi hiltzera iritsi zen.

Aro horretan bertan hildako ardi eta behien kopuru-gehikuntza zerbait apalagoa izan da. Ardiei dagokienez, kopurua 782.800 buru hiltzetik 1.147.200 hiltzera pasa zen. Azkenik, 1961ean 176.200 behi hil ziren eta handik hogeitun urte geroago 197.000 Euskal Herrian.

Lehen esan dugun bezala; nekazaritzako azken ekoizpenaren balioa orotara hartuta, lautik bat baino gehiago suposatzen dute haragiak eta aziendek Euskal Komunitate Autonomoan nahiz Nafarroan. EKAko hiru eskualdeak batera hartuta, esnea da bigarren produktua garrantziaren aldetik; ekoizpenaren balioa orotara hartuta, honek ere ia lautik bateko ekarpena egiten du, nahiz eta berorren garrantzi erlatiboa apalagoa izan Nafarroan.

Haragiak bezala, *esneak* ere gehikuntza garrantzitsua ezagutu du azken hogeitun urteotan: 1961ean behi-esnetan 272,3 milioi litro atera ziren, 1970ean 323,3 milioi eta 1981ean 386,5 milioi; hazkuntza hau gehienbat *behi bakoitzeko errendimendua* gehitu delako gertatu da, elikadura, arrazen hautapena, sanitate-baldintzak, etab. hobetu direlako, alegia.

Ganadularitzari dagokionez, aipatzekoa da *bertako arrazek* duten garrantzia; horien artean nabarmenenak behietan arraza *piriniarra* eta ardietan arraza *latxa* dira.

Arraza piriniarreko behi-azienden kopurua jaitsi egin dela jarrariko zifra hauek adierazten dute: gaur egun 13.000 buru inguru bakarrik daude (eta horietatik 11.000 Nafarroan), baina mendearen hasieran beraiek osatzen zuten Euskal Herriko behi-zentsuaren erdia (guztira arraza piriniarreko 140.000 inguru behi zeuden). Arraza hau nafarra da, haragitarako hazten dena, baina ez ekoizpen intentsiboan. *Arraza latxako* ardiak, esne-ekoizpenean espezializatua dagoenak, kantitatearen aldetik garrantzi handiagoa du: 300.000 buru baino gehiago daude (Euskal Herrian, guztira, 731.800 ardi daudela kalkulatu da) eta horietatik erdiak baino zerbait gehiago Nafarroari dagozkionak dira.

Aipa ditzakegun bertako beste arraza batzu, hauek dira: Nafarroako *ardi «rasa»*, *euskal ardia* edo *Karrantzakoa*, *Burgeteko zaldia*, *Nafarroako pottoka* eta *Gasteizko txerri txatoa*.

Euskal laborantzaren beste alderdi interesgarrietako bat, batez ere larreak abelazkuntza estentsiborako erabiltzeari dagokionez, lurak elkarren artean probetxatzea edo lur komunalen kasua litzateke. Lur komunal hauek —herri-lurak ere esaten zaie—, herri bakoitzerako (kontzeju, udalerrri, haran bakoitzerako) eskubidea duten unitate desberdinetako herritarrek gozatzen dute, inongo bereizketarik gabe, eta bereziki garrantzizkoak dira Nafarroan, non Lurralde Foralaren heren batetik erdira bitarteko azalera (ez da ezagutzen eta zifra zehatzik) oraindik ere lur komunalek okupatzen dutela pentsatzen bait da.

Amankomunean erabiltzen diren herri-lurren artean, «*facería*» deituak aurkitzen dira. Hauek zenbait herriren artean osaturiko mankomunitateak ditugu, aipagarrienak Nafarroako Erriberan, «*Bárdenas Reales*» direlakoak izanik; hauek 40.500 hektarea dituzte eta bertan egiten dute negua Euskal Herrian geratzen diren azken Azienda-talde ibiltariak (Erronkari eta Zaraitzu Haranetako azienda-taldeek, alegia, zeintzuen kopurua jaitsiz bait doa). Herri-lurretan egurrez, uraz edo larrez bakarrik goza daiteke eta lorturiko produktuak ezin dira erabili salmentarako eta merkataritzarako. Badira beste herri-lur aipagarri batzu ere, hala nola: Zaraitzu eta Aezkoako Haranetakoak beren 15.000 hektarea baino gehiagorekin, Lizarrako Lurrekoak 12.000 hektarea ingururekin, eta, Nafarroatik kanpora, Araba eta Gipuzkoako Partzoneria Orokorra dago, Aizkorriko Mendikatean larre eta basotan ia 11.000 hektarea dituen.

Ondoren, laboreekin egin zenaren antzera, grafiko bidez argituko da Euskal Herrian dauden azienda nagusien banaketa espaziala, eskualde bakoitzeko buruen kopurua emanaz.

Behi-azienda-ri dagokion grafikoan, jadanik iruzkindua dugun kostaldeko bi probintzietako azienda-mota honen espezializazioa erakusten da.

Ardi-azienda-ri dagokionak erakusten digu, nola animalia horiek era homogenoago batean banatuak dauden Euskal Herri osoan zehar, Bizkaian izan ezik, hemen oso ardi gutxi bait dago. Banaketa berdintsu horien ondorioz eta Nafarroaren azalera handia kontutan izanik, ardi-zentsuaren % 70 probintzia honi dagokio, lehenago ere esan dugun bezala.

Azkenik, *txerri-azienda-ri* dagokion grafikoan, berebiziko garrantzia hartzen du alor honetan Nafarroak, Euskal Herriko txerrien % 80 baino gehiago bertan aurkitzen dira eta. Arabari dagokionez, berriz, argi dago probintzia horretako txerri-jendearen kopuru handi bat Errioxako eskualdean kokatzen dela.

7. grafikoa: Behi-azienden eskualdekako banaketa 1982an.



Iturria: Azienda-zentsuari buruzko udal-datual, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioen Probintzi Ordezkarizetatik lortuak.

8. grafikoa: Ardi-azienden eskualdekako banaketa 1982an.



Iturria: Azienda-zentsuari buruzko udal-datuak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministeraritzen Probintzi Ordezkarizetatik lortuak.

9. grafikoa: Txerri-azienden eskualdekako banaketa 1982an.



Iturria: Azienda-zentsuari buruzko udal-datuak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministeraritzen Probintzi Ordezkarizetatik lortuak.

Oihan-ekoizpena

Industriaren konkurrentziak behartuta, autokontsumora zuzendutako laborea utzi beharra gertatu da. Eta nekazal sektorean eman den norabide-aldaketa honek, hain zuzen ere, oihan-sektorearen garrantzian ere bere ukitua utzi du. Nekazaritzako Ministraritzaren kalkuluen arabera, sektorearen ekoizpen-balioaren barruan moztutako zura eta egurraren balioa bakarrik hartzen bada ere kontutan eta ez zutik dagoen zuraren hazkundearena, Araba eta Nafarroan oihan-ekoizpenak, hurrenez-hurren, nekazal ekoizpenaren % 3,4 eta % 3,9 suposatzen du eta Bizkaia eta Gipuzkoan, berriz, % 8 baino gehiago.

Kostaldeko bi lurraldeetan oihan-azalera oso garrantzitsua da, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldea orotara hartuta, hirutik bi parte oihan bait da; Araban, aldiz, hirutik bat da eta Nafarroan zertxobait gutxiago. Baina oihan-azalera guztia ez da azalera zuhaitzeztatua: Euskal Herriko lau probintzietako oihan-azalera betetzen duten 1.040.400 hektareatik % 36,9 sasidiz eta larrez estalia dago eta gainerako % 63,1 bakarrik (656.900 ha) da zuhaitzeztatua.

Azpitarratu beharrekoa da beste hau ere: Gipuzkoa eta Bizkaiko mendiak, ia gehienak (% 85 inguru), jabetza *pribatukoak* diren bitartean, mendien jabetza hori Araba eta Nafarroan, hurrenez-hurren, % 23,5 eta % 28 besterik ez dela. Izan ere, azken bi eskualde hauetan, *Erabilgarritasun Publikoko* mendiek (eskuarki Udalenak direnek) garrantzi handia dute.

Espainia osoan 1965etik 1974era bitartean egindako Oihan-Intentarioaren arabera, espezie koniferoak eta hostozabalak jarraiko taulan datorren bezala banatzen ziren Euskal Herrian:

Azalera zuhaitzeztatua (milaka hektareatan)

Lurraldea	Koniferoak	Hostozabalak	Mistoa	Espezieak batera
Araba	32,0	70,2		5,9 108,0
Gipuzkoa	73,6	33,7		11,5 118,8
Bizkaia	101,4	16,8		8,1 126,2
EKA	206,9	120,7		120,7 353,1
Nafarroa	102,7	201,1		— 303,8
Euskal Herria	309,6	321,8	25,8	656,9

Taulan datorrenez, *hostozabalak* dira nagusi Araba eta Nafarroako mendietan eta, hauen artean, *pagoa*, ugari dagoena Nafarroan, nabarmentzen da. Lurralde honetako oihan-azaleraren % 30 zuhaitz honek hartzen du. Bizkaia eta Gipuzkoan, berriz, intsinis pinua nagusitzen da, azkar hazten den espezie *koniferoa*, eta honek betetzen du eskualde honetako azalera zuhaitzetzatu garrantzitsutik zatirik handiena.

Nafarroari dagokionez, intsinis pinuak duen garrantzia eskasa dela esan behar da; eta koniferoen kopurua 102.700 hektareakoa bada, horren barruan hedadurarik handiena duen zuhaitza *pinu gorria* da; hau, gehienbat, berezko oihanketatik (ez landatutakotik) datorrena da; bestalde, landadutako koniferoen artean ere (guztizko honetatik 41.600 ha, gainerakoa berezko oihanketari dagokiona bait da), *Korsikako pinua* nagusitzen da eta ez intsinisa.

Oihanen jabetza-erregimenari dagokionez, kostaldeko bi eskualdeen eta beste bi barrukoen artean dagoen diferentzia lehen ere aipatu dugu. Diferentzia honek esplikatzen du, neurri batean bederen, Araba eta Nafarroan zergatik nagusitzen diren hostozabalak, horrelakoak ugariago bait dira jabetza publikoko oihanetan; koniferoak eta, batez ere, intsinis pinua, ordea, jabetza pribatuetan nagusitzen dira. Baina beste neurri on batean, kostaldeko lurraldeen batezbesteko *altitude* txikiagoak ere zerikusirik badu arbola-motarekin (Bizkaia eta Gipuzkoan 600 metroko altitudea lurren % 12k bakarrik duen bitartean, Araba eta Nafarroan ia % 45ek gainditzen bait du altitude hori).

Altitude-desberdintasun hau dela eta, kostaldeko probintziak koniferoentzat, batez ere intsinis pinuarentzat, faboragarriagoak gertatzen dira. Honela, *pagoa* 800 metrotik gorako altitudea duten oihanetan nagusitzen da; beste hostozabal batzu (haritza, artea eta ametza dira pagoaren ondoren nagusienak) ugariagoak dira 400 eta 800 metro bitarteko zonatan; intsinis pinua ematen da gehien 400 metroz beheko altitudeetan eta praktikan ez dago 800 metrotik gorakoetan. Pinu gorria, arestian esan bezala Nafarroan garrantzitsua den koniferoa, kostaldeko altitudeak baino goragokoetan (400 eta 1.200 metro bitarteko altitudeetan) ateratzen da.

Oso ezaguna da historiaren aldetik Carlos Adán de Yarza-k nola sartu zuen Euskal Herrian intsinis pinua 1940an, Lekeition, hain zuzen ere; baina intsinis pinuaren landaketa masiboa, Gipuzkoa eta Bizkaian indartsuki sartua, 1920-1936 epealdian eta bereziki 1950eko eta 1960ko hamarkadetan gertatu zen, ekonomiarren aldetik interes handikoa bait zen. Interes ekonomiko honen zerga-

tikoa ez zetzan zuretik lorturiko errentagarritasunean bakarrik. Bazen beste arrazoirik ere. Hain zuzen ere, hirigintzaren aurrerapenaren aurrean lurra izugarri errebaloratuz bait zihoazen, pinu-jabetzari eustea dirua aurreratzeke eta inbertitzeko modu bat zen. Bestalde, horretarako behar den laneskua ere ez da hainbestekoa. Birlandaketa hauek direla bide, 1931n 30.300 hektarea bazeuden koniferoez estalirik Euskal Herriko lau probintzietan, orain, aurreko taulan agertzen den bezala, 309.600 ha dira estalita daude; horietatik erdia baino gehiago (168.000 ha) intsinis pinuz beteta daude.

Zuraren erabilerari dagokionez, 1982ko egur-ebaketak 1940. urte-inguruko zifrekin konparatzen badira, sekulako gehikuntza eman dela ageri da. Zifra hauek batere fidagarriak ez badira ere, norabide gisa balio dezakete: Gipuzkoa eta Bizkaian, 1982an, gutxi gorabehera 400 mila metro kubiko bota ziren eskualde bakoitzean, Araban 70.000 metro kubiko inguru eta Nafarroan 340.000 inguru.

Nafarroari dagokionez, nahiz eta koniferoen landaketa garrantzitsua izan (1950eko 28.000 hektareatik, orain, taulan datorrenez, koniferoez landatutako 102.700 hektareara iritsi da), pagoz estalitako azalerari eutsi egin zaio, eta azken urte hauetan bakarrik (1980 eta 1981) gaintitu du pinu-egurraren ebaketak pago-egurrarena. Esan beharrekoa da azken hogeitau urteotan, Nafarroan, arreta handia jarri dela pago-oihanetan, zaintzen ahaleginduz eta bero-rien ebaketa razionalizatuz.

Industrializazioaren ondorioak nekazaritzan

Euskal Herrian industrializazio-prozesuak nekazaritzaren baitan utzi dituen ondorioak nolakoak diren azalduko dugu atal honetan eta hurrengoan; lehenengoan batez ere alderdi koalitatiboa ikusiko da eta bigarreanean, berriz, koantitatiboa. Honetaz sektore honetako ekoizpenari eta enpleguari buruz Bilboko Bankuak argitaratzen dituen serie estatistikoak dakartzagu.

Euskal Herrian industrializazioak nekazaritzaren baitan utzi dituen ondorio nagusiak jarraiko lau puntuetara bil daitezke.

Lurren hiritarkuntza

Beste alternatiba batzuren aldean nekazal sektorean lortutako errentagarritasuna mugatua bait da, zera gertatu da: batetik, ares-tian esan bezala, lehen nekazal lur izandakoak industri eta hiri-helburu berrietarako erabili direla eta, ondorioz, landutako azalera gutxitu egin dela; bestetik, bihurtura gogor bat sortu dela lurraren prezioaren eta berorren nekazal erabilera-ahaltasunen artean. Honela, adibidez, oso zail egiten da dauden nekazal ustiapenen zabal-kunderako lurra erosi ahal izatea.

Laneskuaren zurgapena

Jadanik, aipaturiko Bilboko Bankuaren estatistiketan datozen (atal honetako estatistikako eranskinetan jasotzen direnak) 1955etik 1981erako urteetako zifretan agertzen denez, *euskal nekazaritzan 100.000 enplegu baino gehiago galdu dira*, 1955ean ia 170.000 nekazal langile bait ziren eta 1981ean 65.513 bakarrik. Berrez, zifra hauek aditzera ematen dutenez, badirudi nekazal laneku hori beste sektore batzuk zurgatu dutela; hala ere, ez da ahaztu behar nekazal populazio aktiboaren batezbesteko adina aski garaia dela eta langile horietako batzu beste sektore batean enplegurik bilatu gabe erretiratuko zirela. Nekazaritzan zeukaten lanpostua, beraz, desagertu egin da. Gainera, 1975ean hasitako krisialdian zehar eta azken aro honetan, sektore hau utzi eta lan bila dabilzan langileek ez dute inola ere lortu beste sektoreetan sartzea.

Horregatik, sarritan nekazaritzako laneskua industriari zurgatu duela esaten bada ere, beharbada zuzenago izango litzateke nekazal sektorean lanpostuak *desagertu* eta laneskua *bota* egin direla esatea; lanesku hori, hain zuzen ere, batzutan bizitza aktibotik erretiratu zen, edota bestetan gainerako sektoreek zurgatu zuten, langile hauek ekonomi indarrean aurkitzen ziren garaian; baina gero, depresioa etorri zenetik, langabeziara pasa dira.

Autokontsumotik merkatura

Nekazal ustiapenen antolakuntza aldatu duten faktoreak hauek izan dira: komunikabideen hobakuntza eta honek ekarri duen baserrien komunikaziorik eza desagertzea, gainerako sektoreekiko konkurrentzia eta urrutiko lurraldeetatik datozen ekoizpenen sa-

rrera. Faktore hauek, ondorio gisa, giza elikadurarako zerealen ekoizpena (gariarena) gutxitu beharra ekarri dute eta honen lekuan, Nafarroa eta Arabako zati handi batean bederen, animali elikadurarako zerealak (garagarra) landu beharra. Azienden (eta zuhain-ekoizpenen) zein oihan-landaketen garrantzia, orobat, handitu egin da; produktu hauek eskatzen duten lanekuaren, indartsuki garestituz doan laneku horren bolumena txikiagoa da.

Ageri denez, beraz, areagotuz doan *lan-zatiketak* autokontsumotik polikultibora aldatzea eskatzen du, abantailak ekar ditzaketen eta merkatuan beren irtenbidea duten produktuetan espezializatuz doazen ustiapenetan ihardutea, alegia.

Atlantikoko bi eskualdeetan (Gipuzkoa eta Bizkaian) dauden behi-azienden espezializazioari dagokionez, Miren Etxezarretak, bere *Euskal baserriaren oraina eta geroa* lanean, behi-aziendetan emandako norabide-aldaketaren puntu kritikoa 1950. urte-inguruan jartzen du. Egile horrek berak garrantzi handia ematen dio prozesu honetan esnea hirietan *zuzenean* saltzeko debeku-erregimenari, zeren ganaduzaleak beren esnea Esne-Zentraletara saldu beharrean aurkitzen bait dira. Zentral hauek ekoizpen guztia erostea bermatzen die, komertzializazio-arazoa konponduz eta ekoizpenaren gehikuntza posibleak bere gain hartuz.

Iraultza teknologikoa

Aplikatuak diren ekoizpen-teknika berriak, mekanizazioaren hedadura, ongarrien erabilera handiagoa eta hobea, lehen pentsaezinak ziren errendimenduak dakartzaten hazi hautatu ugarien sarrrera, guzti hauek goratu dute hektarea bakoitzeko lorturiko produktua.

Jarraiko datuok argitzen dute nolakoa izan den gorapen hau errendimenduetan: Nafarroan, zerealek 1955ean 186.000 hektarea hartzen zituzten eta 276.400 Tm ematen; 1980an (uzta-record-a eman zen urtean) eta hedadura bereko azaleran, 710.000 tonelada lortu ziren. Ikusten dugunez, bada, *hektareako errendimendua* 2,5ez biderkatu da 25 urteren buruan.

Hobakuntza teknologikoaren prozesuak ganadularitza ere alderdi desberdinetatik ukitu du. Hor sartzen dira: arrazak, sanitatza, instalazioak, elikadura. Esetarako behi-aziendaren kasuan errendimendu-gehikuntza hori egon dela erakusten dute *behi bakoitzeko sortutako litro esne hauek*: baldin 1929an behi batek ba-

tezbeste 1.800 litro ematen bazituen, 1966an 2.500 litro lortu ziren eta 1981ean, Euskal Komunitate Autonomoa orotara hartuta, zifra hori batezbeste 3.560 litrotaraino iritsi zen. *Lurgintza*-ren zuzendaritzapean dauden 109 nekazal ustiapenetan, batezbeste, 4.350 litro lortu da behi bakoitzeko. Zifra hori, hala ere, EEEko esne-errendimendurik handieneko herrialdeetan lortutakoarekin konparatzen bada, urruti geratzen da. Esne-errendimendurik handiena lortzen duten herrialdeak Holanda, Danimarka eta Erresuma Batua dira.

Nekazaritzaren *mekanizazioa*-ri dagokionez, dauden Nekazal Zentsuek erakusten dutenez, 1962an Euskal Komunitate Autonomoan 1.000 traktore (eta Nafarroan 3.533) zeuden, 1972an 6.199 (eta Nafarroan 7.907) eta 1982an 12.907. Hau da: traktoreen kopurua Euskal Komunitate Autonomoan seitan biderkatu zen 1960ko hamarkadan eta gerora, 1970eko hamarkadan, berriz ere bikoiztu egin zen. Ohar gisa, esan dezagun Zentsu horiek hamar urtetik hamar urtera egin ohi direla. Lehenengoa 1962an egin zen; 1982koari dagokionez, une honetan hasi dira Euskal Komunitate Autonomora mugaturiko datu eta lehen emaitza batzu argitaratzen.

Traktoreen kopurua gehitzeaz gainera, Gipuzkoa eta Bizkaian batez ere, hauetan dauden nekazal ustiapenak txikiak direlako eta traktoreak erabiltzeko lur ordeka askorik ez dagoelako, asko ugari dira motokultoreak eta motosegak. Makineri mota hau txikiagoa da eta, 1972-1982 epealdian, Euskal Komunitate Autonomoan 6.331 unitatetik 16.274era pasa dira.

Nolanahi ere, mekanizazio-zifra honekin segituz, zera esan behar da: Nafarroan nahiz Euskal Komunitate Autonomoan, dagoen nekazal makineri parkea bere ahaltsunen oso azpitik erabiltzen dela. Hau da: makina bakoitzaren lanorduak, egin ditzakeenaren aldean oso txikiak dira. Beharbada, neurri on batean, nekazal ustiapenen neurriak behar bestekoak ez direlako gertatuko da. Baina baliteke, baita ere, lanekuaren eskasia dela eta, makineria erostera behartuta aurkitzea. Eta orduan, noski, aterako zaion zukua nolakoa izango den kontutan hartu gabe erosten da. Mekanizazioaren beste alderdi garrantzitsu bat ere aipatu beharra dago: nekazal lanek duten gogortasuna arintzen dutela, alegia.

Ekoizpenaren eta enpleguaren eboluzioa

Estatistika-eranskinean biltzen dira Euskal Herriko nekazal sektorearen sailean ekoizpenari eta enpleguari dagozkien serie estatistikoak, Bilboko Bankuak argitaratuak. Segidan horiek iruzkinduko ditugu.

Ekoizpena

Lurralde bakoitzeko nekazal sektoreak Barne-Produktu Gordinari (BPGari) egin dion ekarpena desberdina da: Praktikan, Euskal Herriko nekazal sektorean, *balio erantsiaren* % 50 Nafarroan lortzen da; Euskal Komunitate Autonomoari dagokion beste % 50 homogenotasunez banatzen da hiru eskualdeetan eta, zentzu honetan, bakoitzak egiten duen ekarpena antzekoa da, nahiz eta 1950.eko hamarkada-bukaeran Bizkaiko nekazal ekoizpenaren balio erantsia Arabak eta Gipuzkoak, biok batera, zeukatenaren antzekoa izan. Euskal Herriko nekazal sektoreak BPGari egindako ekarpenaren balioa, 1981ean, 42.627 milioi pezetakoa zela kalkulatu da. Honek, Euskal Herriko lau eskualdeetako BPG guztizkoari buruz, % 3,3 suposatzen du. Zifra horretatik, 21.046 milioi Nafarroari dagozkionak dira, 7.796 Arabari, 7.697 Gipuzkoari eta 6.088 Bizkaieri.

Lehen ere esan dugunez, nekazal sektoreaz dihardugunean, hiru azpisektore hauek (nekazal, azienda- eta oihan-sektoreak, alegia) bateratuta ematen ditugu. Hiru azpisektore hauetako bakoitzak nekazaritzako kopuru guztizkoan duen pisuari dagokionez, Euskal Herriko lau eskualdeek bi talde osatzen dituzte:

Gipuzkoa eta Bizkaia, funtsean, *ganadularitzara* zuzenduak daude eta honek, hurrenez-hurren, nekazal ekoizpenaren % 60 eta % 70 baino gehiago suposatzen du. Bi eskualde hauetan oihan-azpisektoreak ere pisu garrantzitsua du (% 8 baino gehiago).

Araba eta Nafarroa nekazal eskualdeak dira, bietan nekazaritzak nekazal ekoizpenaren % 60 inguru suposatzen bait du. Eta bietan, halaber, oihan-azpisektoreak ekoizpenaren % 4 baino gutxiago suposatzen du.

Balio erantsiak nekazal sektorean ezagutu duen eboluzioari dagokionez, Bilboko Bankuak 1955-1981 epealdirako ematen dituen estatistiken arabera, hiru aro bereiz ditzakegu:

1. *aroa*: 1955etik 1962ra doana da. Ekoizpena haziz doa sektorean eta hazkundearen erritmoa ekonomian oro har ematen denaren antzekoa da. Nekazal sektoreak Euskal Herriko BPGari egiten dion ekarpena % 10 eta % 11 bitartekoa da.

2. *aroa*: 1962tik 1975era doana da. Ekonomia, oro har, indartsuki haziz doaneko aroa da. Pezeta konstanteetan adierazitako BPGa bikoiztu egiten da. Balio erantsia nekazal sektorean, aldiz, ez da hazten; alderantziz, 1962an zeukan mailari eusten dio, baina ez gorabeherak ezagutu gabe. Honela, nekazal sektoreak BPG guztizkoan izandako partaidetza, 1962an % 11koa zena, 1975ean % 5ekoa baino txikiagoa izatera pasatzen da.

3. *aroa*: 1975etik 1981era doana da. Krisi-aroa dugu. Euskal Herriaren BPGa gutxitu egiten da, baina, nekazal sektorean sortutako balio erantsia ere gutxitzen denez gero, sektore honek ekonomian oro har duen partaidetza murriztuz doa, zeina 1981ean % 3,3koa bakarrik bait da.

Euskal Herriko nekazal sektorea gaur egun nolako egoeran aurkitzen den argitzeko, hona hemen zifra hauek: Nekazal sektoreak 1981ean sortutako balio erantsia, pezeta konstanteetan adierazita, 42.627 milioi pezetakoa da, 1955ean lortutakoaren aldean *txikiagoa*, 50.086 milioikoa bait zen. Aro honetan, ekonomiak, oro har, lortutako balio erantsia 2,6tan biderkatu du.

Enplegua

Enplegu-eboluzioari buruzko estatistika-eranskinaren taulan agertzen den bezala, Euskal Herriko nekazal sektorean, Bilboko Bankuko datuen arabera, 1981ean 65.513 lagun zebiltzan lanean. Horietatik 26.880 lagun Nafarroari dagozkio, guztizko kopurua-ren % 40 baino zerbait gehiago. Hemen agertzen da, Euskal Herriko nekazaritza orotara hartuta, Nafarroak duen garrantzia nola den handiagoa ekoizpenean enpleguan baino.

Euskal Komunitate Autonomoan, 11.178 lagun dabilta lanean Arabako nekazal sektorean, 12.625 Gipuzkoakoan eta 14.830 Bizkaikoan.

Enpleguaren eboluzioak erakusten duenez, *lanpostuak galdu* egin dira, eta izugarri galdu ere. Sektore honetan lanean ziharduten ia 170.000 lagunetatik, 26 urteren buruan, 100.000 enplegu baino gehiago galdu dira, hots, 1955ean zeuden lanpostuen % 61,4. Beste

ataletan esan den bezala, hemen ere zera azpimarratu behar da: nekazal sektorean enpleguak galduz joateko joera horrek aurrera segitzen duela eta, gainerako sektoreetako lanpostu-alternatibarik ezak ez duela batera gelditu.

Ekonomia orotara hartuta, ikusi dugu nola murriztuz joan den nekazal sektorearen ekoizpenak suposatzen duen portzentaia. Era berean, oro har, nekazal enpleguaren pisua murriztu egin da: enplegu-kopurua orotara hartuta, 1955ean % 23 zegoen nekazal sektoreari eta 1981ean, berriz, % 8 baino zertxobait gutxiago (% 7,6 zehazki). Gauza jakina da sektore honek garrantzi handiagoa duela enpleguari dagokionez ekoizpenari dagokionez baino: Nekazal sektorean, langile guztiak batera hartuta, hauetako % 7,6k lortzen duten ekoizpenak kopuru totalaren % 3,3 bakarrik suposatzen du.

Eskualdeen arabera, Nafarroak, oraindik ere besteak baino nekazariago izanez segitzen duen probintzia honek, populazioaren ia % 50 nekazaritzan enplegatzen zuen 1945ean; baina, 26 urteren buruan, 1981ean alegia, % 16ri bakarrik ematen zion hori. Euskal Komunitate Autonomoko eskualdeetan ere izugarri jaitsi da nekazal populazioaren garrantzia: 1981ean % 11,4koa da Araban eta % 5,6 eta % 4koa bakarrik, hurrenez-hurren, Gipuzkoa eta Bizkaian.

Produktibitatea

Eranskinean datozen bi taula horietatik abiatuz, nekazal sektorean ematen den *produktibitatea* eta ekonomian, oro har, ematen dena konpara daitezke, produktibitatea enplegatu bakoitzeko lortutako ekoizpen-balioaren arabera neurtuz: baldin 1981ean nekazal sektorean enplegatutako pertsona bakoitzak, batezbeste, 650.700 pezetako ekoizpena lortzen bazuen «per capita» balio erantsian, sektore guztiak batera hartuta, ekoizpen honen batezbestekoa 1.504.000 pezetakoa zen; produktibitate-diferentzia hain handi honek esplikatzen du, hein batean, nekazaritzatik at botatako enplegua.

Baldin 1981ean lortutako produktibitatea eta 1955ekoa konparatzen badira, hobakuntza benetan handia izan da: lehen aipatu diren lagun bakoitzeko 650.000 pezeta horiek, pezeta konstanteetan, langile bakoitzeko errendimendua % 120ko batean gehitu dutela suposatzen dute. Lagun bakoitzeko produktibitate-gehikuntza hau, ekonomian oro har hartuta ematen denaren antzekoa da.

Euskal nekazaritzaren oinarrizko zenbait ikuspegi

Ondoren euskal nekazaritzaren egoera nolakoa den azaltzen saiatuko gara. Nekazaritza jadanik aipaturiko hiru azpisektoreen multzo gisa hartzen da eta, hemen, nekazal sektorearen eboluzio iragana nahiz gerokoa ezagutzeko oinarrizkoak diren hiru alderdi aztertuko ditugu luze samar. Hiru puntuotatik, lehena nekazal ustiapenen neurriari dagokiona da, bigarrena nekazal populazio aktiboaren zahartzeari eta hirugarrena, jadanik aipatua, sektorearen errentagarritasun apalari dagokiona.

Nekazal ustiapenen neurria

Euskal Herriko nekazaritzaren oinarrizko ezaugarrietako bat hauxe da: nekazal ustiapenen kopurua handia dela eta horien neurria, batezbeste, txikia dela, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. Azken bi lurralde hauei dagokienez, badirudi zaila izango dela gaurko baserri minifundista ez desagertzea.

Nekazal ustiapenen batezbesteko tamainaren arabera, bereizi beharrean gaude: batetik, Gipuzkoa eta Bizkaia, ustiapen bakoitzeko eta hurrenez-hurren, 12,6 eta 8,1 hektarearekin (1982an) eta, bestetik, Nafarroa 22,9 hektarearekin (zifra hau 1972koa da, 1982ko Nekazal Zentsuko datuak, Nafarroari dagozkionak, oraindik ez bait daude erabiltzeko moduan) eta, batez ere, Araba 35,2 hektarearekin; azken eskualde hau da batezbesteko neurririk handiena ematen duena.

Ustiapenen kopurua jaitsiz doa eta, ondorenez, batezbesteko neurria goratuz. Argitaratutako Nekazal Zentsuetan jasotako datuetan datorrenez, Euskal Komunitate Autonomoko hiru eskualdeetan 65.876 (Nafarroan 59.372) ustiapen zeuden 1962an, 46.347 (Nafarroan 43.773) 1972an eta 40.922, berriz, 1982an. *Batezbesteko neurria*, Euskal Komunitate Autonomoan, 10 hektareakoa zen 1962an, 13,9koa 1972an eta 14,7koa 1982an. Neurri txiki honi, gainera, *lurzatiketa* garaia erantsi behar zaio: Euskal Komunitate Autonomoko ustiapen bakoitzak, batezbeste, 6,5 lurzati zeuzkan 1982an.

Beste atal batean esan dugu laneskuko zenbat izan diren kanpora botatakoak euskal nekazal sektorean, mendearen azkeneko laugarren partean. Nekazal ustiapenen tamaina desberdinei dago-

kienez, esan behar da 20 hektarea baino gutxiago dituzten nekazal ustiapienak direla desagertuz doazenak; 20 eta 30 hektarea bitartekoak mantendu egiten dira eta 30 hektarea baino gehiago dutenen kopurua gehitu egiten da. Honela, 1962-1972 epealdian, Euskal Herriko lau eskualdeetatik *20 hektarea baino gutxiago* zeuzkaten 24.752 nekazal ustiapien desagertu dira eta honek, 1972an, maila honetan zeudenetatik % 32 suposatzen du; 20 eta 30 hektarea bitarteko ustiapienen kopurua oso antzekoa da, bi urte horietan, eta 30 hektarea baino gehiagoko 876 ustiapien berri eratu dira eta zifra honek 1972koari dagozkionetatik % 13 suposatzen du.

Lursailen neurria handitu eta berorien ustiapiena razionalizatzeko asmoz gauzatu da *Kontzentrazio Partzelarioa*, lehendabizi Araban eta gero Nafarroan hasia. Kontzentrazio Partzelarioa 1954ean hasi zen Araban eta ordutik 1979rako epealdian, labore-lurren ia % 75 ukitu ditu; Nafarroan, 1962an hasi zen eta 1982 arte, lurren % 30 egin da. Kontzentrazio hauetan lursailak batzen dira, lurjabe bakar batek ustia ditzan; eta, kasu guztietan ez bada ere, kaminoak eta saneamenduak ere egiten dira.

Gipuzkoa eta Bizkaian ez da horrelako Kontzentrazio Partzelariorik egin, Karrantzako Haranean izan ezik; egin ez bada, ez da izan bakarrik eskualde hauek azienda-eskualdeak direlako; gainera, nekazaritzarako erabil zitezkeen lur onenen zati on bat industriek hartuta daukatelako eta, lurraren balioa desberdina bait da segun hiri-erabilerako ala landalur-erabilerako izan, horrelakoetan kontzentrazioa egitea ezinezkoa delako.

Nekazal enpresarien zahartzea eta ustiapienen jarraitasuna

Gaur egun baserrian nekazaritzan dihardutenen *adin zaharra* da nekazal egoeraren beste alderdi nabari bat. Nekazal sektorearen errentan sortutako diferentzia eta, halaber, bizimoduzko diferentziak direla eta, baserriak hustuz doaz. Batez ere gazteak dira doazenak eta honek arazo garrantzitsu bat dakar ustiapienen biharko jarraitasunari begira, belaunaldi adinduak eta lurrari atxekienak desagertzen ari bait dira. Nekazal Zentsuko datuen arabera, 1972an, Euskal Herriko enpresari guztiak batera hartuta, % 4,1ek bakarrik zituen 35 urte baino gutxiago; baina 55 urte edo gehiago zituzten enpresariak % 45,2 osatzen zuten. Egoera batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan zen grabea; Nafarroako nekazal enpresariak zertxobait gazteagoak ziren; hauetatik % 30ek 54 urtetik gora zituzten 1972an. Esan beharra dago, bestalde, zifra hauek gehituz

joango zirela, hots, nekazal populazioa zaharrago bilakatuko zela orduandanik hona.

Gipuzkoa eta Bizkaiko baserritarrei dagokienez, Miren Etxezarretak, jadanik aipatutako *Euskal baserriaren oraina eta geroa* lanean, bi eskualde horietan 17.500 baserri daudela kalkulatu du; horietatik erdia, gutxi gorabehera, eskusiboki nekazal ustiapenak dira eta azken hauetatik 5.425 baserri 65 urte baino gehiago dauzkaten baserritarren eskutan daude. Gainera, erabat nekazaritzan bakarrik diharduten 65 urte baino gehiagoko 5.425 baserritar horiek 21 urtez beheko 420 ondorengo posible bakarrik dauzkate la kalkulatu da. Beste ikerketak ere bat datoz ustiatzaileen berrikuntza ahaltasunak eskasak direla esatean. Honela, Lankide Aurrezkiko Ikerlanetako eta Erregio-Garapenerako Departamentuak egindako azterketak, *Análisis socio-económico sobre el caserío* izenekoak, Deba arroako (Gipuzkoa) 213 baserri aztertzen dituela, arestian esandako zailtasun berberak konstatatzen ditu eta, gainera, berritzeko ahaltasunak ere eskasak direla esaten du. Eskasak dira, batetik, gaurko baserritarrak prestatuta ez daudelako eta, bestetik, enpresa-gestioan eta ezagutza teknikoetan gaituz joateko interesik agertzen ez dutelako.

Nekazal sektorearen errentagarritasun txikia

Lehen ere esan da, ekonomia orotara konparatuz, zein den lagun bakoitzeko produktibitate-diferentzia Euskal Herriko nekazal sektorean; 1981ean nekazaritzan enplegatutako lagun bakoitzeko balio erantsia 650.700 pezetakoa zen, hots, ekonomia orotara hartuta (1.504.800 pezeta), beroni dagokionaren aldean % 56,8 txikiagoa. Garbi dago diferentziak oso nabarmenak direla.

Errenta sortzeko gaitasun kaxkarragoa edukitze hau nekazal sektorearen egiturazko ezaugarri bat da eta honek esplikatu du, hein handi batean, zergatik galdu den hainbeste enplegu nekazaritzan. Enplegu-galtze hau, geroago kopuru bidez azalduko dugun bezala, ez da gertatu industriak laneskua zurga zezakeen garaian bakarrik, baita enplegu-alternatiba hori ez dagoenean ere.

Pentsa liteke produktibitate hain apaleko zifra hori nekazal ustiapen txiki askoren eta ekoizpen gutxiaren ondorio izatea eta horien azpian beste ustiapen errentagarriago batzuren produktibitate onargarria estalia egon arren, oro har, produktibitate txiki hori lortzea. Baina badirudi ez dela horrela. Nekazaritzako Ministraritzak kontabilitate-kontrolpean (RECAN sarea) jarritako nekazal

ustiapenen erakuskari garrantzitsu baten emaitzak argitara ditu. Erakuskari horrek urtean gutxienik lagun batentzat lana eskaintzen duten nekazal ustiapenen errepresentatzaile izan nahi du, horiena soilik. Ustiapen horiek, bada, 1981ean Euskal Komunitate Autonomoan lanpostu bakoitzeko ematen duten errenta-sorkuntza 773.100 pezetakoa da, ekonomian oro har lortutako zifren aldean oso behetik. Gainera, jatorrizko deitura duen Arabako mahastizantza ezik, erakuskarian errepresentatuta datozen euskal nekazaritzako ekoizpen-mota guztiek horren antzeko errendimendua lortzen dute. Esan dezagun, arestian aipatutako arabar mahastizantza honetan, errendimendu handiagoa (1.270.200 pezetakoa) lortu dela, baina, ekonomia orotara hartuta, berorren kopurua baino txikiagoa.

Badaude beste datu batzu ere, nekazal ustiapenek errenta sortzeko duten gaitasuna txikia dela adierazten dutenak. Egoera honek enpresa espezializatuak ere ukitzen ditu. Honela, Gipuzkoan, *Lurgintza*-ren ustiapen-kontrolpean ustiatutako eta esnetarako bereziki espezializatutako 109 behi-ustiapenez osatutako taldeak, nahiz eta bere errendimenduak urtez urte hobetuz joan, 1982an, batezbeste eta lanpostu bakoitzeko, 992.730 pezetako errendimendua bakarrik lortu zuen. Kopuru hau enpresariaren erabilgarritasun eran neurtua dago eta hor barruan berari bere lanarengatik ordaintzen zaiona eta inbertitutako kapitalaren interes gisa dago-kiona sartzen dira.

Lurgintza-k berak 1977an egindako *Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan* lanean datorrenez, haragi eta esnetarako behi-azientetan espezializatutako 31 nekazal ustiapenak aztertu ondoren, ondorio hau ateratzen da: enplegatutako lagun bakoitzeko, inguruko industri enpresa batean bigarren mailako ofizial bati zegokion ordainsariaren antzekoa ustiapen horietako 2 lagunek bakarrik lortzen zutela.

Azterketa horretan bertan deskribatzen da Gipuzkoa edo Bizkairako zer-nolakako nekazaritza eta ganadularitzako enpresa-mota izango litzatekeen bideragarriena haragi- eta esne-ekoizpenerako: Belarditan 30 hektarea eduki beharko litzuzke (Euskal Komunitate Autonomoaren batezbestekoa 1982an 14,7 hektareakoa zen), 40 behi ekoizpenean, berauen txekorrak haziz eta gizentzeko urtean 12 txekor erosiz; konkurrentzial gisa hartzen den ustiapen honen eta Euskal Herrian batezbeste daudenen arteko diferentziaz gain, azpimarratu beharra dago nekazal lantegi hobetu hauek enplegua sortzeko duten gaitasuna benetan koxkorra dela, 2 laguni bakarrik emango bait lieke enplegua.

Nekazaritzaren errentagarritasun txikiari dagokionez, berriz ere Miren Etxezarretaren *Euskal baserriaren oraina eta geroa* liburua aipatuko dugu. Hemen egileak, Gipuzkoa eta Bizkaiko 112 baserriren erakuskari bat aztertuz eta ekoizpen posibleen konbinaketa guztiak kontutan hartzen dituen metodo matematikoa (Programazio Lineala) erabiliz, kostaldeko bi probintzia horietako baserrien ekoizpen-egoeretan errendimendurik handiena emango luketen ekoizpenak zeintzu izango lirakekeen esaten du. Ondorio hauek ateratzen ditu:

1. Ekoizpen posibleen artean, esnetarako behi-azienda jotzea da interesgarriena. Gaur egun ere joera hori nagusitzen da bi lurralde horietan.

2. Ohizko baserrian lurra eta aziendak landuz lor daitekeen errentagarritasuna ez litzateke askoz handiagoa izango famili buruak industrian lan egin eta bere lurretan pinua landatuta lortuko lukeena baino; bestalde, ez da ahaztu behar famili buruak eta etxe-koek baserri-lanetan ematen dituzten orduak egiazki garaiak direla. Nolanahi ere, baserrian lanorduko gehienik lor daitekeen ordainsaria, industri peoi batek orduko irabazten duenarekin konparatuta, % 28 txikiagoa da.

3. Azienda-instalazioak mekanizatzea eta handitzea ez dira ekonomikoki errentagarriak baserrientzat. Azienda-instalazioak handitzen badira, 10 hektarea baino gehiagoko baserrietan bakarririk gehitu ahal izango litzateke errentagarritasuna; baina behar hainbat lur ez baldin badago, ezin da lurrik erosi, zeren lurjabeak etekin gehiago ateratzen bait du pinua jarriz.

Kooperatiba moduko ekoizleen elkarteak ere aztertzen ditu, lurrak eta lana batera jarriz eta aziendetan eta instalazio modernoetan inbertsioak eginez. Ustiapen-eredu hau beste azterketa batzutarako ekonomiazko aterabide onargarria izan daiteke, baina, kasu honetan, ondorio hauetara iristen da egilea: errentagarritasunean lagun bakoitzeko ematen den hobakuntza, banakako ustiapen batean lortuko litzatekeenarekin konparatuta, txikia da; hori bai, famili buruaren lana gutxitu egingo litzateke eta abantaila hori izango luke; hala ere, haren lanorduk, industriako enplegu bati dagozkionekin alderatuta, askoz gehiago dira.

4. Nekazaritzan *dedikazio partzialez* iharduteari dagokionez, Miren Etxezarretak esaten du bi enpleguren bidez lor daitekeen errendimendua handia dela, baina honek, bizi-kalitatearen aldetik, narriapen gogorra ekarri ohi duela, bereziki emakumearen kalte-tan. Izan ere, gizonak industrian lan egitean, berak egin behar ditu

baserriko lan asko; bestalde, seme-alaben eta ahaideen laguntza ere beharrezko gertatzen da.

Gainera, nekazaritzan lanordu gutxiago eginez iharduteko ahalbide gutxi ikusten da, errentagarritasuna ere halakoxea izango bait litzateke: txikia.

Ikusten dugunez, ohizko baserria handitu eta modernizatzeko ahaltsunak oso mugatuak dira egile honen ustez. Dedikazio partzialez nekazaritzan iharduteko alternatibak ez dirudi aterabidea denik, zeren, garapen- eta errenta-maila goratuz joatean, hezkuntz mailak eta aisi denboraren balorazioa eta, halaber, enplegu-ahaltasunak (batez ere emakumearen kasuan) gehituz bait doaz. Eta, honela, gero eta zailagoa egiten da lanordu hain luzeak onartzea.

Egileak berak berriki egindako *La Agricultura Insuficiente* liburuan dedikazio partzialeko nekazaritzaz dihardu soil-soilik eta hor, horri buruz lehen esandakoak errepikatzeaz gainera, zera erakusten du: dedikazio partzialeko nekazaritza bizirik irauteko bide bat dela nekazal ustiapen txikiengatik eta hauek honela goratu ahal izan dituztela beren sarrera-mailak; baina, sartu behar dituzten lanorduen kopurua hain handia izanik, ustiatzaileengatik ez dela baxerik gustagarria gertatzen. Datu argigarri gisa, azterketa honek adierazten ematen du dedikazio partzialean ari diren nekazariak onartzen dutela sistema hau berentzat, baina ez beren semeentzat. Hauek ikastera bidaltzen dituzte, gero beren bizimodua nekazaritzatik at atera dezaten eta, lan osagarri gisa, dedikazio partzialeko nekazaritzara jo beharrean aurki ez daitezten.

Gaur egun, dedikazio partzialeko nekazaritza lan osagarri gisa hartzen da. Honela, Euskal Herrian (datuak Euskal Komunitate Autonomoari dagozkionak dira; Nafarroan aztertzen dituen ustiapenak gutxi dira), dedikazio partzialeko nekazal ustiapenetatik % 85etan, nekazal errentak, sarrerak guztira hartuta, % 30 baino gutxiago suposatzen du.

Ikusten dugun bezala, badirudi oso zaila dela ohizko baserriak ustiapen ekonomiko gisa bizirik irautea, belaunaldi adinduak eta lurriari atxekienak desagertuz bait doaz. Oso besterik da baserriei, egoitza eta pausaleku gisa erabiltzeko edo beste zerbaitegatik, eustea, baina ez funtsean ekonomiazko arazoirenen batengatik.

Badirudi, industrian enplegu alternatiboak lortzeko zailtasunak direla eta, ohizko baserriaren desagertzeari buruzko ondorio hauek eztabaidagarriak izan bide daitezkeela 1974az geroztik. Segidako taula honetan agertzen da zein den 1975-1983 epealdian sektore bakoitzean lan egiten duten lagunen kopurua.

Euskal Herrian lan egiten duten pertsona aktiboen kopuru-eboluzioa (milakoetan).

Sektorea	1975	1983	Δ 1983-75	% Δ 1983-1975
Nekazaritza	103,3	64,8	-38,5	-37,3
Industria	424,5	319,8	-104,7	-24,7
Eraikuntza	81,4	48,2	-33,2	-40,8
Zerbitzuak	355,3	364,6	9,3	2,6
Guztira	961,0	797,9	-163,1	-17,0

Iturria: INEk landutako "Encuesta de Población Activa".

Taula horrek erakusten du nola nekazal sektorean deseginez joan den jadanik aipatutako enplegua 1975-1983 krisi-epeldian. Sektore honetan, zortzi urte horietan, 38.500 enplegu galdu dira. Sektore honetan enplegatutako lagunen kopurua % 37,3an gutxitu dela suposatzen du horrek. Azken portzentaia hau benetan esanguratsua da, zeren industrian galdutako enpleguaren portzentaia (% 24,7) baino oraindik ere handiagoa bait da. Honek erakusten du Miren Etxezarretaren ondorio pesimistak errealitatera dexente hurbiltzen direla eta «industrial» deitua izan den krisi hau lanpostuen galtzean gauzatu dela, industri sektorean baino areago nekazal sektorean. Dagoen langabezia garaia dela eta, lanekuaren erabilgarritasun teorikoa hor egon arren, badirudi oso zaila dela sektore honetan lanpostuak sortzea. Ezta dedikazio partzialerako ere. Nekazal lantegi bideragarriak, dirudienez, inbertsio garrantzitsuak eskatzen dituzten eta laneku gutxi behar duten ustiapen espezializatuak dira. Horregatik, lanpostuak sortzeko ahaltasun gutxi edukitzeaz gainera, horietan lanpostu bakoitzeko inbertsioaren arrazoa garaia gertatzen da. Honek, noski, nekazal enpresa berriak sortzea eta daudenen egiturak hobetzea zailtzen du.

Euskaratzailea: Paulo Iztueta

J.E.

I. Eranskina: Nekazal sektoreko enpleguaren eboluzioa eta horren parte enplegu osoan (unitateak = pertsona enplegatuen kopurua).

Kontzeptua		1955	1957	1960	1962	1964	1967	1969	1971	1973	1975	1977	1979	1981
Araba	Nekazal sektorea	19.899	19.296	18.782	16.826	16.537	14.795	14.357	14.495	13.958	11.428	7.986	9.995	11.178
	Sektoreak oro	60.635	61.183	60.456	67.410	73.920	85.128	90.210	92.300	94.087	95.996	97.463	102.147	97.759
	% Nekazaritza/Guztia	32,8	31,5	31,1	25,0	22,4	17,4	15,9	15,7	14,8	11,9	8,2	9,8	11,4
Gipuzkoa	Nekazal sektorea	21.512	22.206	22.657	22.637	20.312	18.336	17.697	17.076	15.115	18.035	19.826	16.880	12.625
	Sektoreak oro	186.614	202.841	210.566	226.863	242.373	252.342	262.517	270.632	269.203	269.597	267.904	258.400	224.798
	% Nekazaritza/Guztia	11,5	10,8	10,8	10,0	8,4	7,3	6,7	6,3	5,6	6,7	7,4	6,5	5,6
Bizkaia	Nekazal sektorea	41.928	42.697	44.346	45.311	41.255	32.962	30.508	25.644	19.550	22.410	18.369	15.849	14.830
	Sektoreak oro	315.678	338.807	351.692	369.701	387.221	402.485	415.296	417.892	429.077	430.671	422.304	395.582	368.952
	% Nekazaritza/Guztia	13,3	12,6	12,6	12,3	10,6	8,2	7,3	6,1	4,6	5,2	4,3	4,0	4,0
EKA	Nekazal sektorea	83.339	84.199	85.785	84.774	78.104	66.093	62.562	57.215	48.623	51.873	46.181	42.724	38.633
	Sektoreak oro	562.927	602.831	622.714	663.974	703.514	739.955	768.023	780.824	792.367	796.264	787.671	756.129	691.509
	% Nekazaritza/Guztia	14,8	14,0	13,8	12,8	11,1	8,9	8,5	7,3	6,1	6,5	5,9	5,7	5,6
Nafarroa	Nekazal sektorea	86.253	82.042	73.891	68.219	62.008	59.468	55.168	54.287	48.061	39.528	34.216	32.095	26.880
	Sektoreak oro	173.702	182.601	179.933	182.465	184.020	193.610	200.592	197.478	193.710	189.071	186.720	186.555	169.141
	% Nekazaritza/Guztia	49,7	44,9	41,1	37,4	33,7	30,7	27,5	27,5	24,8	20,9	18,3	17,2	15,9
Euskal Herria	Nekazal sektorea	169.592	166.241	159.676	152.993	140.112	125.561	117.730	111.502	96.684	91.401	80.397	74.819	65.513
	Sektoreak oro	736.629	785.432	802.647	846.439	887.534	933.565	968.615	978.302	986.077	985.335	974.391	942.684	860.650
	% Nekazaritza/Guztia	23,0	21,2	19,9	18,1	15,8	13,4	12,1	11,4	9,8	9,3	8,3	7,9	7,6

Iturria: BANCO DE BILBAO: Renta Nacional de España y su distribución provincial.

II. Eranskina: Nekazal sektoreko Barne-Produktu Gordinaren eboluzioa (faktore-kostutan) eta ekonomia osoari egindako ekarpena (1981eko milioi pezeta konstantetan).

Kontzeptua		1955	1957	1960	1962	1964	1967	1969	1971	1973	1975	1977	1979	1981
Araba	Nekazal sektorea	6.275	5.458	5.973	9.168	8.475	7.068	9.135	8.446	8.932	10.415	8.496	10.027	7.796
	Sektoreak oro	30.572	34.239	34.398	45.495	57.921	74.217	103.376	112.051	125.775	136.368	149.173	159.288	154.162
	% Nekazaritza/Guztia	20,5	15,9	17,4	20,1	14,6	9,5	8,8	7,6	7,1	7,6	5,7	6,3	5,1
Gipuzkoa	Nekazal sektorea	5.924	6.541	7.068	9.192	9.885	8.237	9.541	7.955	8.802	9.845	9.948	7.462	7.697
	Sektoreak oro	158.419	162.529	162.718	191.831	220.327	247.220	296.598	333.419	361.503	386.646	388.458	362.103	345.840
	% Nekazaritza/Guztia	3,7	4,0	4,3	4,8	4,5	3,3	3,2	2,4	2,4	2,5	2,6	2,1	2,2
Bizkaia	Nekazal sektorea	11.872	12.407	14.075	14.698	16.173	13.963	14.721	12.246	12.955	15.657	11.052	9.713	6.088
	Sektoreak oro	225.298	250.714	235.023	303.106	313.620	398.196	455.304	506.359	593.915	661.961	650.390	577.117	550.827
	% Nekazaritza/Guztia	5,3	5,0	6,0	4,8	5,2	3,5	3,2	2,4	2,2	2,4	1,7	1,7	1,1
EKA	Nekazal sektorea	24.070	24.406	27.115	33.058	34.533	29.268	33.396	28.647	30.689	35.917	29.496	27.202	21.581
	Sektoreak oro	414.289	447.482	432.139	540.432	591.869	719.633	855.278	950.515	1.081.193	1.184.975	1.188.021	1.098.508	1.050.829
	% Nekazaritza/Guztia	5,8	5,4	6,2	6,1	5,8	4,1	3,9	3,0	2,8	3,0	2,5	2,5	2,1
Nafarroa	Nekazal sektorea	26.016	28.148	29.486	37.481	37.442	30.178	35.690	30.668	35.854	32.459	30.066	26.706	21.046
	Sektoreak oro	85.340	90.427	89.250	112.332	132.084	148.520	181.788	193.606	214.812	230.155	237.526	247.433	244.236
	% Nekazaritza/Guztia	30,5	31,1	33,0	33,4	28,3	20,3	19,6	15,8	16,7	14,1	12,7	10,8	8,6
Euskal Herria	Nekazal sektorea	50.086	52.553	56.601	70.539	71.975	59.446	69.087	59.315	66.543	68.376	59.562	53.908	42.627
	Sektoreak oro	499.629	537.909	521.389	652.764	723.953	868.153	1.037.066	1.144.121	1.296.005	1.415.130	1.425.529	1.345.941	1.295.065
	% Nekazaritza/Guztia	10,0	9,8	10,9	10,8	9,9	6,8	6,7	5,2	5,1	4,8	4,2	4,0	3,3

Iturria: BANCO DE BILBAO: *Renta Nacional de España y su distribución provincial*. Bilboko Bankuak bere urteroko txosten ekonomikoan jasoak dituen. INEren kontsumorako prezio-indizeen arabera aldatu ditugu pezeta arrunten kantitateak pezeta konstantetan.

EL SECTOR AGRARIO VASCO EN EUSKADI SUR

LE SECTEUR AGRICOLE AU PAYS BASQUE SUD

1. Importancia del sector agrario vasco

El sector agrario vasco (agricultura, ganadería, subsector forestal) ha perdido importancia económica. Son indicativos de este hecho la escasa aportación al Producto Interior Bruto (PIB), el número de personas a las que da empleo, el valor del patrimonio del sector agrario, las inversiones del sector, así como el análisis de las Tablas input-output de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

2. Evolución de la agricultura

El período de la postguerra se caracteriza por la reducción del rendimiento por hectárea, por la reducción de la superficie cultivada y el consiguiente desabastecimiento que se originó en la época.

El cambio en los cultivos desde 1936 se manifiesta en los siguientes fenómenos: disminución de las tierras cultivadas en Guipúzcoa y Vizcaya y repoblaciones con coníferas; la sustitución de cereales para alimentación humana (trigo) por los cereales para alimentación animal (cebada) y las producciones forrajeras. El paso de una economía de autoconsumo a otra de mercado ha cambiado la fisonomía de la agricultura. En el «área del maíz» o agricultura atlántica, ha desaparecido prácticamente el maíz, la ganadería crece en importancia, se introduce el cultivo bajo plástico. En el «área de trigo» o agricultura mediterránea el trigo ha sido sustituido por la cebada; el viñedo mantiene su importancia; gracias al regadío es posible el cultivo de productos de zonas más húmedas (maíz, alfalfa, frutales, hortalizas). En Alava hay que mencionar el incremento de la producción de patata.

El subsector ganadero vasco tiene una importancia en la producción final algo inferior a la de la agricultura. El censo de los efectivos ganaderos muestra un crecimiento del número de animales bovinos, ovinos, caprinos y equinos. Se ha reducido el animal de carga y tiro (asnos y mulos).

La producción de carne es muy elevada, pero hay que tener presente el ganado de abasto comprado en otras regiones para su matanza en el País Vasco. El incremento más espectacular ha tenido lugar en la matanza del ganado porcino y de aves; ha sido menor en el ovino y el vacuno. La producción de leche también ha sufrido un aumento importante.

La producción forestal es también significativa. La superficie forestal, que no corresponde a superficie arbolada, es muy importante. Cubre las dos terceras partes del total del territorio de las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, que en gran parte es de propiedad privada; en Alava cubre una tercera parte y en Navarra algo menos, siendo importantes en ambas los montes y tierras de utilidad pública. Las especies frondosas dominan en Alava y Navarra; las coníferas en Vizcaya y Guipúzcoa.

3. Efectos de la industrialización sobre la agricultura

Los efectos del proceso de industrialización seguido por el País Vasco sobre la agricultura se pueden resumir en cuatro: 1) Urbanización de tierras antes dedicadas a la agricultura. 2) Absorción de mano de obra por la industria a raíz de la desaparición de puestos de trabajo y la expulsión de mano de obra en el sector agrario. 3) Paso del autoconsumo a la producción para el mercado, que entraña el abandono de policultivo por la especialización. 4) Revolución tecnológica: nuevas técnicas productivas, mecanización, mayor y mejor utilización de fertilizantes y abonos; mejora de la raza del ganado; de sus instalaciones, etc. Hay que destacar la infrutilización del parque agrícola en todo el País Vasco.

4. Evolución de la producción y el empleo

La aportación del sector agrario de cada una de las provincias al PIB es diferente. La mitad se obtiene en Navarra; la otra mitad se reparte homogéneamente en las otras provincias. Guipúzcoa y Vizcaya se orientan hacia la ganadería, mientras Alava y Navarra son agrícolas.

La evolución seguida por la producción en las últimas tres décadas viene marcada por el hecho de que el valor añadido generado es menor hoy que en 1955, mientras que el conjunto de la economía lo ha multiplicado por más de dos veces y media.

La evolución del empleo muestra una pérdida de puestos de trabajo que se puede calificar de espectacular. Entre 1955 y 1981 se ha perdido el 61,4%. Y la crisis actual del sector industrial no constituye un freno para esa tendencia.

La productividad del sector agrario, con ser mucho menor en comparación con la del resto de la economía, ha crecido de forma importante, en un 120%.

5. Algunos aspectos básicos de la agricultura vasca

1) Dimensión de las explotaciones. Se caracteriza por el elevado número y el consiguiente pequeño tamaño medio, sobre todo en Guipúzcoa y Vizcaya. El número de explotaciones va disminuyendo con lo que la dimensión media aumenta. Otra característica es la elevada parcelación. En Alava y Navarra, a diferencia de en Guipúzcoa y Vizcaya, ha tenido lugar la Concentración Parcelaria.

2) Envejecimiento de los empresarios agrícolas y continuidad de la explotación. Los que ocupan los caseríos y explotaciones agrarias van envejeciendo, especialmente en Guipúzcoa y Vizcaya. Ello pone en peligro la continuidad de la explotación, y compromete las posibilidades de renovación.

3) Rentabilidad reducida del sector agrario. La menor capacidad de generación de renta es una característica estructural del sector agrario, que afecta también a empresas especializadas. Así lo confirman los varios estudios realizados al respecto. Por ello las posibilidades de ampliación y modernización del caserío tradicional son muy reducidas.

1. Importance du secteur agricole basque.

Le secteur agricole basque (agriculture, élevage, soussecteur forestier) a perdu de son importance économique. Comme preuve de cette situation nous pouvons citer le faible apport au Produit Intérieur Brut (PIB), le nombre de personnes qu'il emploie, la valeur du patrimoine du secteur agricole, les investissements du secteur, ainsi que l'analyse des Tableaux input-output de l'Alava, du Guipuzcoa, de la Navarre et de la Biscaye.

2. Evolution de l'agriculture.

La période de l'après-guerre se caractérise par la diminution du rendement par hectare, la réduction de la surface cultivée et par conséquent la baisse de l'approvisionnement qui s'est produite à cette époque.

Le changement dans les cultures depuis 1936 se manifeste dans les phénomènes suivants: diminution des terres cultivées au Guipuzcoa et en Biscaye et reboisements avec des conifères; la substitution des céréales pour l'alimentation humaine (blé) par des céréales pour l'alimentation animale (orge) et les productions fourragères. Le passage d'une économie d'auto-consommation à une économie de marché a changé la physionomie de l'agriculture. Dans la «zone du maïs» ou agriculture atlantique, le maïs a pratiquement disparu, l'importance de l'élevage s'accroît et la culture en serre est introduite. Dans la «zone du blé» ou agriculture méditerranéenne le blé a été substitué par l'orge; la vigne maintient son importance; grâce à l'irrigation il est possible de cultiver des produits des zones plus humides (maïs, luzerne, arbres fruitiers, cultures maraîchères). En Alava il faut signaler l'accroissement de la production de la pomme de terre.

L'importance du soussecteur de l'élevage basque dans la production finale est quelque peu inférieure à celle de l'agriculture. Le recensement du bétail montre une augmentation du nombre de bovins, d'ovins, de chèvres et de chevaux. Les animaux de somme et de trait ont diminué (ânes, mulets).

La production de viande est très élevée, mais il faut tenir compte du bétail destiné à la boucherie acheté dans d'autres régions pour être abattu au Pays Basque. L'accroissement le plus spectaculaire s'est produit dans l'abattage de porcs et de volailles, contrairement à celui d'ovins et de bovins. La production de lait a connu aussi une forte augmentation.

La production forestière est aussi significative. La surface forestière, qui ne correspond pas à la surface boisée, est très importante. Elle couvre le deux tiers de l'ensemble du territoire des provinces du Guipuzcoa et de la Biscaye, qui est dans sa majeure partie de propriété privée; en Alava elle couvre un tiers et en Navarre un peu moins, et dans ces deux provinces les montagnes et les terres d'utilité publique sont importantes. Les espèces feuillues dominent en Alava et en Navarre, tandis que les conifères sont plus abondants en Biscaye et au Guipuzcoa.

3. Effets de l'industrialisation sur l'agriculture.

Les effets de l'industrialisation au Pays Basque sur l'agriculture peuvent se résumer en quatre points: 1) L'urbanisation des terres réservées auparavant à

l'agriculture. 2) L'absorption de la main d'oeuvre par l'industrie suite à la disparition de postes de travail et à l'expulsion de la main d'oeuvre dans le secteur agricole. 3) Le passage de l'auto-consommation à la production pour le marché, ce qui entraîne une spécialisation qui va au détriment de la polyculture. 4) La révolution technologique: nouvelles techniques de production, mécanisation, une plus grande et meilleure utilisation de fertilisants et d'engrais; amélioration de la race du bétail, de ses installations, etc. Il faut souligner la sous-utilisation du parc agricole dans tout le Pays Basque.

4. *Evolution de la production et de l'emploi.*

L'apport du secteur agricole dans chacune des provinces au PIB est différent. La moitié est obtenue en Navarre; les autres provinces se partagent de façon homogène l'autre moitié. Le Guipuzcoa et la Biscaye sont orientés vers l'élevage, tandis que l'Alava et la Navarre sont agricoles.

L'évolution suivie par la production durant ces trois dernières décennies est marquée par le fait que la valeur ajoutée obtenue est inférieure aujourd'hui à celle de 1955, alors que dans l'ensemble de l'économie elle est deux fois et demi plus importante.

L'évolution de l'emploi montre une perte de postes de travail que l'on peut qualifier de spectaculaire. Entre 1955 et 1981 cette perte est de 61,4%. Et la crise actuelle du secteur industriel ne constitue pas un frein à cette tendance.

La productivité du secteur agricole, tout en étant bien inférieure à celle du reste de l'économie, s'est accrue considérablement, de 120%.

5. *Certains aspects fondamentaux de l'agriculture basque.*

1) *Dimension des exploitations.* Elles se caractérisent par leur nombre élevé et leur superficie moyenne réduite, spécialement au Guipuzcoa et en Biscaye. Le nombre d'exploitations diminue peu à peu et, de ce fait, la dimension moyenne augmente. Le morcellement important est une autre des caractéristiques. En Alava et en Navarre, contrairement au Guipuzcoa et à la Biscaye, à eu lieu le Remembrement.

2) *Vieillesse des exploitants agricoles et continuité de l'exploitation.* Les occupants des fermes et des exploitations agricoles vieillissent, spécialement au Guipuzcoa et en Biscaye, ce qui met en péril la continuité de l'exploitation et compromet les possibilités de renouvellement.

3) *Rentabilité réduite du secteur agricole.* La diminution de la capacité pour l'obtention de bénéfices est une caractéristique structurale du secteur agricole qui touche aussi les entreprises spécialisées, tel que le confirment les différentes études réalisées dans ce domaine. C'est pourquoi les possibilités d'élargissement et de modernisation de la ferme traditionnelle sont très réduites.

Euskal nekazaritzaren etorkizuna

Jakin: Aurretiaz eta idatziz adierazi genizuenez, «euskal nekazaritzaren etorkizuna» da mahainguru honen gaia. Egoeraren deskribapena eta azterketa aurreko lanetan eginik dago.

Etorkizunari begira hitzaspertu bat egiteko bildu zaituztegu hemen. Nekazaritza-kontutan adituak zaretelako bildu ere. Zuen lan profesionalak zerikusi arteza du, ezaguna denez. Izan ere, J.M. Zeberioek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailean dihardu, K. Enbeitak eta A. Lekuonak EHNE sindikatuan eta P. Iralurrek Iparaldeko ELB nekazal sindikatuan. Baina kasu, ez zatozte hona erakunde horiek ordezkatzera. Nork bere izenean hitzegingo du, bere eritzia azalduz, bestelako konpremezurik gabe.

Mahaingururako bidali genizuen gidoia ezagutzen duzue, noski. Gogoratu egingo dizuegu lanean hasi aurretik.

EUSKAL NEKAZARITZAREN ETORKIZUNA

1. Etorkizunari begira, soluzionatu beharreko arazo zenbait

- a) nekazariaren eskuhartzea, prestakuntza, profesionaltasuna, etc.
- b) lurren plangintza, lurraren erabilera, jabegoa, prezioa, etc.
- c) ustiapenen berregituraketa, neurria, ekoizpena, lurrak liberatzea, etc.
- d) besterik.

2. Europan sartzea dela eta

- a) EEEen sartzeak zer suposatzen duen.
- b) EEEen integratzearen alde on eta txarrak.
- c) EEEen sartu aurretik hartu beharreko neurriak.

3. Erakundeen eginkizuna eta jokamoldea

- a) erakunde publiko eta pribatuen eginkizuna eta jokabidea.
- b) nekazal plangintza: egingarri? egin beharreko? legerik etorriko al da?
- c) gaur egungo jokamoldearen azterketa.
- d) egin beharko luketenaz proposamenak, iradokizunak.

Joko-arauak ere ezagutzen dituzue. Ahal dela gidoi honi lotuko gatzazkio, baina ez nahitaez puntuz puntu. Nahi duenak nahi duena azpimarra edo sakon dezake. Aztergaia, bestalde, bere zaballean hartzen dugu hasieran, hots, hiru azpisailak: laborantza (ale-tarakoak, barazkiak, etc.), azienda (haragia, esnea) eta oihana.

Eta honenbestez, has gaitezen lehen puntuarekin. Zuena da hitza aurrerantzean.

1. Zenbait arazo larri

1.1. Nekazariaren prestakuntza eta heziketa

A. Lekuona: Profesionaltasuna inportantetzat jotzen da Sindikatu aldetik. Eta profesional izateak baditu bere eskakizun eta oinarriak. Bat, prestakuntza da; prestakuntza, gainera, bi eratakoa: batetik, eskolan egiten dena dago, bere garai batean eta ordu jakin batzutan eta metodo jakin batzurekin egiten dena; eta bestetik, eguneroko prestakuntza dago, heziketa etengabe deitua. Biak behar ditugu profesional izateko.

Prestakuntza eta heziketa horren barruan, puntu bat aipatu behar da: eskolak. Eskolak nola dauden, edo nola ikusten ditugun, nolakoak izan beharko luketen. Nire ustez, berezitasun batzu behar ditu eskolak: badira hor eztabaidak, gaztetan egiten den eskola horrek nekazari-eskola izan behar duen, nekazariarentzat bakarrik, nekazariak aparte hartuta, ala mundu zabalago batean sartua egon behar duen; hau da: lanbide-eskolak nekazaritzakoa bakarrekoa izan beharko lukeen ala beste sektoreetakoekin batera egon beharko lukeen. Nik neure eritzia (eta are esperientzia) agertuko dut: nire ustez, nekazari-eskola izan behar dute, nekazariarentzat baka-

rrik. Zergatik? Batez ere, nekazari-giroak segi dezan eskola horietan; bestetik, sektore desberdinetako ikuspuntuak nahas ez daitezten. Nik behintzat daukadan esperientzia hau da: nekazariak bakarrik zirenean, giroa sortzen zen eta gauzak sakontzen ziren; nekazariak eta nekazari-herrietako jendeak nahasten zirenean, berriaz, nekazaritza beti bigarren mailan geratzen zen. Nire ustez, beraz, nekazarientzat soil eta nekazari-munduari begira egina behar du izan eskolak. Hala erakutsi digu esperientziak.

K. Enbeita: Nik ez dakit gaur posible den Administrazioaren aldetik guk izan dugun esperientzia berritzea: txikitan, eskolara joaten ginen, eta, etxean lana zegoenean, etxean egon beharra izaten genuen; edo goizean eskolara eta arratsaldean lanera ibiltzen ginen. Horrela, baserriko lan guztietan parte hartzen genuen. Gaur gure umeak baserrian bizi dira, baina kanpoan ikasten dute, eta ez dute bizi baserriko lana; eta lehen kaletarrek ikusten zuten bezala ikusten dute baserria. Hori konpontzeko, herriko eskola haietara itzultzerik bai ote? Ez dakit. Profesionaltasuna, nolana ere, Unibertsitatean ere lor daiteke. Dena dela, hori baino lehenagoko arazoa daukagu baserritarrok: nolabait bizi egin behar dugu.

Jakin: Zein da baserri-eskolen egoera une honetan?

J.M. Zeberio: Hiru Lurraldeetan daude nekazari-eskolak: Araban bat, 90 ikaslerekin; Bizkaian aurren jarri da, 15 ikaslerekin; Gipuzkoan dago bestea, 50 bat ikaslerekin: Fraisoro. Eta, gero, Zabalegi dago: lehen ere nekazari-eskola izana da (nahiz ez «arautua», tituluak emateko eta): urte batzuren ondoren, berriro ekin dio Zabalegik ikastaldiak prestatzeari.

P. Iralur: Iparraldean badira bi eskola-mota. Bata gazteentzat da: gazte batek eskolak segitu nahi baditu, badu horretarako bide bat, eta, bidearen buruan, tekniko izango da: nekazari-batxilergoari edo goimailako teknikoari dagokion diploma lortu ondoren, edo segitzen ahal du tekniko bezala edo lan egiten ahal du nekazari bezala. Bigarren bidea, eskolan ibilia ez denarentzat da: batek bere baserria hartu nahi baldin badu, edo laguntzak jaso nahi baditu bai Bankutik bai Estatutik, behar ditu edo 600 edo 400 edo, gutxienez, 200 oren egin eskolan.

Hemen esan da, beharrezkoa dela laborari bezala hezia izatea. Ez dakit: orain arte gizon oso berezia zen laboraria: berezia zen, nekazaria zelako; eta anitz aldiz nekazari zen, besterik egiten ahal ez zuelako. Iruditzen zait, besteekin nahasteak gauza onak ere badituela, nekazaritza beste lanbideen hein berean jartzen bait da.

Bestalde, heziketa horretan zer laborari-mota prestatzen digute egun? Ohartzen ari gara, eskolan jasotzen den heziketa arrunt alderdikaria dela. Bada orain laborari-tipo bat: 20 urteko gazteak, eskolatik ateratzen direlarik, lehen baino biziki berdinago dira denak: alimaleko sinestea dute teknikan, ez dute bide bat baizik eza gutzen, eta bide hori da egia bakarra. Erran nahi bait da: izpiritu kritikorik gabe ateratzen dira eskolatik. Gero sortzen zaizkie problemak; eguneroko esperientziarekin eta borrokarekin ohartuko dira eskolan ikasi dutena ez dela baitezpada egia, ez dela bide bakarra. Orain, gainera, informatika sartzen ari dira laborari-eskoletan...

Nire ustez, hobe litzateke pentsatzea: egun bizitzeko, zein heziketa behar du gazte batek; eta heziketa horretan, zer behar du bere lanbiderako?

A. Lekuona: Hazparneko eskolan gertatuaz nik dudan inpresioa da, sektore desberdinak zeudela barne, eta nekazaritza baztertua zegoela, beste sektoreetakoen aurrean nekazariak beldurtuta bezala zeudela.

Erabat ados nago heziketa-motaz Pellok dioenarekin: baserri-tar-tipo bakar-bakarra ari dela sortzen, denak berdinak; izpiritu kritikoa falta da gure eskoletan.

Jakin: Hegoaldean ere hala al da?

J.M. Zeberio: Nire ustez, aldaketa bat egon da. Orain 15 edo 20 urte, nekazari-mugimenduaren inguruan bazegoen halako heziketa-kezka bat. Heziketa hori nahikoa ahula zen teknika aldetik: lan-teknikak irakasten ziren, bai, baina gehiago lantzen ziren beste kultur arloak. Azken urte hauetan, berriz, beste muturrera jausi gara: planteamendu guztiz teknikoak egin da, beste arloak baztertuz. Horretaz jabeturik gaude, eta orain eratzen diren ikasketetan bi arloen artean oreka bat aurkitu nahi da. Ikusten da baserri-tarrak ez duela nahikoa oso tekniko ona izatearekin, baizik bere nekazari izatea landu behar duela, nekazari-sektorean dauden beste mila problema ere ezagutu egin behar dituela; ez dela aski tekniko ona izatea: gizon oso izan behar dela.

Profesionaltasunari dagokionean, gaurko arazorik gogorre-tako bat seinalatu nahi nuke: baserrian jende asko dago tradizioz egiten ikasi duena eginez, eta pixka bat hobetuz teknikoki (barantzantza eta ganadularitza teknifikatuz, etab.). Profesionaltasunaz, berriz, nik uste, gizon batek helburu batzu jartzen dituen min-

tza gaitzke: bere lurraldea zertan eta nola ustiatuko duen erabakitzeko duenean, etorkizunari begira inbertsio batzu egiten ditue-
nean; hau da: plan bat duenean, ez gaur edo biharko bakarrik, bai-
zik geroari begira dauzkan posibilitateak ikusten ditue-
nean. Eta, nire eritziz, euskal nekazaritzan dagoen krisirik handienetako bat
hau da: izugarritzko deskontzertua dago, edo nahasketa, edo garbi
ez ikustea. Jende asko ari da lanean etorkizunari buruzko segurtasun-
sunik batera gabe. Noski, badira batzu garbi ikusten dutenak eta
bide jakin batetik doazenak; baina gehienek ez daukate halako se-
gurtasunik.

Jakin: Zer gertatzen da: egiten ari denaz bera ez dagoela seguru,
ala egiten ari den lan horren etorkizunaz ez dagoela seguru?

J.M. Zeberio: Gaur hartu duen bide horri ez diola jarraipenik ikus-
ten. Eta hau heziketarekin lotu behar da: guraso askok bidaltzen
dituzte gazteak eskolara, baina askotan zer egirik ez dutelako,
ikastea ona dela iruditzen zaielako,...

1.1.1. Heziketaren eta sistemaren krisia

P. Iralur: Hogeitabost urte honetan zutik egon den ekonomia
orain krisian da. Baina zergatik egon da zutik orain arte? Laborari
bat hezi dutelarik, ideologia berezi bat ezarri diotelako; ideologia
horri esker, 25 urtez industrian baino biziki handiagoa izan da
produktibitatea laborantzan. Alegia: nekazariak modernizatu dira,
traktoreak erosi dituzte, teknika berriak ezarri dituzte, eta, beraz,
lehen baino gauza gehiago ekarri dute merkatura. Baina beren lana
ez dute sekula kontatu. Horrela, kaleko jendeak biziki merke zuen
janaria eta, beraz, diru gehiago zuen industriak egindako gauzen
erosteko. Eta hori laborariaren ideologiari zor zaio: «ni laboraria
naiz, nere baserriaren, nere familiaren, nere tresnen jaun eta nagu-
si; eta, nagusi izanez, nere gain hartzen ditut nekazaritzak dituen
arriku guztiak; eta ni naizenez nere buruaren jabe, ene falta da hi-
labetearen edo urtearen buruan dirurik ez badut».

Nork ukan du laborantzako produktibitatearen mozkinak? Ne-
kazariaren inguruko «agro-alimentaire» delakoak ukan du mozkin
hori guztia, eta hazkunde horren mozkinik ez du jaso nekazariak.
Eta horretan da: orain arteko ideologia hori bera ezartzen zaio ne-
kazariari heziketaren bitartez: «zu zara zeure buruaren jabe eta
zuk hartu behar dituzu arriskuak». Ideologia hori oso emankorra
izan da sistema ekonomikoarentzat: nekazariari horrelako arri-

kuak har erazi zaizkio ideologia hori zela medio eta horri esker heldu da laborantza heldu den heinera.

J.M. Zeberio: Ni ez nago Pellok dioenaren kontra; baina ba al zegoen alternatibarik? Bide horretara behartu da laboraria; baina posible al zen, edo posible al da, beste bideren bat praktikan martxan jartzea?

P. Iralur: Egun fabrikari ari den langileak aski du astean 40 orenez lan egitea, bizitzeko; nekazariak, aldiz, bi halako (edo ia) behar ditu; eta hilabetearen buruan langileak baino askoz gutxiago irabazi du. Horretan da problema: 25 urte honetan, langileriak ukan dituen abantailak nekazariak ez ditu ukan, eta egun legeek ez dizkio- te ezagutzen langile gisa dituen eskubideak. Azpioproletalgo bat da.

Jakin: Alegia, sektore bat beste sektoreen zerbitzuan.

K. Enbeita: Hori da. Hasieran genioenera itzuliz, hiru giro eta motatako eskolak gogoratu nahi nituzke: lehen ikasketak norberaren lan-lekuan egitea proposatuko nuke (girotik ez ateratzearen, ez beste sektoreekin ez nahastearren); bigarren, gaitasun bat lortzeko eta laguntzak eskuratu ahal izateko egin behar den hainbat ordutako eskola legoke; azkenik, heziketa tekniko-profesionala.

Baina baserritarra bera baino gehiago arduratu dira baserriaren kontura bizi direnak baserritarra beren zerbitzuan hezitzen. Ondorioz, baserritarrak ez du esku hartu komertzializazio-bideetan ez produktuen transformazioan. Eta sistemaren esklabu bihurtu da. Beranduegi ez bada, baserritarrak bere eskuetan hartu behar ditu bere heziketa, produkzioa eta transformazioa. Produkzioari neurri bat ezarri dio munduak: gure irtenbide bakarra (txarra, agian) ez da produktibitatea uztea, baizik produkzioaren ondoko arlo guztietan esku hartzea: salmentaren bide guztiak geure eskuetan hartzea. Bestela, produkzioa urrituko dugu, eta gero eta ahulago izango gara. Baina sistema nola apurtu?

P. Iralur: Badira segidan hartu beharreko erabakiak, eta geroari buruz sortu beharreko bide berriak. Ez da dena gaurtik biharrera aldatzen ahal. Sistema batean gaude, eta sistema horri bizitzeko behar ditugun garantiak eskatu behar dizkiogu. Sistema honen barruan ere egin daitezke gauza batzu, baldin borondate politikorik badago gobernariengan. Gero, beste bideak hartu beharko dira, hemendik 20 urtera baserri txikia bizi dadin nahi bada. Orain honenbeste nekazari txiki daude, eta horiei behar zaie segidan erantzun bat eman. Baina gaurko bidetik 20 urteren buruan % 50 ez dira gehiago nekazaritza bizi izaten ahal, sistema honetan ez

bait da txikiarentzat lekurik. Beraz, behar da beste bide bat sortu; eta hor ere borondate politikoa behar da.

J.M. Zeberio: Zuk sisteman jartzen duzu azentua, baina nik galde-tuko nuke: gaur nekazaritzaren bilakaerari gertatzen zaiona sistemari leporatu behar zaio erabat, ala teknologiaren aurrerapenaren ondorioa da? Hau da: teknikaren aurrerapenak posible egin du laneskua mugatzea (eta laneskua soberaraztea); eta baserritarraren inguruan familia bat dagoenean, askoz lur gehiago lant daitezke, ganadu gehiago manten daiteke, produkzio handiagoa atera daiteke. Eta hori ez dakit sistema bati ala egoera bati, teknologiaren aurrerapenari, lotu behar zaion.

P. Iralur: Teknologia ere sistema baten barruan dago; ez dago isolatua, bide bat egin du, sistema baten barruan.

J.M. Zeberio: Dudarik ez. Baina teknikaren aurrerapena, sistema baten barruan egin bada ere, uste dut, gizonaren aurrerapena dela azken batean. Baserritarrak, duela 20 urte, 10 litro esne ematen zituzten behiak zeuzkan, eta 150 kiloko txahalak ateratzen zituen mataderira, urte t'erdiz edo hazita; gaur, 30 litro ematen dituzten behiak eduki ditzake, eta okela askoz azkarrago eta hobeto produzi dezake. Lehen hiruzpalau gaztek joan behar zuten soro bat ebakitzera, eta gaur, makina batekin, ordu betean egiten da lehen goiz osoan egiten zena. Sistema baten barruan gaude, bai; baina aurrerapenok hainbat posibilitate eman dituzte.

1.1.2. Nekazaritza gizarte-sistemaren barruan

A. Lekuona: Produktibitatea azkartuz doa, indartuz eta hobetuz. Nik ez dakit hori hobe ala txarragoa den, baina mundua horrela doa, eta ez bakarrik sistema batean, baizik guztietan. Hala ere, puntu bat azpimarratu beharko genuke: azterketa guztietan ahaztu egiten da gizona tartean dela, laneskua tartean dela; ahaztu egiten da baserritarra. Fabrika-langilea egunean zortzi orduz lan eginez bizi liteke; asteen 34 (edo 39 edo 40, berdin zaio; kantitate jakin bat, behintzat) edo urtean 1.825 ordu-inguru. Baserritarrak hala egingo balu, zer gertatuko litzateke, zer prezio aterako lirateke? Agian, planteatzerik ere ez dago horrela; baina datu bat behintzat kontutan izan behar da: hor langile batzu ari dira, eta langile horiek merezi dute bizi ahal izateko adina irabaztea, eta ez ordu askoren poderioan eta beren buruak zamapean jarriz, baizik erosotasun pixka batekin.

J.M. Zeberio: Zehaztu beharra dago hori. Azken urte hauetan ikerketa batzu egin dira hemen baserritarrak beste langileekin konparatuz; ikerketa horien ondorioa da: baserritarrak bere lanari oso etekin txikia ateratzen diola, eta, beraz, urte gutxi barru hemengo baserria guztiz desegin eta ezkutatuko dela: horrelako aurrikuspenak egin dira. Hori, nik uste, ez da bidezkoa: hiritarraren mentalitatearekin ari gara aztertzen nekazaritzaren egoera. Baserritarraren logikan ez dago hori bakarrik: inportantea da, baina ez da bakarra; beste mila faktore daude. Azken batean, baserritarraren larritasuna zera da: normalki lan eginda, gero eta diru-iturri ahulagoak dituela, eta beste arloetara jo behar duela, dirubide minimoak edo izateko... Baina industriako logikaz egiten diren aurrikuspenekin ez dugu asmatuko.

P. Iralur: Nik ez dut esan nahi nekazariak langile bilakatu behar duenik. Nekazariak badu bere nortasuna eta berezitasuna, adibidez lanarekiko edo aroarekiko (eguraldiarekiko) erlazioan; hala izan da, eta hala izanen da. Besterik esan nahi dut: bai industriako langileak bai nekazariak gauza bat ekartzen diote sistema bati; sistemak, ordainetan, halako eta halako gauzak ematen dizkio industri langileari. Normala da, nekazariak ere ber gisan ukan ditzan, sistemak emanik, besteek dituzten gauza batzu.

Duela 25 urte baziren aldeak nekazarien artean, nekazari handi eta txikien artean; eta 25 urteren buruan alde horiek handituz doaz: nekazari batzuri ongi pagatzen die sistemak, baina besteei zergatik ez? Nekazariak, bere lanaren bidez, aberastasun bat ekartzen dionez sistemari, normala da zerbait ukan dezan. Horrek ez du esan nahi langile bilakatu behar duenik.

A. Lekuona: Ikuspegi oso ekonomikoa dugu askotan, eta ekonomikoa bakarrik; baina nekazaritzari soziologo bezala ere begiratu behar diogu, eta orduan zabalagoa da ikuspegia: kontua ez da honenbeste orduko honenbeste pezeta, baizik konjuntua nolabait parekatzea. Baserritarrak ordu gehiago sartuko ditu, baina ez bi edo hiru halako. Ez du injineruak bezala irabaziko, baina bai tamaina batean. Parekotasuna ez da ehuneko ehunean posible izango, baina % 50ean behintzat izan dadila.

J.M. Zeberio: Ez dakit langileak bere egoera zenbat hobetu duen; baina hainbat urrats egin ditu, hainbat gauza lortu ditu, azken batean elkartu egin delako. Laborariek ere elkartu beharra daukate arazo konkretuak konpontzeko, beren egoera aztertzeko eta zenbait jokabide erabakitzeko. Eta hemen sindikatuen zeregina aipatu behar da. Euskal nekazaritzan oso gaztea da sindikalgintza, ez da-

go langileriak izan duen tradizioaren antzekorik; bestalde, baserri-tarra bakoitza bere etxe inguruan dago eta ez dauka beharbada kondizioarik ere zenbait planteamendu egiteko.

Baina beste problema bat ere badago hemen: nekazari-ekonomia, nolabait esan, subsistentzi ekonomia izan da gehienbat, eta hori batzuek hobeto eramaten dute besteek baino. Batzuek dirubide erosoagoak dituzte, besteek ahulagoak. Nik hor ikusten dut nekazaritzaren *aldaketa*-ren problemarik nagusienetako bat.

A. Lekuona: Langileria beti dago bilduta; baserriak banatuak daude. Langileriak izan du elkartu beharraren kontzientzia; nekazariak ez du oraindik lortu. Kontzientzia hori hartzen duenean izango da beharbada bere buruaren eta bere lurraren jabe. Agian, bor txatu egin beharko da mementu hori, eta orduan liberatu ahal izango da hartutako irakaskuntza hartatik.

P. Iralur: Nekazariak ere izan dute beren elkartasun bat, nekazari gisa. Iparraldean bazen sindikatu handi bat, baina ideologia korporatibista batekin: nekazari guztiak (1.000 Ha dituen bezala 10 Ha dituen) «familia» bakartzat hartzen zituena, interes berak zituztela sinesteraziz. Ideologia horretaz baliatu dira nekazaritzako handiki guztiak: txikien beharrak aitzinean ezar, eta berek sakela bete. Elkartasun bat izan da nekazarien artean, baina ez nekazari txikien artean.

A. Lekuona: Ez da Hegoaldeko kasua. Hemen sindikatua berria da oraindik, eta nekazari handirik ez dago, ez dago hainbesteko desberdintasunik. Desberdintasunak badira, eta arrisku hori badago, halere.

P. Iralur: Zuk urtean 20 tona tomate egiten badituzu eta ondoan dagoenak urtean 2 tona egiten baditu, zu haren ondoan handia zara, Euskal Herrikoa izanda ere.

Jakin: Lehenago aipatu duzue, nekazaritza, sektore bezala, sistema baten barruan eta sistema baten zerbitzuan dagoela. Etorkizunari buruz, galdetzekoa da, zein den irtenbidea: ea sistema horren barruan aldaketak egiterik badagoen, aurrera jarraitzerik badagoen; ala sistema hautsi behar den; eta sistema hausteko ea zer posibilitate dagoen, jende aldetik hain gutxi suposatzen badu.

J.M. Zeberio: Bistan da sistema batean gaudela. Dena dela, nik bereiziko nituzke, batetik, teknikaren aurrerapenak nekazaritzari sortu dizkion aldatu beharrak, eta, bestetik, sistema batek nekazaritzari ezartzen dizkion eramanezinezko problemak. Dena dago

erlazionatua; baina uste dut, teknikaren aurrerapenak aldaketa batzu inposatu dizkiola nekazaritzari eta aldaketa horiek bereganatzeko ahalmenik ez dutenek ez dutela jarraipenik. Eta hori berdin gertatzen da sistema honetan zein beste edozeinetan. Adibide bat jarriko nuke, nekazaritza-munduarekin zerikusirik baduena: garai batean auzo guztietan zeuden eskolak: eskola horietara joaten ziren, hasi 5 urterekin eta 12 edo 13 urte arte; ume asko ziren, irakaskuntzak bazuen bere montajea, eta posible zen eskola horiek eduki eta mantentzea. Baina gaur ezin da. Ez luke burubiderik auzo guztietarako orduko eskola, apaiz, mediku eta albaitekuak (eta beste hainbat gauza, nekazari-munduak galdu dituenak) eskatzen hasteak. Egokitu beharra dago gizarte-aurrerapenak ekarri dituen aldaketetara.

P. Iralur: Ni ez naiz teknologiaren kontra, printzipioz: teknologiaren aurrerapena gauza ona izaten ahal da. Gauza bat galdegiten dut: gizonari, edo langileari, balia dakizkiola teknologia berri horiek. Zenbait gauza aldatu dira, bizitzeko moldeak eta harremanak, etab., eta gauza onak dira. Nik planteatzen dudana da, 25 urte honetan ezarri den teknologia ez dela neutroa izan. Har dezagun Europaren mailan: aurrerapen teknologiko horrek produktibitatea emendarazi du, baina nola? Erresuma pobreetan ahalik eta merkeen hartu eta hemen baliatuz. Gure teknologia, gure lan-moldeak edo gure laborantza aurreratu baldin bada, neurri batean beste batzu urrunago zuzenean ustiatu ditugulako aurreratu da. Teknologia horren aurrerapena ez da neutroa izan, zeren mementu batez bide bat har erazi bait diote: Ameriketara edo Afrikan bazeuden merke lan egiten zutenak, eta haiei kendu diegu; egun, Holandan kanpotik ekarri bazkarekin bazkatzen dituzte kasik behiak... Teknologia berria hori ere bada.

1.2. Lurraren plangintza

Jakin: Itzuliko gara filosofia eta salakuntza orokor horietara. Etorkizunari begira, berehala konpondu beharreko arazo batzu aipatu ditzakegu orain: e.b., lurren plangintza edo plangintzarik eza, lurren gaurko erabilera konkretua, jabegoa, prezioak. Proposa al dezakezue zerbait konkreturik?

K. Enbeita: Nire ustez ez dago ez lurraren ez bestelako plangintzarik; nekazaritzaren politika falta da, hots: zer produzitzea komeni den, zenbat produzitzea komeni den, etab. Bestetik, lurraren

erabilerari legokiokeen legeria egin behar da, baserri-lurra zein den zehaztuko duena, lur hori industriadako edo etxegintzarako erabiltzea mugatuko duena, lurrik onenak zainduko dituen; hau da, baserri-lurraren defentsarako legeria: hori Administrazioari dagokio, eta egin gabe dago.

Gainera, baserriaren jabego-sistema osoarekin lotua dago: baserriar gazteak ez dira luraren jabe; gurasoak 70 edo 80 urte arte ari dira lanean, erretirorik ez dutelako bizi ahal izateko. Gazteek ikusten dute aldatu beharra, berritzeko prest daude; baina ez dute agintzen etxean, eta ezin dute eraberritu. Adin batera helduz gero, berriz, oso nekez has daiteke bat ikasten.

Prezioei buruz, bakar-bakarrik zera: prezioen politika bat erabili du Espainiak, baina oso eskasa: ez dio erantzuten ez baserriaren egiturari, ez heziketari, ez luraren banaketari. Besterik egiten ez duen politikak egindako prezioen politika daukagu. Hori da egoera.

1.2.1. Plangintzaren premia eta zailtasunak

A. Lekuona: Sindikatu mailan askotan aipatu dugu luraren plangintza, baina ez dakit zenbaterainoko sakontasunarekin. Plangintzak egitea hain zaila ez da, ofizioko batentzat. Gero, errealitatean, gauzak askoz ere zailagoak dira: baserriarrak onartuko al du, prest al dago, makurtuko al litzateke, kontra jarriko al litzateke?

Plangintza, bestalde, bi eratakoa izan daiteke: bata, derrigorrez inposatzen dena, jendea sartzera ala kanpoan geratzera behartzen duena (eta hori hemen, gure ekonomi munduan, erabiltzerik ez dago). Beste era bateko plangintzak ere badaude: helburuak zehaztu ondoren, horietara iristeko norabidea markatzen dutenak, jendea behartu ez baizik nolabait gidatzen dutenak. Gurean ere hortik jo beharko litzateke: gure lurak eskasak dira, lur gutxi dugu Euskal Herrian; eta, gutxi denean, taxuz erabili beharra dago gutxi hori, ahal den guztia probetxatuz. Euskal Herriko luraren plangintzaren beharra, garbi ikusten dut nik; nola egin, ez hain garbi. Nolanahi ere, direkzio batzu markatuko litzuzkeen lege baten bidez egin liteke: zehatza izango ez bada ere, marko bat eskaini beharko luke, joera batzu.

J.M. Zeberio: Euskal Herriaren parte handi batean eskasak dugun jeneroa lurra da. Eta edozein ekonomi gizarte, eskasak dituen jeneroei ahalik eta etekinik onena ateratzen saiatzen da. K.A.ko lu-

rraldeetan jende asko bizi gara, baserritarrak asko dira eta lur gutxi daukagu. Horregatik, lurraren plangintza bat egin beharra dago. Ari dira aurrerapauso batzu ematen; gaur-gaurkoz gehiago kezkatzen dira udaletxeak lurren banaketaz, erabileraz, etekinik onena ateratzeaz.

Baina, nire ustez, ezinezko helburua da plangintza zehatz eta erabatekoa, hau da: metro karratu bakoitzaren erabilera konkretua erabakitzea, kasu oso ezberdinak bait daude: lur bakoitza dago pertsona konkretu bati eta egoera konkretu bati lotua. Baserritar batek bere baserria handitzeko gogoia izan dezake ala ez, eta lurren bat salgai aurkitu ala ez, eta hura erosteko dirurik izan ala ez... Batek baratza lant dezake edo, beste irtenbiderik izan ez, eta pinua jarri behar du... Saio bat egin beharra daukagu. Baina gaur-gaurkoz, erabateko sozializazioa ez bada ezartzen (eta badirudi, herri honen gogoia, oraingoz behintzat, ez doala hortik), erabateko plangintza hori amets bat izan liteke zenbait jenderentzat, baina niretzat amets utopiko samarra.

K. Enbeita: Plangintza derrigorrezkoa da, ez utopia... Neurriren bat derrigorrez hartu behar du Administrazioak, arrazoi honegatik: 60. eta 70. hamarkadetako industrigintzaren eta etxegintzaren *boom* hartan, baserri-lur guztiak industri lurraren prezioan jarri ziren. Baserritarrak ezin du pagatu baserri-lanerako lurra prezio horretan. Eta Administrazioak erabaki behar du halako lurrak, beren kondizioagatik eta, baserri-lur izango direla eta han ez dela industri programaziorik edo etxegintzarakorik egingo.

J.M. Zeberio: Lurraren erabilera eta plangintza errazten duten faktoreak badaude, baina baita guztiz galerazten dutenak ere. Adibidez, hor daukagu «lanegun partzialeko nekazaritza» hori, urte askotan kontsolidatua eta sendotua (eta hala geratuko da, nire ustez): nekazaritza-mota hori da lurraren plangintzaren eta erabileraren kontrakorik handienetako bat; hor ez dago baserritar-profesionaltasun osorik, baina nork esan diezaioke bere dirubidea beste lan batean duen nekazariari, beste lan hori utzi egin behar duela? Eta beste mila faktore daude: herentzi problemak, estrukturazioarenak, etab.

Gero eta lege zorrotzagoak daude, lurgintzarako izendaturiko lurrak bestetan ez erabiltzeko. Baina ate hori ere ezin da erabat itxi. Herri batzutan bide hori guztiz itxi nahian hasi direnean, baserritarrak berak izan dira plan horren kontra altxa diren lehenak, zeren, adibidez, beren semearentzat etxetxo bat egin nahi izan dutenean, irtenbiderik gabe aurkitu bait dira. Nahiz eta lege zorro-

tzak egon, kontratista batek edo lurrari beste erabilera bat eman nahi dion batek eskaintza interesgarri bat egiten badio baserritarri, honek ahalik eta dirurik gehiena ateratzean pentsatuko du, eta ez lurren plangintza eta erabileretan... Erostenaren aurrean, edozein lurjabe bezala da baserritarra ere.

A. Lekuona: Nolanahi ere, bereizi egin behar lirateke nekazaritza-lurrak eta besteak, eta bakoitzak bere prezioa izan behar luke (eta hau hobe litzateke herentzia banatu beharreko unean ere). Badago bere lurretan berak agintzen duela dioenik, eta, saldu nahi izango balitu, saldu egingo litzukeela. Kasu desberdin konkretu asko dago; baina legea ez litzateke horien arabera egin behar.

J.M. Zeberio: Legeak egin litezke, eta egingo dira denborarekin. Zertarako? Adibidez, baserriak osorik mantentzeko eta handiagotzeko egiten diren ahaleginei abantailaren batzu eskaini behar litzazkieke; eta baserri bat zatitzen denean, nolabaiteko zigorra ezarri behar litzateke; horrelako zerbait behar da gure baserria babesteko, erraza ez bada ere.

1.2.2. Lurraren jabegoa eta erabilera

P. Ivalur: Arazo oinarrizko bat ukitu da hor. Lurra norena da, nor da lurraren jabe? Orain arte Euskal Herrian nekazaria bere lurraren jabe da, kasu gehienetan. Baina Iparraldean, mendialdean batez ere, hiru etxaldetarik bat segidarik gabe da; luzagabe libre izanen da norbaitentzat lur bat, lan-tresna bat, kapital bat. Nekazaritza bizi nahi duenak erosi egin behar ote du lur hori, ala ez? Edo, erosituz, lurraren jabe bilakatzen da, eta, beraz, nahi duena egiten ahal du; edo beste modu batera jokatzeko has gaitzke: gizartea bilaka dadila lurraren jabe. Horrela, nekazariak ez du lurraren jabetasunaren beharrik nekazari izateko; eta, beraz, lan-tresna bat dauka, baina jabetasunik ez duenez, ez da espekulaziorik eta izanen. Hainbeste urtez eskuz aldatu den etxaldea, denbora baten buruan, bilakatzen ahal da elkarte baten lur.

K. Enbeita: Gure azken helburura joan zara zu aurretik.

P. Ivalur: Saioak baditugu eginak horri buruz: elkarte batzu eratu dira; elkarteak erosten du lur bat, kide bakoitzak parte bana ordaintzen duelarik; eta erreñtan ematen dio lur hori nekazariari: esan nahi bait da, jabea ez da pertsona bat, baizik elkarte bat. Baina ez da posible lur guztiak erostea, elkarteak ez bait du dirurik aski denek erosteko. Beraz, beharko da lege bat pentsatu.

A. *Lekuona*: Lege aldetik zer dago Frantzian?

P. *Iralur*: Sozialistak agintera iristean, «groupement foncier» direlakoak sortu ziren; bide horretatik, guk «g.f. agricole» antolatutako dugu: bakoitzak kapitalaren parte bat jartzen duelarik, denen artean erosten da... Gero beste lege bat agertu da, «Office foncier» deitua: nonbait lur bat saltzen zelarik, eta zuk baldin bazenuen modurik lurra erosteko, erosten zenuen, eta lurraren jabe bilakatzeko zinen; baina ez bazenuen dirurik, Estatuak erosten zuen lur hura, eta Estatuak zuri errentan ematen zizun.

Hor bada arazo bat: euskal kulturaren bada berezitasun bat, bestetan ez dena: etxeari, lurrari lotuak daude historia eta familia.

A. *Lekuona*: Egia: guretzat baserria ez da lan-tokia bakarrik, baizik historia bat, familia bat.

K. *Enbeita*: Lurrek, gainera, badute beren izena, eta izen horrek adierazten du gehienetan lurraren kalitatea, lurraren situazioa.

Baserri-lurra babesteko honelatsuko lege bat egin beharko litzatekeela planteatu izan dut inoiz: lur bat salgai jartzean, baserri bezala enplegatzeko prest dagoenari saldu beharko litzaikeela; erostunik ez balego, Administrazioak erosi beharko luke, baserri-tarrari uzteko. Pello urrunago joan da, eta ados nago.

P. *Iralur*: Printzipio bera da.

J.M. *Zeberio*: Printzipioen mailan luzaz mintza gaitezke, eta ez nago horrela hitzegitearen kontra. Baina formulazio teorikoetatik errealitateara jaitsi nahi nuke. Duela 15 bat urte egin zen azterketa baten arabera, euskal baserrietan adineko jende asko zegoen seme-alabarik gabe baserri-rako, eta mutilzahar eta neskazahar asko. Baserri horiei ez zitzaion etorkizunik ikusten, eta irtenbide bat bilatu behar zitzaiela zen ondorioa. Gaur gertatzen dena da, inor gutxi dagoela prest bere baserriak eman diezaizkiokeen eskubideei uko egiteko; berak erabili nahi ez baditu, gehienez ere erabiltzen utzi-ko ditu bere lurak, baina bere eskubideak galdu gabe. Jende askok ez du alor horrek eman diezaiokeen etekinaren edo, salduta, eman diezaiokeen diruaren beharrik; hala ere ez du utzi nahi. Gero eta baserri gehiago ikusten da, itxiturak egin eta ardiak edo zaldiak edo okelatarako behiak jartzen. Horrelako egoera baten aurrean esan al dezake Administrazioak gaizki erabilia dagoela eta beste erabilera bat eman behar zaiola?

P. *Iralur*: Badugu orain lege berri bat: lur bat ez bada baliatzen, alferrean utzia bada, *landugabe* («inculte») deklaritzen da.

J.M. Zeberio: Baina nork neurtzen du hori, eta zenbat aplikatu da lege hori?

P. Iralur: Administrazioak aplikatu behar luke, baina ez du aplikatzen. Oso zaila da.

A. Lekuona: Hala ere bide batzu behintzat markatu beharko lirake: Pellok aipatu dituen elkarteak, adibidez: libre dauden lurrak erosi eta baserrietara bihurtzen dituztenak. Horrelakorik ez daukagu hemen. Kasu gutxi konponduko lituzke, agian; baina gaur gauden bezala ez da deus konpontzen, ez bait dago ez legerik ez markorik.

J.M. Zeberio: Puntu honetan pesimista naiz; eta etorkizunaz, areago. Lehen, maiorazgoaren sistemari esker, osorik uzten zitzaion etxaldea ondokoari; gaur, ordea, maiorazgoaren sistema krisian dago; eta lurra ez da jadanik lan-tresna bat, kapital bat baizik. Eta, herentzia banatzerakoan, edozein kapital bezala banatzen da lurra ere; eta baserri-jabeak gutxitzen ez baino ugaritzen ari dira Euskal Herrian.

Borondaterik dagoen lekuetan badaude hori konpontzeko formulak, eta askok ikusten dute horretan dagoela beren baserriaren segida.

A. Lekuona: Beldur diot nik borondatean gehiegi fidatzeari, ez bait da beti izaten. Horregatik, koadro batzu, lege batzu behar dira.

J.M. Zeberio: Zerbait egingo da. Baina, azken finean, pertsona batek erabili behar du lurra, bere heziketa, bere adina, bere ingurua, bere ahalmenak eta bere ezinak dituen pertsona batek. Hala ere, orientabide jeneral batzu eman beharra dago. Baina oso nekeza da Administrazioetik guttiz zehaztea arazo hau.

P. Iralur: Orain arte, nekazaritza eta lurraren jabeagoa elkarrekin zihoazen, elkarri lotuak ziren. Gerora, ordea, ez da hala segitzen ahaliko; beharko dira bi partetan ezarri jabetasuna eta nekazaritza: nekazari izan, jabetasuna baitezpada ukan gabe.

K. Enbeita: Jabeagoaren problema, ez da hori niretzat. Baizik, gazteak ez daukala baserrian bizitzerik, ez aldatzerik, edo aurrerapenaren bideetan abiatzerik. Aita zaharra bizi den artean, bera da jaun eta jabe, eta gaztea ez da nor planteamendu berriak egiteko.

A. Lekuona: Nik, hala ere, garrantzi handia ematen diet lehen aipatu ditugunak bezalako legeei: ikusi egin beharko genituzke hur-

bildik, eta hemen nola eta zein neurritan aplika daitezkeen aztertu. Garrantzi handia emango nioke, baita, gure sistema zaharrari, *pro indiviso* deituari, baserriak osorik jarri dezan.

P. Iralur: Badira 25 urte SAFER («Société d'Aménagement Foncier et d'Établissement Rural») elkarteak badirela: baina 100 Ha saltzen direlarik, zenbat ukitzen ditu SAFERek? Biziki gutxi! Tresna bat da, baina ahalik gabea; eta lurrak betiko espekulazioan jarraitzen du: lurra ondasun bat denez, ondasunaren legea segitzen du.

A. Lekuona: Lege frantsesean badago beste puntu bat horri lotua: baserrian segitzen duen semeari edo alabari soldata bat aitortzen dio legeak, etxean dagoen bitartean; eta partiketa-mementua etortzean (etxetik irten behar denean, edo herentzi partiketa egin behar denean) kontutan hartzen da hori. Laguntza txikia da, nahi bada, baina egoera larria denean, ez da laguntza txikirik.

1.3. Ustiapenen egituraketa

Jakin: Nekazaria eta lurrak ikusi ondoren, ustiapena aztertzeraz pasa gaitezke: zein egoeratan aurkitzen den, zein problema dituen, zer aldatu beharko litzatekeen.

J.M. Zeberio: Bi puntu aipatuko ditut. Lehenengo: baserriaren egituraren problema, iniziatiba pribatuaren bitartez arin liteke pixka bat: posibilitateak dituen eta prest dagoen baserriarriari ahalik eta laguntzarik onenak eskaini behar zaizkio, ahalik eta erraztasunik handienak. Eta bigarren: nekazaritzak eskaintza batzu egiten dizkio gizarteari eta gizarteak ordaindu egin behar dizkio eskaintza horiek: guztiz beharrezko dituen janariak produzitzen dizkio, eta naturaren orekari iraun erazten dio, nekazaritzarik ez balego erabat desegingo litzatekeen orekari. Administrazioak itzuli egin behar dizkio nolabait zerbitzu horiek: baserriarriari azpiegiturak edo diru-laguntzak edo kredituak besteei ez bezalako kondiziotan ematen bazaizkio, horregatik da: gizarte osoarentzat egiten duena ordaintzen zaio.

A. Lekuona: Argi dago baserriaren neurriak handitu beharra, produktioa ugartu beharra, eta, horretarako, lurrak liberatu beharra, Europa osoan bezala. Egiten ez bada, baserriak ez du etorkizunik. Baina ez genituzke ahaztu behar horrek sortzen dituen gizarte-arazoak, baserri bakoitzean sortuko dituenak.

P. Iralur: Urteak joanago eta nekazari-kopurua txikiago. Nekazari gutxiagok lehen baino biziki gehiago sortzen dute, eta, horrela segituz, erresuma baten bizierazteko, nekazari gutxiago aski izango da. Baina oraingo Europari begiratzen badiogu, ikusiko dugu nekazaritza txikia ezin daitekeela bizi; nekazaritza txikirik ez dela izanena, eta, beraz, Euskal Herrian ez dela izanena nekazaritzarik, edo biziki gutxi bakarrik. Legeak eta plangintzak egin beharko dira Europa mailan.

Baina salneurriak dira osoki beste gisa batera ikusi beharrekoak. Nekazariak antzeko premiak dituzte beren familiak mantentzeko, baina lan-tresna ezberdinak. Behar da pentsatu sistema bat, nekazari bakoitzari bizitzeko minimoa garantizatuko diona. Horregatik, prezioentzat behar da beste zerbait pentsatu; bestela, 20 urteren buruan porrot egingo dute baserri txiki guztiek.

K. Enbeita: Horrek bi alderdi ditu: zergatik iraun du gaur arte baserriak, zergatik iraun du egitura honekin, edo zergatik izan du egitura hori? Kultura baten eta gizarte baten ikuspegiak daude hor. Gero, baserriak handiagoa izan behar duela esatean, zeinekin konparatzen da? Konpetitibitateak behartu gaitu handiago izatera... Gu ere hezi gaituen sistema horren barruan, irtenbide bakarra ikusi dugu guk: baserrian sobera den jendea baserriak berak enplegatu behar badu, bere gain har ditzala komertzializazioa eta transformazioa, horiek besteren esku utzi beharrean. Baina hemen tartean dago gizarte osoak duen filosofia edo pentsaera.

Konpetitibitateak eskakizun batzu egin dizkigu, eta irtenbide bila hasi beharra daukagu: baratza lantzeraz jo, gaur produzitzen ez ditugun produktu batzu sor ditzakegun ikusi, etab. Gaurko produktzioan bizibidea ateratzerik ez duenari aldaketarako heziketa edo laguntza eskaini behar zaio, bide bat ireki beharko zaio.

J.M. Zeberio: Askorentzat ofizioz erabat aldatzea izango da hori.

2. European sartzea

Jakin: European sartzea azkenean zer da? Alde on eta txarrak. Hartu behar diren neurriak, atetan gaudenez.

2.1. Europako laborantza krisian

P. Iralur: Duela 25 urte sortu zen laborantzari buruzko politika krisian da; eta krisi horri buruz ez du nehork erantzunik. Hori

gauza berria da. Duela 25 urte bazen aterabiderik: mekanizazioa, modernizazioa, etab. Hogeitabost urteren buruan ohartu gara, okerra zela politika hura. Muga batera heldua da sistema hori, eta ezin eman diezaiokegu erantzun globalik segidan eta bapatean: egungo krisia ez bait da herri edo estatu baten problema, mundua den sistema baten krisia baizik; eta horren irtenbidea ez dauka nekazari euskaldunak.

J.M. Zeberio: Zer da krisia? Bi hitzetan esanda: Europak eduki duen politika produktibitatea izan da batipat: produktibitatea handitzeko, ustiapen-neurriak handitzea, margina handiagoak lortzea, nekazariak sarrera minimo batzu izan ditzaten. Amaierarik gabeko lasterketa da: gaur 20 behar badira, bihar 25 beharko dira, eta etzi 40. Eta lasterketa horrek ezin du jarraitu: Europak ez daki zer egin bere produktu batzurekin; moztu beharra dauka, ez bait daki esnearekin zer egin, edo haragiarekin edo ardoarekin zer egin. Eta muga batzu jartzen hasi da, gutxiago sor dadin: produkzio globala ezin da gehitu; eta, beraz, laborariaren diru-sarbideak murriztuz doaz. Gero eta estuagoa da egoera. Diagnostiko zuzena al da hau?

P. Iralur: Ez nago ados. Hor badira bi gauza: batetik, Europak eraman duen politika adibide batekin agertuko nuke: batek 50.000 litro esne sortzen baditu, denentzat du laguntza; besteak 100.000 sortzen baditu, denentzat du oraino laguntza. Hots: handia handi gisa lagundu da, eta gehiago handitu da; txikiak laguntza gutxiago izan du, eta txikiagotuz joan da. Hori da European egin den politika.

Bestalde, sistemaren krisia dago. Zifra batzu emango ditut: 1950etik 1972ra, industri langileen produktibitatea 2,7z biderkatu da, eta horretarako behar zen langileko kapitala 2,4ez. Laborantzan, denbora berean, 3,75ez biderkatu da produktibitatea, baina langileko kapitala 5,5ez. Bestela esan: 1950ean lanpostu baterako 100 behar zelarik nekazaritzan, 155 behar zen 22 urteren buruan. Kapitalaren errentabilitatea laborantzan txikiagoa zela ikusiz, industri nagüsiek ez dute dirurik ezarri laborantzan, diru horrek ez bait zien interesik ekarriko; eta horregatik diete nekazariei esan «zu zara zeure buruaren jabe, zu zara nagusi eta zeure gain har itzazu arrisku horiek denak». Horrela irau du nekazaritzak orain arte. Baina ezin du horrela segitu. Hori da problema: Europako laborantza krisian dago.

Europako laborantza-legeetan, baziren zenbait gauza lagunduak zirenak: esnea, azukrea, artoa, bihia eta olioia: edozein erresuma egiten zituela eta edozein kantitatetan, lagunduak izan dira.

Eta egun juxtu esnea da sobera. Gehien lagundu izan direnek sortzen dute gaur problemarik handiena. Hain zuzen, industriari etekinik onena ekartzen zioten produktuak lagundu dira. Frantzian, kasurako, % 35etik 37rako balioa dute produktu horiek, eta FEOGAren (Fond Européen d'Orientation et Garantie Agricoles) % 60 hartzen dute. Badira beste gauzak artetan bakarrik lagunduak (haragia, fruta, lekariak, ardoa eta tabakoa): balioaren % 36 eta 38ren artean egin dute, eta % 29 bakarrik kostatu dira. Horrela, erresuma guztiek ez dute laguntza bera ukan; adibidez, Danimarkaren laborari-produkzioaren % 85etik 88ra FEOGAk lagundua da; eta Italiakoaren % 47 bakarrik. Laguntzak mugarik gabe eta edozein produkzioerentzat izan bait dira.

Europari laborari txikiak asko kostatzen zaizkiola esatea ez da egia: ezen laboraria handiago eta gehiago kostatzen bait zaio; laboraria txikiago eta gutxiago; eta mendiko laboraria, hura da gutxiarik kostatzen zaiona.

2.2. Alde on eta txarrak

Jakin: Sistema horretan sartzera goaz gu. Horrek zer alde on eta zer alde txar ditu hemengo nekazaritzarentzat?

J.M. Zeberio: Lehenengo, oso kezkarria da krisian dagoen sistema batean sartzea. Eta bigarren, gaur Europan krisirik handienean dauden produktuen produzitzaile gara gu, konkretuki esne-produzitzaile.

Nik abantaila bat ikusten diot Europan sartzeari: Europan sartzeari neurri batzuetan hartzera eragingo digu, bestela ere egin beharrik dauzkagun aldatzeko azkartzeri. Gure egiturak hobetzeko laguntzak jaso ditzakegu, gainera, Europatik.

A. Lekuona: Nolanahi ere, krisia ez dago Europan bakarrik: gure artean ere badago. Ez daukagu sobera esne, baina ez gabiltza urrutiti. Europan sartzeari, areagotu egingo da krisi hori.

J.M. Zeberio: Arlo batzutan irabazi egingo dugu: egurrean, Europan eskas diren gauzetan, produktu minoritario baina kalitatekoetan,... Ez daukagu borroka egiteko indar handirik; eta gure arriskua da, gure produktuak ezin saldu izatea, edo prezioak gutxitzea.

K. Enbeita: Zuk abantailatzat ematen zenuen egin behar ditugun aldaketak azkartzera behartzea. Nik galdetu egiten dut: European sartu ala ez, gure egiturak nahitaez aldatu behar ditugu; European sartzeak behartu egin dezake Administrazioa aldaketa batzu azkartzera; baina nola egingo da: gure erara ala Europeanen erara, krisian eta sistema baten barruan dagoen Europeanen erara?

Jakin: Konkretatuz: zer izango litzateke Europeanen erara aldatzea, eta gure erara aldatzea zer?

J.M. Zeberio: Ni ez naiz filosofiarian sartuko. Zein etorkizun daukagun? Esnearen enxenplura itzuliz: esnea merke eta ondo produzitu behar da eta, gainera, esne hori saltzeko posibilitatea eduki. Nahi badugu eta ez badugu, sistema batean gaude; eta dendara joaten garenean, prezioari eta kalitateari begiratzen diogu, kontsumitzaile arrunt bezala jokatzeko dugu, nahiz eta bakar batzu egon daitezkeen nongoa eta norena den begiratzen dutenak. Hor beste indar bat, publizitatea da. Gure kezkarik handienetakoa da gure produktuak egoki aurkeztea, European sartzeko.

A. Lekuona: Bi produkzio-mota daude: bata, produkzio handia da, asko saltzen diren gauzeta eta merkatu handia behar dutenena (esnearena, adibidez); bestea, kantitate txikiko eta kalitatezko produktua da. Ikusi beharko litzateke zerk duen bertan merkatua, zer saltzen den bertan, eta hori indartu beharko litzateke.

P. Iralur: Egun esnearen enxenplua da argiena: orain arte esnari esker bizi izan dira milaka etxalde. Baina, egun eta European, kalkulatu daiteke zenbat esne behar den; eta esne hori produzitu ahal da, eman dezagun, edo milioi bat nekazarirekin edo 200.000 nekazarirekin. Eta hau hautu politikoa da, zeren deliberatzen ahal dute milioi bat behar dela, edo 200.000 aski dela. Orain arteko hautuekin zera gertatzen da: Frantzia orain 400.000 jende bizi dira esnearen bidez, eta, kuota horiek direla medio, zenbait urteren buruan 150.000 jende aski izango da esnearen hornitzeko. Eta gauza bera gertatzen da beste produktu guztiekin. Janariak sortzeko behar orduak ez dira gehituz joanen European, eta gero eta nekazari gutxiago aski izango da.

Eta beste arazo bat: Europako gobernuek zer ahalmen dute egun? Ekonomian ez dute ia deus agintzen; multinazionalak agintzen dute. Horiek dituzte zinezko giderrak eskutan. Eta bihar multinazional batek nahi baldin badu barazkiak hemen egin ordez Afrikako zolan egin, Afrikako zolan egiten ahalko ditu, jadanik egiten dituen bezala.

Europarena ez da Frantziaren edo Espainiaren edo Portugalen problema; baizik ekonomia baten problema, mundu mailan den ekonomia baten problema, eta multinazionalak nahi dutena egiten dutela.

K. Enbeita: Horregatik nioen ez garela gu sartuko Europan; Europa edo multinazionalak sartuko direla baizik hemen. Sartuak daude, baina mugarik gabe, frontierarik gabe sartuko dira...

J.M. Zeberio: Indarra duenak indarra du, egia. Baina ingurune horretan bizi gara, eta horretan saiatu behar dugu denok. Nik ezin dut onartu hori dena desegin arte ez daukagula deus egiterik.

Jakin: Posibilismoaren barruan, zer egin daiteke?

P. Iralur: Sindikatuen bidez onarterazten ahal da milioi bat jende bizi behar duela esnetik, eta ez 200.000 jende: hori borrokaren bidez egiten ahal da, zeren borondate politikoaren arazoa bait da. Aski da ordaintzeko erak aldatzea, lege batzu eginez, muga batzu ezarriz, laborari txikiak ere bere lekua izan dezan: asko sortzen duenari gutxiago sorteraziz, gutxiagorekin bizi badaiteke, eta falta dena txikiari egiten utziz...

Aipatu da, egun bi nekazaritza-mota daudela, bi eredu: batzu produktibitate handian ari dira, besteak laborantza txikian: kostuak egin ahala urrituz, sobera mekanizatu gabe, bere produktuz ahalik hobekien baliatuz, hirian berean salduz, «zirkuitu labur» horietan. Bigarren eredu hau ari da esperientzia batzu egiten, bide berriak irekitzen, nekazariak berak salduz eta. Baina zenbat laborarentzat da hor lekuri?

J.M. Zeberio: Badago hemen ere filosofia hori, bada hori defendatzen duen jenderik. Baserritar bati edo talde bati, bakarka hartuta, interesa dakiok bide hori; baina orokorki, baserritar guztientzat, baliozkoa al da irtenbide hori?

P. Iralur: Ez da egiten ahal. Jendea kontzentratua dago hirietan: Bilbon badira 600.000 eta ez dakit zenbat pertsona. Hiriak hor daude, eta ez da posible egunean 600.000 litro esne eramatea etxez etxe.

J.M. Zeberio: Ezin har dezake bide hori gure Herriko nekazari-tzak: bide hori hartuz, marginaziora kondentatzen da nekazaritza.

P. Iralur: Ez da derrigor marginazioko nekazaritza izango; beste bat, desberdina, izan daiteke.

A. Lekuona: Euskadin bertan marginala da nekazaria, eta Europan, berriz, ez da ikusi ere egingo Euskal Herriko nekazaritza.

Baina bestetara noa, Europako analisiarekin segitzera: produkzio gehiegizko eta soberakoak hor daude, eta erabaki batzu hartu dituzte, guretzat kaltegarri izan daitezkeen erabakiak. Hala eta guztiz ere, kuotak jartzeak esan nahi du, berak ere konturatzen direla hartutako bidea ez dela ona, eta mugak jarri behar zaizkiola; eta produkzioaren muga jarri dute. Horrek dituen efektu positiboak ere ikusi behar ditugu. Europak berak ere hartu beharko ditu erabaki politiko batzu eta ezin utziko die indar ekonomikoiei lehen bezala lan egiten.

Pellok aipatzen zituen prezio desberdinak, berriz, nik ez ditut argi ikusten, Europa dagoen bezala egonda; hau da: zaila izango da 100.000 litro produzitzen dituzten baserrientzat prezio bat ezartzea, eta 100.000tik milioi-erdira produzitzen dituztenentzat beste bat, eta beste bat hortik gora produzitzen dituztenentzat... Baina agian posible litzateke alderantzizkoa: subentzio desberdinen bidez pixka bat orekatzea.

P. Iralur: Gauza bera da. Konparazio baterako: esne gutxi egiten duenari, eman dezagun, 300 libera ordaintzen bazaio eta anitz egiten duenari 100 libera, arteko hori norbaitek eman behar du, kaxa handi batek —FEOGak— ordaindu behar du. Horrela egiten du Norvegiak.

Beste bide bat ere ari da sortzen: orain arte artoarekin eta industriari erositako anitz gauzarekin produzitzen zen esnea; orain, etxean berean egin gauzekin produzitu nahi da: industriari deus erosi gabe edo ahalik eta gutxien erosiz: autonomo bihurtuz. Baina «agro-alimentaire» horiek ez dituzte bide horiek onartzen, ez bait diote aski gauza saltzen laborantzari.

J.M. Zeberio: Soja eta artoa eta beste erabiltzen dituzten multinazionalak ez zaie komeni ganadularitza industrialak moztea, kanpoko produktuen bitartez produzitzen den hori moztea.

P. Iralur: Europaren krisia bi moldetara ikus daiteke: edo katastrofe bezala, edo aukera bezala. Ikusiz sistema muga batera heldua dela eta ez duela irtenbiderik, eta lehengo bideak hartzen dituela orain arteko interesak zaintzeko, badugu benturaz aukera bat: badakigu mugak non diren, eta bide berri batzu sortera ditzakegu Euskal Herrian.

2.3. Hartu beharreko neurriak

Jakin: Zeintzu dira European sartzean edo sartzeko hartu beharreko neurriak? Lehen aipatu diren esperientzia konkretu nolabait bazterreko horiek, filosofia eta pentsamendu berria adierazten dutenak jarraitu behar dira, ala EEEren korrante nagusian sartu behar dugu, hor irentsiak izateko arriskuarekin? Zein aukera dago?

P. Iralur: Guk ez dugu aski botere mekanika hori hausteko egun batetik bestera. Ahal dena salbatu behar dugu, esnea gisa batean paga dezaten eta: zerbaixka kendu sistema horri. Eta, momentu berean, beste planteamendu bati buruz lan egin. Biak batean. Nik ez dut erantzunik oraino. Orain arte pentsatu dugu eskolan ikasitakoa: esne gehiago egin, lur gehiago erosi, mekanizatu. Eta orain ikusten dugu horrek ez duela balio. Beste metodo batekin pentsatu behar ditugu gauzak. Baina hori egiteko dago.

J.M. Zeberio: Gaur-gaurkoz eskaintzen dena ez da ona, baina beharbada ez dago beste posibilitaterik. Europak ezartzen dituen baldintzetan borrokatu behar da, eta baldintzok ezagunak ditugu: produktibitatea, batez ere. Produktibitatea emendatzea ez da nahikoa gertatu nekazaritzaren etorkizuna argitzeko. Baina galdera da: hori gabe posible al da zerbait?

P. Iralur: Ez: nahi ala ez, hori hor dago. Guk ez dugu pentsatzen goizetik gauera beste egitura bat sorteraz daitekeenik. Esperantza bakarra dugu: baserriak hustutzen ari dira, laborantza emeki-eme ki hiltzera doa; hots: Euskal Herriko ekonomiaren parte bat hiltzera doa. Horregatik, beste planteamendu batzu bultzatuz, dinamika bat sortzen da: orain arte laborantzari buruzko kontuak bestek pentsatzen zituen; beste dinamika hori sortuz, laboraria bera arduratzen da bere biziaz. Dinamika horrek izanen du ondorioirik bai ekonomian, bai gizartean, bai kulturean, bai bestetan: beste Euskal Herri bat sortuko da.

J.M. Zeberio: Zein da bide hori?

P. Iralur: Jendeak bere bizia bere eskuetan hartzea: hori da niretzat dinamikarik handiena.

J.M. Zeberio: Ados nago. Europari begira sortzen zaizkigun problemak, edo Europari begiratu gabe sortzen zaizkigunak, ez dakit nork konponduko dituela pentsatzen da askotan. Egia: norberak planteatu beharko ditu alternatibak, bakarka nahiz elkarteka. Baina gaur arte sortu den dinamika (eta hemen dinamikarik egon da)

produktibitatearena da, eta egiturak ahal den neurrian berdinuz joatea. Ez da beste dinamikarik sortu, nik dakidala. Eta gauden egoeran ez dakit posible den beste dinamikarik sortzea.

P. Iralur: Modernizazioa eta produktibitatea, jainkotu egin ditu sistemak. Orain beste zerbaiti lotzen bagatzaizkio, zerbait berri hori ez jainkotzeari kaso egin behar zaio. Iparraldean badira esperientzia batzu axurien inguruan: kooperatiba txiki batzu daude axurien sortzeko eta saltzeko: nekazariak lehenik elkartzen dira, eztabaidatzen dute saltzailearekin, salmenta beren eskuetan hartuz... Kooperatiba horiek ez dira jainkotu behar: beren mugak izanen dituzte, zenbait urteren buruan beste beharrak sortuko dituzte. Ikusten dugu: kooperatibak bere beharren arabera egin nahi du garapena, ez nekazarien arabera.

K. Enbeita: Problema sakona dago hemen: Europan sartzeak dakartzan arazoak, aztertzen ari garen hauek, analisi honekin ikus daitezkeenak, ikusten al ditu nekazariak? Nork erakutsi behar dizkio? Administrazioak, negoziatzen ari denak eta negoziatzen ari ez den gureak, ikusten al ditu? Gure egoeraz, aldatu behar dugun azpiegituraz etab. egiten diren ikerketak sistema horren barruan egiten dira. Orduan ezin erakutsi ahal izango dugu irtenbide berriak behar direla. Baserritarrari erakutsi behar zaio Europa ez dela bakarrik kultura desberdina edo produkzio desberdina; beste ekonomi sistema dela... Hori egiteko eskatu behar diogu Administrazioari.

J.M. Zeberio: Zuek egiten duzuen planteamenduari huts bat ikusten diot, eta, huts hori betetzen ez den artean, ez dut ikusten inongo irtenbiderik: dinamika bat kritikatzan duzue, izugarrizko problemak eta hutsuneak dituen dinamika bat. Baina alternatibarik ezin da konkretatu oraindik: ez dakit badagoen, pentsatzen dut norbaiten buruan egon daitekeela; eta, baldin balego ere, ez da inor ausartzen plazara ateratzen, beldur delako edo. Eta alternatibarik ez dagoenean, jendeak dagoenari heltzen dio, nahiz ez gustatu.

P. Iralur: Kuota horiekin blokeatua den nekazariak ez du diskurtso handien beharrik: ikusten du Europan blokeatua dela, ez dela gehiago esnerik egiten ahal; eta ikusten du gure kritika zuzena dela. Guk ez dugu alternatibarik proposatzen, baina besteek ere ez, blokeatua izatea besterik.

K. Enbeita: Sistemaren amaiera ikusten da. Eta azkena ikusteak berak ekarriko du beste sistema bat, sistema politiko baten amaierak beste bat ekarri duen bezala.

P. Iralur: Euskal Herriarentzat gauza bat osoki berria ikusten dut: orain arte batzuk Parisera begira ginen eta besteak Madrilerara. Orain dinamika berri bat sortzen ahal da, dinamika bat bera Ipar-eta Hegoaldean, azterketa batzu elkarrekin egiteko eta. Ondorioak hemendik 10, 15, 20 urtetara izango ditu: ondotik heldu diren gazteen izpiritua ez bait da osoki gurea bezalakoa.

A. Lekuona: Europa berria egin beharra dago, lehengoak pot egin bait du neurri batean. Alternatibak eskaintzea ez da beti erraza, baina hainbat puntu seinala daitezke. Exenplu bezala: 10.000 litro esneko behia behar da, 11.000koa ala 9.000koa? ala ez ote da hobe 5 milako bi? Dinamika berdintsuan jarraituko dugu, baina ez da berbera: bata pentsu kontzentratu askoren bidea hartzea da eta bestea gutxiagorena. Ez da alternatiba, baizik ikusmolde berria. Horretan zer edo zer egin liteke. Europak, dena dela, nekazaritza gutxi edo gehiago subentzionatzera jo beharko du, eta hori ere aukera bat izan liteke guretzat. Gure gizarteari, ez bakarrik gobernuari, eskatu behar zaio Euskal Herriko nekazaritzari laguntza bereziak ematea; eta hori, Joxe Marik ongi esan duenez, ez da inolako injustizia, baizik gizarteak lehen hartu diona nolabait itzultzea.

3. Erakundeen eginkizuna eta jokamoldea

Jakin: Pixka bat konkretatzea nahiko genukē. Gizartea aipatu da; badaude erakunde batzu, gizarte hori nolabait moldatzen eta ordezkatzeko dutenak: Eusko Jaurlaritza, Diputazioak, horien Sailak, Ganbarak, eta beste; eta Sindikatuak. Horien gaurko jokabidea zein da, eta gerora begira ze jokabide hartu beharko lukete? Kritikak, iradokizunak, proposamen berriak egiteko aukera da.

K. Enbeita: Madrilo Gobernu aldea batera utzita ere (eta ez dago aparte), Jaurlaritza, Diputazio eta gainerakoen egitekoen ondoan, Sindikatuen lana dago, eskatu behar direnak eskatzeko eta, bide batez, baserritarra hezitzeko. Baina, lehen esandakoa berriz azpimarratuko nuke: sistemaren barruan zein kanpoan, Europan sartu zein ez, egin beharreko plan batzu egin gabe daude, eta azkar eta ondo pentsatuta egin behar dira.

Baserritarrari dagokionez, heziketarako giroa sortu behar da, problema guztiok aztertzeko, kontzientzia hartzeko giroa. Hori

gabe, mekaniko huts gertatzen gara baserriko gure langintzan: mekaniko huts bagara, sistemak irentsiko gaitu, eta, sistemak ez irenseteko, geure buruaren jabe izan behar dugu, eta nondik nora gabiltzan jakin. Eta hori denon artean egin beharra daukagu, bakoitzari tokatzen zaion partean: Administrazioak legeen bidez, edo plan bat eginez eta plan hori bete eraziz, eta nekazariak berak heziketa osoagoa lortuz.

Jakin: Joxe Marik legea aipatu du: legerik badator? Zer ekarriko luke bere baitan?

J.M. Zeberio: Legearen nolabaiteko premia aipatu dut, lurraren erabilerari dagokionean eta batipat lur-egiturak hobetzeari dagokionean, egitura hobetzea primatuz eta egitura hobetzearen kontra dagoenaren kontra joanez.

Baina hori dena filosofia baten barruan dago. Euskal Herriko erakunde publikoen politika da, Europak, nahiz eta azken urte hauetan krisian egon, eraman duen politikaren parean jartzea: produktibitatearen borrokan gaudela, esango nuke. Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak egiten ari direna bi arlotan bana daiteke: alde batetik, ahalik eta merkeen produzitu, ahalik eta jenerorik onena eta ahalik eta ondoen industrializatu eta komertzializatu jenero hori; eta, bestetik, ahalik eta bizibiderik egokiena, erosoena sortu baserriarri, azpiegitura eta beste bitarteko batzuek jarritik. Ni filosofia horretan nago, orain arte ez bait dut besterik ikusten, eta edozein eratako jokabideak bi helburu horien barruan sar bait daitezke. Ganadua hobetzen edo sanotzen ari bagara, edo industria berregituratzen ari bagara, konpetitibitate baten barruan sartu nahi dugulako ari gara, eta, azken batean, ez dugulako nahi European sartzean denok irentsita geratzerik.

K. Enbeita: European sartzean hemengo legeak egiterik izango da, ala Europakoak hartu beharko ditugu?

J.M. Zeberio: Ez dakigu argi ze posibilitate izango ditugun lege-kontutan. Nolanahi ere, European sartzeak Europari kontzesio batzuek egitea esan nahi du (edo, hobe, hori ere esan nahi du); dagoeneko muga batzuek dauzkagu Espainiako estatuaren barruan; European sartzean, Espainiako estatuak kontzesioak egin beharko ditu hainbat arlotan, eta European politikarekin bat etorri beharko du. Eta guk ere izango ditugu muga horiek. Adibidez, Europa osoko politika esnearen produkzioa mugatzea bada, guk ezin hartuko dugu esnearen produkzioa emendatzeko politika. Borrokatu beharko dugu, mementu batean irlandarrek edo beste batzuek egin

zuten bezala, gure egoera defendatzeko. Baina hango politikaren kontra joaterik ez daukagu.

Azken urte hauetan eginahalean ari gara Europaren parean jarzteko: txikiak gara, ez dugu asko suposatuko, eta ez digute oraingoz gerra handirik egiten. Baina luzarora begira, hainbat problema ikusten da.

K. Enbeita: Abantaila bezala aipatu da mugak kentzea; baina Estatuak ez dira kentzen. Abantaila bat izan daiteke, Euskal Herriaren batasunaren alde lanean ari garenontzat (eta ez naiz nekazaritzaz ari). Baina beldur naiz ez ote garen «europartuko»: ezingo dugu gauza asko geure erara egin; Europak mugatu eta obligatuko gaitu. Eta hori guk defendatzen dugun Herrien beste politikaren kontra doake.

J.M. Zeberio: Esan da, ez gabela gu Europan sartuko, baizik Europa sartuko dela hemen. Gure arriskueta bat, Europak dituen problema batzu gure kontura konpondu nahi izatea da. Hori normala da, baina adi egon behar dugu guk. Europak esnea sobera badauka, hemengo gerarazi nahiko dute, beren soberakinak hemen sartzeko.

K. Enbeita: Ez hori bakarrik: hemengo produkzio osoa berek komertzializatu nahiko dute, guk ez bait daukagu komertzializazio-egiturarik. Beren kapitala sartuko dute, eta berek komertzializatu. Gainera, ez da Europako kapitala, multinazionalen kapitala da.

J.M. Zeberio: Konnotazio gaiztoz erabiltzen da «multinazional» hitza. Ekonomiaren garapenaren agergerri bat da, gaurko ekonomiaren berezitasunetako bat. Eta «krisia», mundu osoko ekonomiarena da, superproduktzioaren krisia da: injineruak sobera daude, jende asko sobera dago, janariak sobera daude, nahiz eta gosea egon...

Jakin: Zer egin behar da, beraz, gauden estuasun-egoera honetan: gaur egiten denarekin ados gaude, norabidez aldatu egin behar dugu, bultzatu egin behar dira bide berriak?

J.M. Zeberio: Nik dakidanez, Eusko Jaurlaritzak eta orain arte daramaten bidetik jarraituko dute, parekatzearen bidetik: ahalik eta ustiapenik konpetitiboena egiten, ahalik eta industriarik onena indartzen, ahalik eta komertzializazio-katearik onena zabalitzen, eta produktuaren kalitate ona lortzen... Gero, Europan sartzean, krisi berri batean sartuko gara. Baina nola esan: denak gri-

poso dauden etxe batean sartu behar dugunez, gu ere griposo sartzen saiatu behar dugu, eta ez alborengo batekin, ea denon artean konpontzen dugun gripea.

A. Lekuona: Irakurri berria dut, nekazaritzak *ekonomikoa* eta *autonomoa* behar duela izan: merkeago sortu behar dira gauzak, eta bertako baliapideekin sortu. Ez gehiago, baizik merkeago sortu behar da, gutxiago kostata, kuota sartzean hori zeharo egia izango ez bada ere. Bigarren, bertoko kontsumoaz baliatu behar dugu, bertan kontsumo handia daukagunez, Hegoalde honetan behintzat.

J.M. Zeberio: Bi printzipio horiek, ordea, zeinek proposatuko ditu, zeinek hezurramituko, eta nola gizarteratuko dira, gaurko interesak eta indarrak ikusita?

A. Lekuona: Nire ustez, elkar-lana izango litzateke, dialektika bat beharko da: gizarteak eta Administrazioak erantzukizun handia dute eta sektorean gabiltzanok ere bai: bide berriak sortu behar ditugu, eta horiek aurrera eramateko eskatu agintariei.

P. Iralur: Ikusi dugunez, sistema hau ez da errentagarria. Horregatik, sistemak berak ez du segitzen ahalgo eta, beraz, sistemak berak ere beste bide batzu beharko ditu xerkatu.

K. Enbeita: Sistemak bilatuko duen irtenbidea, sistemaren defentsarako izango da.

P. Iralur: Bistan da. Guri dagokigu gure defentsarako zerbait egitea.

J.M. Zeberio: Jakina, laborariak egin beharko du laborariaren defentsa: zeren, azken batean, bat laborari da, laborantzan ari denean; eta merkatari da, laborariaren esnea saltzen ari denean... Baserritarrak berak komertzializatu behar dituela bere produktuak, esan da: baina baserritar bat harakin egiten denean, harakin da, eta ahaztu egiten zaio baserritarra; eta baserritar bat esneketari bilakatzan denean, esneketari da, eta ahaztu egiten zaio baserriko semea dela.

Jakin: Honenbestez, amaitutzat eman behar dugu solasaldi hau. Hiru ordu pasatuak daramatzagu hizketan, eta, hala ere, ez dugu gaia agortu, ezta hurrik eman ere. Zenbait alderdiri jorratu ona eman diogulakoan gaude; beste zenbait, aldiz, ukitu batekin geratu da. Izango al dugu noizbait denak ere sakonagotik aztertzeke aukerarik. Eskerrik asko, solaskide izan zaituztegunoi.

(Transkribatzailea: J.A. Aduriz)

EL PORVENIR DE LA AGRICULTURA VASCA**L'AVENIR DE L'AGRICULTURE BASQUE**

Como índice de lo tratado en la mesa redonda, presentamos aquí el esquema que con antelación se había enviado a los participantes. Tomaron parte en esta mesa J.M. Zeberio, miembro del Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco; K. Enbeita y A. Lekuona, miembros del Sindicato EHNE, y P. Iralur, miembro del Sindicato ELB de Iparralde.

1. Algunos problemas que necesitan solución
 - a) *La preparación del agricultor: la participación, la profesionalidad, etc.*
 - b) *La planificación de la tierra: el uso, la propiedad, el precio, etc.*
 - c) *La reestructuración de las explotaciones: la extensión, la productividad, la liberación de las tierras, etc.*
 - d) *Otros*
2. A propósito del ingreso en la Comunidad Económica Europea
 - a) *Lo que supone el ingreso en la C.E.E.*
 - b) *Factores positivos y negativos de la integración en la C.E.E.*
 - c) *Medidas a tomar antes del ingreso en la C.E.E.*
3. Quehacer y actuación de las Instituciones
 - a) *Quehacer y actuación de las instituciones públicas y privadas.*
 - b) *La planificación agrícola: ¿factible, necesaria? ¿Se prevé alguna ley?*
 - c) *Análisis de la actuación presente.*
 - d) *Propuestas, sugerencias acerca de lo que deberían hacer.*

Voici le schéma de discussion proposé préalablement aux participants de la table ronde. Ont pris part à cette réunion: J. M. Zeberio, membre du Département de l'Agriculture du Gouvernement Basque; K. Enbeita et A. Lekuona, membres du Syndicat EHNE, et P. Iralur, membre du Syndicat ELB d'Euskadi Nord.

1. *Quelques problèmes requérant une solution.*
 - a) *La préparation de l'agriculteur: la participation, le professionnalisme, etc.*
 - b) *La planification de la terre: l'utilisation, la propriété, le prix, etc.*
 - c) *La réorganisation des exploitations: l'extension, la productivité, la libération des terres, etc.*
 - d) *Autres.*

2. *Apropos de l'entrée dans la Communauté Economique Européenne.*
 - a) Ce que suppose l'entrée dans la C.E.E.
 - b) Facteurs positifs et négatifs dans l'intégration dans la C.E.E.
 - c) Mesures à prendre avant l'entrée dans la C.E.E.
3. *Travail et rôle des Institutions.*
 - a) Travail et rôle des institutions publiques et privées.
 - b) La planification agricole: réalisable, nécessaire? Une loi est-elle prévue?
 - c) Analyse de la politique actuelle.
 - d) Propositions, suggestions de ce qui devrait être fait.

ORAIN eta HEMEN

...HAINBAT ABURU

LIBURUAK



Ekainak 12: Kontra-Europaren garraisia

Kronika ezaguna da. EEEko gobernuburuak eta hainbat ministrari bildu Madriler, Espainiako Erreinuaren sarrerako hitzarmena izenpetzeko. Ongietorriak, protokolo adeitsuak, hitzaldi sonatuak: sinaduren prozesioa. Palacio de Oriente Madrigoan burutu zen guzti hori. Baikortasuna!

Egun berean hiru atentatu larri: bi Madrilen... Hiru hil. Betea Portugaleten: hildako bat. Militarrei eta poliziaie eraso zaie. Handia izan da eskandalua eta haserrea politikarien artean: Publizitatea bilatzen dutela atentatugileek, inolako helburu politikorik ez dutela, inboluzio-indarrak iratzartzen ari direla... Terrorismoaren kontrako borrokan nazioarteko laguntza eskatu da.

Batzuek Europa «berria»ren epopeia kantatzen zuten bitartean, besteek drama ikaragarria jokatu dute guztion aurrean. Kontrapuntu dramatikoa benetan, zeremonia ospatuari. Eta badakigu: bizidunontzat drama dena, hildakoentzat tragedia hutsa dela.

Hitzarmena janzteko erabili dituzten epitetoen «antiepitetoak» erabili dituzte atentatuak larrutzeko: aurrerapena/inboluzioa, modernotasuna/historiari eutsi nahia, bakea/terrorismoa, unibertsaltasuna/itxitasuna... Hitz handiak, hitz borobilak. Hitz bidez aipatu dute hitzarmenaren gloria, hitzen bidez gaitzetsi dute atentatuen miseria. Data gogoangarri bateko eguna eta gaua bereizi nahi izan dituzte; baina ez dago zalantzarik egunargia eta gauiluna bata bestearen ondoren datozela eta bereizezinak direla, argia eta itzala bereizezinak diren legez.

Felipe González-ek *fedea* eta *esperantza* aldarrikatu ditu bere hitzaldiaren amaieran. Baina bertute horiek teologikoak dira politikoak baino gehiago. Egoera gordina azaldu eta konponbideak urratzea dagokio politikari, eta ez hitz teologiko ederrez estaltzea.

Azterketa politiko gordin horren gakoa, berriz, egun horretan berean Palacio de Oriente Madrilgoan eraturako markoan —estatuena Europa— eta han bertan jaulkitako esaldi hauetan dagoela uste dut: «España el primer Estado-Nación de Europa» gorai patuz, eta «emociones nacionalistas» tzat gutxietsiz nazio ukatuen Europa. Estatu-Nazioen Europa aurrera joango bada, Nazio-Herriak ukatuz eta deseginez, beldur izatekoa da, egunik gloriosoenak ere dramaz eta tragediaz odolduko direla gure Europa eta gure Euskal Herri honetan.

Europako Estatuetakoko gobernuburuek jo nahi izan zuten sinfoniaren barruan Kontra-Europako Herri ukatuek beren gairaisia bota zuten: horra ekainaren 12ko deskontzertua. ■ *Paulo Agirrebaltzategi*.

Euskararen berri onak

Poza ematen du euskarari buruzko berri on baten albiste emateak, norbaitek bestelakorik uste badu ere. Kritika egiteak ez du itsu bihurtzen.

Euskarazko albiste-agentzia bat eraikitzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Ez dut berri zehatzagorik, egia esan. Euskarazko egunkariaren aurrepauso bezala izango dela zabaldu da. Poztekoa da. Poztekoa da, baita, Martin Ugaldereen manupean dagoela hori martxan jartzeko agindua jakitea ere.

Hogei milioiko presupostua du agentziak. Ez dakit aski, gehiegi ala gutxiegi den. Segun zer egin nahi den. Ez dut uste itzulpen-agentzia izango denik. Euskal kazetaritzaren estrategia zabalago eta luzeago batean kokatu beharko da delako agentzia hori. Euskal kazetaritzaren desarroiloaren frenu ez baino dinamizatzaile izan beharko luke, euskal kazetari-taldea ez mantentzeko prentsa-enpresei aitzakiarik emateke. Euskal kazetaritza praktikoaren eskola txiki bat muntatu beharko litzatekeela horren inguruan, esango nuke.

Esan bezala, albiste-agentzia hori euskal kazetaritzaren estrategia orokor baten koordenadatan pentsatu beharko litzateke. Eta ezinbestekoa da horretarako euskal kazetarien lankide-

tza, premiak ezagutzeko eta bideak eta helburuak markatzeko orduan.

Euskarazko albiste-agentziaren lehen ondorioa euskararen efektu biderkatzailea izango da. Euskararen presentzia soziala erraztu egingo du, noski. Eta, bide batez, zenbait kazetel enpresak ez du kostuaren aitzakiarik atera ahal izango orain, euskara bere orrialdeetan gehitzeko orduan. Eta zer esanik ez, euskarazko egunkariak traba bat gutxiago du honela. ■ *Joan Altzibar.*

Biolentzia eta beldurra

Euskal Herriko biolentzia dela eta ez dela zenbat solas, hitz, eztabaida. Eta zenbat topiko.

Biolentziaren beste alderdia, beldurra da. Zenbat klixe hor ere.

Atzo ikusi nuen ETBko mahaingurua, biolentziaz (85.06.11). Alderdi politikoak ziren solaskide. Mementuko dialektika gorabehera, betikoa. Aldez aurretik genekien alderdikide bakoitzak zer esango zuen. Hori esan behar zuen gainera, horixe esatea tokatzen zitzaion eta.

Hurrengo egunean —kasualitatea, benetan— oraindik argitaratzeke dagoen liburu baten kapitulu bat izan nuen eskuartean. Euskal Herrian hezurmamitzen den biolentziaz da liburua, inkesta batetik abiatuak J. I. R. Olabuenagak burutua. Eskuartean dudak kapituluak «Violencia y Sociedad» du izenburua.

Bi puntuk eman didate atentzioa kapitulu horretan. Bat: kolektibo bezala zeinek du beldurrik gehien gure gizartean? Bi: zeini edo zeri dio beldurrik gehien jendeak?

Lehen puntuaz egin duen azterketan, konklusio honetara iristen da egilea: Gizarte-talde bezala HB-zaleen kolektiboa da beldurra, beldur politikoa, gehien jasaten duena, batipat errepresio politikoaren beldurra. Bagenekien biolentziaren legitimazio sozialean aurrenak zirela HBkoak. Beldurrean ere aurrenak direla jakiteak, agian zerbait esplikatuko du.

Bigarren puntua ere argigarria da oso. Egiaz eta benetan zeri dio beldur jendeak? Beldur hori, motaz-mota, neurtu nahi izan du inkestak. Agertu bezala emango ditut esaldiak eta porzentaiaak:

TEMOR PROXIMO A

	%
—Que Ud. o alguien de su familia sea golpeado en la calle por la policía.....	30
—Que se produzca un golpe militar en España.....	27
—Que Ud. o su familia sea detenido injustamente por la policía.....	23
—Que le toque a Ud. o a su familia verse, casualmente, envuelto en un atentado terrorista o en un tiroteo entre policía y grupos armados.....	22
—Que se desencadene una guerra civil entre los vascos.....	7
—Que sea Ud. o su familia víctima de un atentado.....	7
—Que le pidan el impuesto revolucionario.....	4

Datuak hor daude. Zer egin? Bietako bat: informazioa aintzat hartu eta ondorioak atera. Edota inkesta txarra dela erabaki, eta topikoekin jarraitu. ■ *Joan Larrinaga.*

Euskararen Eguna: binaka?

Berrogeitamar bat urte igaroak dira garai hartako «Euskararen egunak» egiten zirenetik: Arrasaten, Zumarragan, Andoainen. *Euskerazaleek* antolatutik.

Mende-erdi geroago, EKBk (Euskal Kulturaren Batzarreak) berriro antolatu du aurten Euskararen Eguna, Euskal Herri osoko herri guztietan ospatzekoa. Azken urteotan herri batean edo bestean izendatu izan dira horrela euskararen aldeko ekintza eta ospaketak; baina lekuz oso mugatuak izateaz gainera, ez dute antolatzailerik horrelako eguna instituzionaltzeko asmorik adierazi. Dena dela, ideia eta asmo bat zegoen oso zabaldurik herri-erakundeen artean, aipaturiko ekintzetan eta komunikabideetan hainbat aldiz agertu dena: *Euskararen Eguna*, Euskal Herri osoan eta urtero ospatzekoa.

Badirudi EKBk asmo horixe bereganatu besterik ez duela egin. Eta bere ekinbidearen barruan, beste hainbat ekintza-asmo baterakoiren artean, hau ere sartu du: «EKBk erabakirik dauka urtero Kultur sail guztien artean Euskararen eguna antolatzeko eta ospatzea, kultur ekintza herritar gisa. Bere ekintza bateratu nagusia horixe izango du, hain zuzen» («Euskararen plangintzarako oinarriak» in: *Jakin* 34, 1985, 162. or.).

Maiatzaren 3an egin zen Euskararen Eguna. Antolatzailerik adierazia zutenez, euskararen aldeko egun sektorialen (ikastola-

koen, alfabetatze-euskalduntzekoen, prentsakoen, etab.en) bultzatzaile eta bateratzaile izan nahi du Euskararen Egunak: kultur eta gizarte-sektore guztietako euskararen defentsarako eta berreskurapenerako ahalegin guztiei, Herri honen ibilaldi bateratu eta koordinatuaren helburua emanez.

Hiru ardatz nagusi hauen inguruan aurkeztu du EKBk urtero egingo den Euskararen Egunaren taxuera: Eskakizunak, Kultur ekintzak, Jaialdiak. Aurtengo egunaren asmo nagusia, berriaz, Euskararen Normalkuntzarako Plangintza eskatzearekin batera, herrietan eta auzoetan euskalgintzan eta euskal kultur-gintzan diharduten herri-erakundeen arteko batzarreak edo koordinazioak (EKBak) sortzea, eratzea eta finkatzea izan da.

Euskararen lehen Egunaren balantze xehea egitea ez dagokigu guri orain. EKBk berak eta prentsak egina du. Esan beharra dago, hala ere, Euskal Herri osora zabaldu ez baldin bada ere, hainbat eta hainbat hiri, herri eta auzotan kultur sail ezberdinetako lagun, talde eta elkarte anitz bateratu zirela euskararen plangintza eskatzeko eta euskara ospatzeko. Bestalde, eskola, udaletxe, egunkari, irrati, lantegi, denda eta zerbitzu sozial ugari hartu zuen esku Euskararen Egunaren ospatzean.

Egunaren alde txarrak ere aipatu beharra dago, hala ere: seguruena ez zen nahikoa astiro prestatu eguna; sakabanatuegia eta aski koordinatu gabea izan zen, herri bakoitzari bere erara antolatzeko aukera eman ondoren; eskakizun zen Plangintzaren asmoa bera ez zen nahikoa zehaztu eta argitu; Euskal Herriko eskualde guztietara ez zen zabaldu; laneko eta gizarte-zerbitzuetako mundua ez zen behar beste —ezta urrundik ere— egunaren ospatzeaz jabetu eta bertan sartu. Guzti horiek datorren urterako kontutan hartzekoak eta zuzentzekoak direla uste dut. Oraindik zabaltzekoa, indartzekoa, sakontzekoa eta finkatzekoa da Euskararen Eguna. Areago, osotzekoa da: aipaturiko hiru ardatzetatik batez ere *jaiarena* eduki dela uste dut kontutan aurten, nahiz eta eskakizunena ere aski nabarmena izan den; baina sektore ezberdinetako kultur ekintzen alderdia oso gutxi landu dela uste dut.

Lehen urratsa izan dela esan behar, aurtengoa.

Eta ondorioz zer? Handik hamabost bat egunetara kaleratu zen beste «Euskararen Eguna» baten asmoa eta eskea, Gasteizko Lege-biltzarraren barruan. Egun «instituzionala» izango omen zen hori. Maiatzaren 30ean, aurtengo aurrekontuak onartzean, erabakirik gelditu zen «Euskararen Egun instituzionala» antolatzea. 20 milioi pezeta izendatu ziren horretarako. Hurrengo eguneko prentsak zioenez, «el gobierno contactará además con las instituciones y colectivos que por razón de su actividad se verán implicados en la celebración de esta efemérides». Betor behingoz harreman hori!

Aspalditxo idatzi zuen idazle ezagun batek, euskararen eta euskal kulturaren alorreko ekintza berriak beti *binaka* kalera-zen direla Herri honetan. Tradizioari eusten diogu nonbait. «Anti-instituzionala» ote zen, bada, aurtengo Euskararen Eguna? Ez dut uste inondik ere; baina, agian, hori ere argitu behar-reakoa da, EKB bera Euskararen Eguna «instituzionalteaz» mintzatu bait zen asmoaren berri ematean bertan.

Ala Euskararen egunak Ama Birjinaren deiturak bezala ote dira, bakoitzak bere deboziokoa izendatzeko, aukeratzeko eta ospatzeko? Binaka ezezik, hirunaka eta askonaka banatzea genuke orduan, Ama Birjinaren jaiak bezala. Baina, nire ustez, Euskal Herri osorako Euskararen Egunak bakarra izan behar du, Euskara bera bakarra eta batbera eta guztiona dugulako.

Ez da ba Euskararen Egun bakarra bitan banatu nahia gertatuko hemen, «bat bitan banatzen da» delako taktika «maltzur» haren bidetik edo? Ala bai? ■ *Paulo Agirrebaltzategi*

Galizia zaila

Joan den udazkenean, Getxoko Ihardunaldi sozio-linguisti-koetan, A. Gil Hernández-en hitzaldiaren ondoren eztabaida haserrea ikusi eta entzun ahal izan genuen galegoen artean. Beren hizkuntzaren batasun-erizpideetan oso urrunduta ezezik, elkarrizketa konpongarri baterako ezinean agertu ziren batzar-kideon aurrean. Egia esan, ez gintuen arazoak sobera harritu, ezagunak bait dira euskaldunontzat ere horrelako liskarrak, eta gurekoak ez dira batere samurragoak izan. Bestalde, jakina da hizkuntzen baterakuntz uneetan antzeko gatazkak piztu ohi direna.

Anekdota ahantzita nuenean, *I Encontros Labaca. Ponencias* liburua etorri zait eskuetara. A Coruña-n Ediciós do Castro-k argitara emandako hau galegoaren batasun-proposamen kontra-jarriak ponentzia ezberdinetan jasoz dator. Getxokoa baino urtebete lehenago ospaturiko topaketa batzutako lanak dira hemen argitara eman direnak. Kongresuko haserre ezkutuak modu nahikoa desegokian lehertu zirenean, beraz, bizi berriak ziren orduan Galizian batasun-eztabaida garratz hauek. Izan ere, Getxon aurrez aurre jarritako tesiak biltzen ditu liburuak, bi ponentzia luzetan: 1) «Que galego na Escola? Anotações para umha proposta de planificação lingüística na Galiza (Tese reintegracionista)» (13-175 or.), eta 2) «O acordo ortográfico e morfológico de 1982. Entre a utopia foneticista e as heterogra-

fías lusistas» (177-307 or.). Bi lan hauetan biltzen dira, hizkuntza idatziaren arautzeak azkeneko hamarkadetan izan dituen gorabeheren albisteak.

Bi erakunderen inguruko lankideek ematen dituzte lanok: Getxoko eztabaidan mintzatu zen A. Gil Hernández beste bi lankiderekin (Arribe Dopico eta Rábade Castinheira) ari dira AGALen izenean (Associação Galega da Língua), eta berauek azaltzen dute tesi lusista edo «reintegracionista» deitua. Xesús Ferro Ruibal da, ostera, gaur egun ofizialki nagusitzen ari diren hizkuntz arauen azalpen zabal bat eskaintzen diguna.

Bitxia da benetan galegoaren historia: Erdi Aroan loraldi goiztar bat ezagutu ondoren, lau mende luzetako ilunaldi osoa jasan zuen hizkuntza idatziak. Katalana ez bezala, erabat isildu zen, eskolatuen artean ere loraldi haren oroitzapena galtzeraino nonbait. «Badirudi, jada XX. mendean Murguia-k jakin erazi ziela intelektual galiziarrei, galegoa Erdi Aroan idatzia izan zenik. Beraz, galegoa literatur hizkuntza bezala lehenengoz berek erabili zutela uste izanik hil ziren beharbada Rosalía († 1885), Curros († 1908) eta Pondal ere († 1917)» (273 or.). Horretaraino itzali bait zen iraganaren oroitzapena. XIX. mendeko «Rexurdimento»ak, ba, hizkuntza idatziaren arauak asmatu egin behar izan zituen, kasik ezerezetik asmatu alegia; baina batasunik gabea izan zen ahalegin hura, eta XX. mendean gure egunetaraino iritsi da hizkuntz estandarizazioaren arazoa.

Gerraurreko saioak ahantzi gabe (1910eko A. Ribaltarena edo Couceiro/Moralejo-renak (1929), adibidez, eta «Seminario de Estudos Galegos»enak batez ere, 1933), batasun-proposamen erabakiorrenak gerraondokoak dira Galizian. Gurean, eta berrikitan beste zentzu batean Katalunian ere (Gran Enciclopèdia Catalana-ren hizkuntz hiztegi modernoa, Fabra-ri segida emanetz), gertatutakoaren antzera, editorial-munduan sumatu zen hizkuntza arautuago baten beharra: «Galaxia» editoriak bere lanetarako zenbait arau eman zituen (1950). Urte-sail bat geroago dator aruketa ofizial edo ofiziosoa.

1970eko hamarkadan, «Real Academia Galega»k irekitzen du bidea (1970-71, 1977), baina benetako lan erraldoia Santiagoko Unibertsitatean eratuko da, «Instituto de Língua Galega» (ILG) delakoan, 1977an hasita: «era a primeira vez que se ía falar do galego con coñecemento científico». Institutuak 700.000 argibide bildu zituen Atlas Linguistikorako, eta beste 500.000 ere bai literatura idatziatik. ILGk bere *Bases* deituak eman zituen.

Pauso horren hurrengoa lanari ofizialtasun osoa eman ziezaioketen Erakundeen borondate eta erabakien esku geratzen zen: Akademiaren eta Gobernuaren esku, esan nahi da. Eta,

Autonomiaurreko Xuntaren dudamuden ondoren (1980), 1982ko erabaki ofiziala dator: «Normas Ortográficas e Morfológicas do idioma galego». Akordio hau Akademiaren eta aipatu Institutuaren lankidetzaz bezala agertu izan da, eta Gobernu gaziarrak ofizialdu egin du gero Dekretu baten bidez (1983-ekaina-15). Horrela, arauok betebeharrekoak dira: Administrazio eta Irakaskuntzarako finkatuta, eta erabakita, geratzen da, ba, arazoa, teoriarik bederen.

Baina, legezko erabakien ondoren, onarpen praktikoaren egitekoak datoz. Lehenengo galdera Erakunde publikoei dagokiena: Artigarapen eta bizitza ofizialetan lortuko ote da eredu definitu hori eguneroko praxian ezartzea: eskoletan, administrazioan? Ferro-k dioenez, ez da hori hain erraza ikusten. Beldurrak beldur, ordea, botere indartsu batentzat ezargarri izan daiteke egitasmoa. Baina badago gako gakotsuagorik: Nola erantzungo du galegoaren «corpus» sozio-kulturalak? Izan ere, Galiziako «lusistak», ezarri nahi den eredu politiko-linguistikoren kontra bait daude, Getxon erakutsi ziguten bezala eta liburu honetan ikus daitekeenez.

«Lusismoak» dioenaren arabera, galegoaren salbamena portugésaren altzo kulturalera itzultzean dago. Galiziaren nortasunaren zutabe jatorra da Portugal, eta, ondorioz, hark sortutako lurralde kolonial zabalak. Galegoak hor bere jatorburuekin egingo luke topo. Ez dago hizkuntzarentzat etorkizuna asmatu eta arautu beharrik: etorkizuna hortxe dago presente, indartsu eta erraldoi. Horretarako, «aitaren etxe»ra itzultzeko alegia, itzulera pausoz pauso programatu eta ibiltzea falta zaio Galiziarri. Mugimendu honek, noski, hizkuntz funtsarena ezezik, naziotasunaren ulermen-modu jakin bat du bere baitan. Hizkuntza estandarda arautzean, ordea, bide ofizialak ez du jo lusistek nahi zuten bidetik, eta, lehen bileretako hurbiltasun-unearen ondoren, berriz ere etenda dago galegozaleen mundua. Zergatik, ordea?

Lusismoak eta gaur eguneko bide ofizialaren teoriariek bi metodo eta perspektiba kontrajarri darabiltzate. Hark batez ere, ulertzen dudanez, bere oinarrien oroimen historikotik eta eskarmentu soziolinguistikotik batetik hitzegiten du, eta une honetako lusista suharrenak Ll. Aracil-engandik hurbil ageri dira; lusismo honen «diskurtsuan» eragin handia du teorilari valentziarrak. Hautatu den bide ofizialaren jarraitzaileek, ostera, hizkuntzaren beraren ikerkuntzatik eraman nahi dute beren «diskurtsua»: hizkuntzaren benetakoa errealtatea hurbiletik ezagutu nahi dute (Atlas linguistikoa), eta azterketa honen ondorioz galegoaren nortasun jator berezia azpimarratu. Aurkikunde horrekin batera, portugésengandik urruntzen duen galego-mintzatzailearen kontzientzia linguistikoa gogoratzen dute.

Hor oin-hartuta, lusismoari bere irrealismoa salatzen diote, gaurko errealitatea ez atzematean ezezik, baita hizkuntzaren historia bera miatzean ere.

Lusistek, berriz, bi hizkuntzak nortasun berekoak ikusten dituztenez, ezin dute konprenitu nola bazter litekeen portugesak eskaintzen duen etorkizun segurtatu hori. Eskuin-jokoan tranpa bat ikusten dute oraingo arau ofizialetan: APren arauak dira, esaten da. Horien bidez, benetako irtenbide ez-espainiar bati ahalbide guztiak ito nahi zaizkio, hizkuntza azkenik berriz ere kale itsu batera eramateko asmoz.

Arrazoiak nork, galde lezake irakurleak. Gerra guztietan bezala, arrazoiak irabazleak. Baina, hemendik eta oraindik, nik ez dut ikusten galegoaren indar sozialak orekatuta dauden, ala benetan dagoeneko alde batera jo duten. Indar horien soziografia bat ezagutzea ez zaigu, gainera, kanpotik erraza gertatzen. Izan ere, Galiziatik kanpoko soziolinguistika-bilkuretan badirudi lusistek dutela presentziarik biziena; baina ez dago dudarik hizkuntzaren Erakunde nagusi eta boteretsuenek badutela jadanik (Akademia-Unibertsitatea-Gobernua) estandarizazio-proposamen landu bat eta baita berau ezartzeko boterea ere. Galegoaren gorputz kultural eragileak zenbateraino beretu(ko) du proposamen ofizial hori? Horra galiziarrek ere asmatu nahi luketen erantzuna. ■ *Joanes Goia*

Zer gertatzen da hitzaldiekin?

Udaberririo bezala, aurtan ere sasoi berean herrietako hitzaldiak ugaldtu dira bazterretan. Hitzaldiak eta mahainguruak, berdin da. Horietako batzutan ibiltzea tokatu zait, eta beste askoren berri jakin dut.

Nik uste, konstatazio bat egin beharrean aurkitzen garena: euskal kultura eta euskara gai hartuta ematen diren hitzaldiek arrakasta txikia dute. Aldamenetik esaten didate, euskal kulturari buruzkoetan bakarrik ez dela gertatzen hori. Gaitz-erdi, esan behar al da?

Entzuleriak muzin egin al dio hitzaldi-sistemari? Oro har, honela ematen du. Arrakasta izan duen kasu bat edo beste aipa daiteke, baina salbuespen gisa hartu beharrekoak dira nire ustez.

Erru bila hasita, batek ez daki zer pentsatu.

Antolatzaileena al da errua? Organizazio txarra? Publizitaterik ez?

Hizlariengan ote dago gakoa? Ez ote tamainarik?

Gaiek ez al dute erakarmenik?

Aitor dezagun: publikoa erakartzea ez dugu lortzen, garai batean bezala. Joanak joan. Hitzaldien urre-aroa joana da. Tokitan daude garai bateko ametsak, proiektuak eta egitarauak! Hitzaldi solteetatik astealdietara igaro ginen, gero hamabostaldietara eta behin baino gehiagotan hilabetealdi eta ikastaroetara. Herri mailako Unibertsitate txikia egiteko ametsik ez zen falta tartean.

1975 aldean hasita, urte horietan, beheraldi izugarria izan zuten herrietako kultur hitzaldiek. Hitzaldi eta mahainguru politikoak nagusitu ziren. Gerora, susperralditxo bat izan dute atzera hitzaldi kulturalak, ñaina, ikusten denez, nahikoa artifiziala: hitzaldiak ugaltu dira, baina ez publikoa.

Gaur gauzak dauden bezala, hitzaldien sistema honi degradatzearen arriskua ikusten diot. Alegia, «kunplitzearekin» konformatzea protagonistak (antolatzaileak zein hizlariak): konpromisoa bete eta kitto.

Eta kritika egiten hasita, programazio gutxiegi sumatzen dut nik: erakunde, elkarte eta talde askok urtean zeharko egitaraurik gabe jokatzen dute, urtez-urte burutuz joateko plangintza orokorrik gabe, hitzaldi edo astealdi kultural horiekin zer lortu nahi den argiegi jakin gabe. Ez programaziorik, ez koordinaziorik dago, zoritxarrez.

Galdera-sail bat egiteko asmotan hasi naiz idazten, eta konuratzeke kritikara lerratu naiz. Berdin dio. Baina berriz galdetzen dut: Zer gertatzen da hitzaldiekin? Egoeraren analisi eta diagnosi bat egin beharko genukeela iruditzen zait. Uste dut, galdetzekoa dela zein eginkizun betetzen duten gaur kultur astealdiek, hitzaldiek. Zertarako antolatzen diren. Zer gai erabiltzen den. Eta abar.

Animatzen al da inor? ■ *Joan Altzibar.*

«Consumiciones en autóctono»

Nork esan zuen Espainian gure arazo politikoak bakarrik aipatzen dituztela? Azkenaldi honetan ahalegin handia egiten ari dira komunikabide espainolak gure errealitatea bere osotasunean ezagutzera emateko: errealitate politikoa, soziala, kulturala, linguistikoa.

Ahalegin horrek euskalduntzearen berri ere ematen du. Hona ekainaren lehenean *El Alcázar* delakoak eman zuena, Fernando Vizcaíno Casas-en eskutik:

CURSO DE IDIOMAS

Aprenda *euskera* en diez minutos. Con tal encomiable intención, el Ayuntamiento del Noble Valle de Llodio (*Laudisko Maran Nubigaren Udala* [sic]) ha comenzado un programa de *reuskaldunización* [sic, berea] de las *funciones comunicativas más corrientes utilizadas en los bares de la localidad*, para animar a la clientela a pedir sus consumiciones en autóctono.

No parece demasiado difícil en la mayoría de los casos, por lo que les incluyo las palabras en vascuence, confiando en que sean capaces de entenderlas. Ahí van: *anisa, konaka, boska, patxarana, ron, ginebra, whisky, kubalibrea, gintonik, tabakoak, koantró*.

Curiosamente, falta en el útil vocabulario la traducción al euskera de *vino* y de *café*. No será porque allí no se consuman...».

Noski, Euskal Herriko errealitatearen berri emateko ahaleginak eskertzekoak dira beti ere. ■ *Joanes Lekerika*.

ETB: ez dago girorik

Giro txarra dago ETBn. Lan-giroa txarra, eta bestelakoa ere txarra. Grebak, dimisioak, kanporaketak. Eta zapi zikinak kanpoan. Gaiztotuz doala ematen du, gainera; noiz eta non amaituko den ez jakin. Dagoeneko nahikoa urrun joana da. Etena ez dago urruti, jadanik sortua ez bada.

Zer da gertatzen dena? Zein da arazoa: ekonomikoa?, laboralra?, politikoa?, hizkuntzazkoa?, harremanak? Denetik egon daiteke. Eta hala omen dago, diotenez. Baina, egia esan, kanpora agertu, funtsezko arazoa bera baino gehiago agertu dira salaketak, elkarri egindako deskalifikazioak. Intrantsigentzia, inkompetentzia salatzen diote langileek Amatiño-Areizaga bikoteari. Eta hauek haiei lan-eskarmentu gabeko jende gazteegia izatea, umegorriak izatea.

Zer dagoen hemen jokoan ezin daiteke hitz batez erabaki, iruditzen zaidanez. Langileen argumentuetan lan-arazoak nabarmentzen dira, arazo ekonomikoa zein organizaziozkoak, eta batez ere azken hauek: hala nola, ordutegia, lan-banaketa,

etc. Inprobisazioa ere salatzen dute. Zuzendaritzaren ustetan, aldiz, antolamenduari loturiko arazo horiek ez dira «teknikoak», nolabait esan, enpresaren kontzepzioa bera pikutara botatzen dutenak baizik. ETBren enpresa-filosofia dago jokoan, eta horretan ezin daiteke amore eman, diote hauek.

Elkarri ETB hondatu nahia salatuz dabilta langile-batzordekoak eta Zuzendaritza. Sineskaitza egiten zait holakorik egotea, nahiz eta jakin, nahi gabe ere, ondorioa horixe izan daitekeela: ETBren hondamendia!

ETBko barne-azietan ni ez naiz nor arrazoi-banaketan ari-itzeko. Jainkoak libra nazala! Ez dut horrelako asmorik lerro hauetan. Lan-istiluak bere bideak ditu, bere konponbideak. Borroka honetan benetan auzitan dagoena antzematea oso zaila gertatzen da egunkarietako informazioez baliatuz: alegia, filosofia bera al dago auzitan ala filosofia horren konkretzioa?

Galdera hori erantzun gabe aidean utzita ere, istilu honetan oin-harturik, uste dut, badela zer esanik, zer pentsaturik. Zilegi bekik hiruzpalau gogoeta egitea ETB dela eta.

ETB xaxpikia da, eguna baino lehen jaioa, eta seguruenik jaiotze horixe zor dio bere bizitza. Hazkuntza azkarra izan du eta, antza denez, ez da oraino «normaldu». Zergatik gertatzen den hori aztertu beharko genuke. Gertatzen ari den guzti hau hazkuntz krisia dela sinetsi gogoz nago, baina beldur naiz bestelakorik ere ez ote dagoen.

ETBren enpresa-filosofiari dagokionez, eredu hori begi onez ikusten dudala aitortu behar dut. Gure errealtateari egokitu iruditzen zait. Uste dut ETBk, egitura eta jendetza aldetik, ezin duela TVEren eta TV3ren eredu jarraitu. Nik ulertzen dudanez, ETBk dimentsio txikiko (ez eskaseko) telebista izan nahi du, austeroa eta ber denboran efikaza eta operatiboa, eta horretarako langileen flexibilitatea, disponibilitatea eta polibalentzia ditu nahitaezko baldintza. Jende gutxi, ongi prestatu eta kalitate handikoarekin lan handia burutu, hitz gutxian eta laburturik esanda.

Anbizio handiko projektua. Eta nere ustez militantismorik gabe ezin burutu daitekeena. Hemen dago gakoa: ETB, gaurko formularen, proiektu militantea da. Militantzia eskatzen du, kultur militantzia eta hizkuntz militantzia, nolabait esan. Militantzia hori dela eskas, lantuz esaten dugu orain.

Marko orokorrako batean aztertu behar da puntu hau. ETBren kasua bakarrik ez da, ez da ETBrena batez ere. Oker ez banago, instituzionalitze-prozesuan prentsa txarra izan du militantziak, arbuio eta mespreztu gehiegi. Testuinguru horretan

sortu eta gauzatu diren hainbat projektuk ez dute militantzia aintzat hartu. Militantzia gainditzearen obsesioak haren mugak gainditu ditu, bai, baina haren balioak eta ekarriak ere bai. Militantzia lehen zegoen tokian gelditu da, babesik gabe, laguntzarik gabe. Kasu, erakundeez ari naiz, ez pertsonez: ez diot instituzioek sorturiko erakundeetan militanterik ez dagoenik, baina ezingo zait ukatu militantziak zekarren beroa, dinamika ez dela projektu horietan behar zuen indarrez txertatu. «Mentalidad de funcionario» aipatu du Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilariak, L.M. Bandresek. Aipatu erakunde horien eragile zenbait ez ote ditu berek sorturiko gurpilak azpian harrapatuko? Dagoeneko, gustatu ala ez, eten bat badagoela hor, erakunde horien eta militantziaren artean, iruditzen zait. Oraingo katramila asko ulertzeko giltza gerta dakiguke eten hori. Jai du euskarak sustatzeko militantziarik ez badu, instituzioetan eta haietatik kanpo.

ETB bere osotasunean ez ote dagoen krisian pentsatzen hasia naiz. Orain gertatzen ari den hau lan-arazo hutsa balitz, pozukoa nintzateke, gaitz-erdi. Baina iruditzen zait projektu hau aurrera eramateko dauden eragozpenak pisu handiagokoak direla, ez hazkuntz krisitik datozkionak bakarrik. Aipatu berri dudan instituzionaltze-prozesua eta militantziaren arazo hori ez dut kuestiotik at ikusten.

Krisia hitza erabili dut. Barrutik, horrela. Eta kanpotik? ETB euskaldun batek etsai asko du. Hor dago ETB, euskal telebista inperfekto hori, telebista elebidun (erdaldun) perfekto noiz bilakatuko. Defentsa gutxiarekin ikusten dut, gutxiagorekin. ETBko eredu linguistikoaren aurkako eraso indartu egin da azken aldi honetan. Madrilek, alde batetik, trabak eta luzapenak tarteko, lege-normalizaziorik gabe, egoera «alegal» batean eusten dio. Eta bitartean, erdara eta euskalkiak sartzeko presio soziala eta politikoa dago: CPren proposamenak Eusko Legebiltzarrean, PSOEkoen interbentzioak, inkestetako eritzien manipulazioa. Eta egungo Ejekutiboaren indefinizioa, urruntasuna. Izenekin esateko, K. Garaikoetxea, R. Labaien eta Amatiño izan dira projektu honen aitzindariak eta bultzatzaileak. Horietako batzuren paraderoa badakigu, eta norbaitek azpimarratu du Amatiñoren «bakarkade politikoa», PNVko barne-zatiketan galtzaileen bandan aurkitu zenetik. Ordezkoa aurkitzea erraza balitz... Dena den, agian errazago gertatuko da orain, barne-istiluak direla eta, Amatiñoren irudia «usteltzen» bada.

ETB, ikusten denez, konfliktibo gertatzen ari da, alde askotatik. «Acoso y derribo» operazioa martxan dagoenik ezin dut sinetsi. Ez dut uste kontsignapean funtzionatzen ari denik jendea. Halere, istilu eta operazio guztien ondoren, ETBren jatorrizko asmoa bere jatoritasunean mantentzeko indarrak egunetik

egunera ahulduz doazkigu. Trabak oro bidetik kendu ondoren, TB erdalduna berez datorkigu, inongo traumarik gabe. Eta eskandalurik gabe. ■ *Joan Alzibar.*

«Bertsogintzaren inguruan» deituriko ekintzen ulermenerako

Ikerketa hau Hezkuntzaren Teoria deitutako ezagutza-arlotik sortu da. Bertsolaritzak dituen aldeetarik —hala nola, espektakulua, barruko edukin literarioa, antropologiaren ikuspegia, «jolasa»/«jokoa» erlazio osagarria, eta abar luzea— jakintza konkretu baten transmisioaren berrikusketa da ekintza hauen aztergaia.

Ez da, beraz, jakintza bera aztertu nahi, ezta jakintza konkretu honen inguruan dauden elementu desberdinak ere. Jakintzaren transmisiorako erak ditugu ardatzak, gure ikuspegi hau oinarritzeko.

Dudarik gabe, bertsolaritzaren baitan dauden ezaugarriak (bertsoa, doinua, egitura-mota desberdinak, etab.) eta haren inguruan koka daitezkeenak (apustuak, txapelketak, produkzio-klase diferentek...) izan dira kontutan, baina ikerketaren gune ez baino aipamen osagarritzat jo ditugu. Hezkuntza, nola edo hala, «jakintzaren besterenganakuntza» baldin badugu edota horrela behintzat defini baldin badaiteke, *transmisio honi* begiratu diogu saio hauetan.

Eta zergatik erabiltzen den «begiratu», «ikuspegi», «berrikusketa» eta antzeko hitz-klasea, horrela uler daiteke: Hasieran esan bezala, hezkuntzaren teoria dugu abiapuntua. Beraz, hezkuntzaz konpreni litekeena argitu ondoren, *teoria-tzat* hartzen dena ekarri behar dugu hona. Honetarako, derrigorrezkoa zai- gu grekoz sortutako lehen pentsamendura joatea. Hona hemen, laburpen gisa.

Hasiera bateko grekoan teoriak «ohartu», «begiratu», «sumatu», «aztertu», «beha egon» eta antzeko edukinak omen zituen.

Pentsamenduaren garapenean *teoria* hau (ahoz-ahoz transmitituriko tradiziozko artea) hil egingo da errepikapenaren ondorioz lortutako esanahian —Sokrate hiltzen dute— beste zentzu batzuri hasiera emanez: *filosofia baiezkorra, zientzia heterodoxa* eta *zientzia ortodoxa*.

Dirudienez, lehenengo Grezia deitutako horretan, idazketa-aurrekoan, teoria zen jendeak begirada zorrozteko lortzen zuen ahalmen berezia. Orduko eskoletan, eta bizitza dastatzeko hain zuzen, maisuaren bidez, errepikapenez, hitzeginez, hasten omen ziren ikasleak gauzei antz ematen, mementuen desberdintasunak sumatzen, egoeren bereizketak aztertzen.

Praktika hauetarako ez zen azpimarratzen derrigorrezko ikuspegi berezi bat —eideatikoa, normalizakorra—, baizik baikoitzaren subjektibitatea dela hasiera eta bukaera. Ez zegoen, beraz, gauzei buruz maisuek emandako bertsio bakarra, poli-beretsioa baizik. Ondorioz, bertsio nagusirik ezean, dena subertsio. Pentsamenduaren praktika, subertsioarena besterik ez ohi zen.

Baina, esan bezala, idazketa hedatzen hasi zenez geroztik, esanahi arras desberdina hartu zuen teoriak.

Filosofia positiboa deritzana Platonengandik datorkigu. Zientzia ortodoxoa, berriz, Aristoteleren eskutik. Bietan, ezaguna den bezala, teoria da beharrezkotzat jotzen denaren azterketa; eta Aristoteleregan, gainera, zientziaren maila lortzen du.

Esanahi-aldaketa hau dela medio, teoria eta praktika bereizten hasten dira, eta teoriak bertsio bakarraren edo normalizakorraren esanahia hartuko du.

Orduko beste ildoak Epikurok jorratutakoa dugu, zientzia heterodoxoa: honen arabera, teoriak, begiradaren zentzuarekin batera, proiektuarena du; eta are gehiago: teoria mintzamenaren mailan koka daiteke eta praxia, berriz, gauzen munduan.

Gure pentsamenduak, ezagunak diren zehazkizun guzti hauen emaitzak, ez du eremu honetatik ihes egiterik.

Gure saioak, orduan, *jakintza konkretu baten transmisioari begirada* izan nahi zuen. Begirada zientifikoa, bada, proiektuan bertan zetzan: praktika baten azterketaren metamintzamina; mintzamenak dituen azpiklaseei (ahozkoa, idatzia, keinuzkoa, etab.ei) buruzko diskurtsoa.

Azken batean, tradiziozko bidetik zientifikotasunaren ildo-ra doan ikasketa baten ikerketaren proiektua zen. ■ *Fito Rodriguez Bornaetxea*

...HAINBAT ABURU

Hogei urteren buruan

Txema Larrea

1964.ean publikatu zuen Arestik *Harri eta Herri*, ETAk kritikatu zuen jadanik Krutwig-en *Vasconia* eta Gobernu frantsesak kanporatu egin zituen euskal aberkide batzu (Krutwig, Irigarai, Madariaga eta Txillardegia). Urte bat beranduago plazaratu zuen Goiztirik *Huntaz eta Hartaz* izeneko liburua.

«Huntaz eta hartaz»

Halako aire unamunianoko izenburupean saio-liburu bikaina genuen. Hamar ataletan Jainkoaz eta gizonez ari zitzaigun Txillardegia. Erlijioa, heriotza, ezkerria, euskaldungoa ziren ardatzak. Euskaldungoaz lau artikulu: bata karlismoaz, Krutwig eta bestek aipatu ideien ildotik, karlistada berrien arriskua salatuz edo, bestela esanda, euskal estrategiarik gabeko bertoko gudukak gaitzetsiz. Beste batean, «Biarno euskaldunaz», eskualde horren historiaz ari da, euskal azterrenen historiaz batez ere. Gai interesgarria, geroz-

tiko estudioek (Saenz de Buruaga, «Aquitania-Vascongadas» txos-tena) erakutsi dutenez. Gaia, Orixek noizbait tratatua, Euskal Herri Haundiaren kontzeptuari lotzen zitzaion etorki amankomunak azpimarratuz. Bi artikulutan ohartzen da Euskal Herriaren iza-teaz, delako izatea hizkuntzak, bereziki, sortu duela.

Hizkuntzaren munta, klarki bederen, gerra ostean azaldu ba-zen ere, Krutwig eta Txillardegirekin zertu zen projektu oso baten barnean. Zaitegik, Ibiñagabeitiak, Mfrandek aldarrikatu zuten hiz-kuntza nazionalaren ezinbestekoa. Indarra falta zen, ordea. Kon-testu berria 60. hamarkadaren hasieran sortu zen. Aipatuak, galdu-tako gerrate baten oihartzunak ziren. Mezu berriek, arrunt antze-koak izanik ere, bazuten ingurugiro diferentea, gerra egin ez zutenek protagonistatua. Ez dugu ahortzi behar, bestetik, Txillar-degi ezaguna zela euskaltzaleen artean, idazle politiko bezala ETArekin *Zutik* askotxoren egilea, kartzelatik pasea eta Ipar Euskal Herrira, ihesi, joan bear izan zuela.

Euskaldungoaren etsaiak

Hizkuntzari buruzko erizpideak bi artikulutan ditugu: «Euskaldun txapeldunei bi hitz» eta «Euskotarrak utikan!». Biota-rik lehena dugu interesgarriena nonbait. Idazkera airoso batez, be-re saio guztietan bezala, eta aisa konprenigarri den arrazoibide batez orainoko (esan nahi da, garai hartako) galbideak eskaintzen dizkigu: arrazakeria (Ibero eta beste jeltkideen kontra, ausaz): «arrazak ez du nazio-kontzientziarik ematen»; folklokeria: «fol-klorea ez da herri baten nazio sostengu bat», eta aurrerago: «euzkoek» erdarakaden artean egiten duten hanka-altxatze «euzkadiano» hori... beti iruditu zait zikiroen dantza»; euskaldu-nen demokrazia (Ariztimuño, Landaburu eta beste jeltkideen erizpideen aurka): «Demokrazi-senak ezagutarazten omen gaitu «euzkoek» diotenez... Turistei hau sinistaraztea bego! Euskaldu-nok demokraziaren jatorrizko sena hori baldin badugu (eta ni be-deren izateaz ez nago batere ziur) ez digu berak nazio-batasunik eman». Hizkuntza dugu mugari, hortaz, eta gure herrikidetasu-naren funtsa. Euskara gogo-adierazpidea, mintzabidea eta Euska-diko erresuma berriarekin batera euskaldunen zerbitzuko.

Hizkuntzaren inguruko ideia horiek garatu zituen ondoko bi idazlanetan: «Hizkuntza eta pentsakera» (1966) eta «Hizkuntza

eta herrikidetasuna» (1967). Horiekin batera, Txillardegiren kontrako «ezkerreko»¹ kritikak hasi ziren, Zalakain, Errenteriako komunista ezagunaren lumatik. Aipatu kritika *Arragoa*, PCEn euskal kazetan argitara zuten; geroko urteotan, hari beretik kritikakutako dute *Zabal*-etik «Begiko» izenordearekin J. Apalategik, *Anaitasuna*-tik Haranburu-Haltunak... Azkenik iaz, *Zurgai* aldizkarian Jon Juaristik, soneto famatu batean. Baina, horien guztiengatik, Txillardegi itzal handiko gizona (izan) dugu abertzalegoan. Horretaz, aski litzateke Gandiagak eskaini zion poema aipatzea edo gaur egun «Euskal Herrian Euskaraz»-en duen gidaritza gogoratzea.

Azpiratze baten interpretazioa

Euskal Kulturaren zapalketa 1956-1981 deritzan liburuan (Elkar, 1983), laburbiltzen ditu bere erizpideak, hamaika kapitulu-tan azken hogeitabost urteen interpretazioa giltzarri politiko eta kulturalen arabera ematen duelarik. Azterketak, datu eta zifren gaurkotzeaz landa, badu zerikusirik duela hamabi urte egile berak «Harribizketa» izenpean publikatutako liburuskata batekin (*Proyecto de manifiesto vasco* izenburukoarekin, prezeskiago). Fun-tsean Txillardegik, 1967-70 urteetan —*Branka*-n ikus daitekeen— egiten zuen analisia: Euskal ezkerren (orain «ezker abertzalea» badio ere) oinarri garrantzizkoena borroka nazionala da, eta horretan euskara da gailurra. Historian klase-borroka dateke motor bat, askoren artean; eta iraultza, edo erabateko aldaketa behintzat, burutzeko, marxismo eliztarra genuke gurean etsai nagusia. Marxismo hori, hain zuzen, mende honen hasierakoa izanik, zaharkitua dago oso, ideologia hertsia bilakatu bait da. Aipatuaren defentsoreak euskal apez eta fraideak izan dira eta, hainbat urtez, berak dioenez, frankismoaren kolaboratzaile zuzenak. Sozialismo demokratikoaren aldeko arrazoiak Pariseko 68.eko gertakarien ondoren eta urte bereko Txekoslovakian suertatuak areagotzen zuten. Aldaketa bakarra, agian, borroka armatuari dagokio, oraingoan ez bait du aipatu ere egiten, auzatzeko izan ezik; lehen, berriz: «El fracaso de Zumalakarregi en 1835, en una situación infinitamente más propicia que en 1973, desaconseja toda estrategia guerrera frontal...». Ideia horien laburpen on bat, nire irudiko, *Zeruko Argia*-n plazaratu zuen 1976an, «Uztaro eta ereinako» ize-neko artikulua famatu batean.

Gure saiolari gorenak argiro, eta artikulua askotan, azaldu ditu goragoko ideia horiek, ezaugarri batekin, ordea: idazkera bortitz² eta zenbaitentzat mingarria darabilela. Bi kasu leun aipatzearren, Barojaz dioena *Huntaz eta Hartaz* liburuan: «Baroja español bat izan zan eta ez euskaldun bat», edota bere azkenaurreko liburuan: «Sozialinperialismoak eskuz-esku lan egin zuen hamabost urtez fazistekin».

Belaunaldi baten ikuspegia

Eklesiastes-ek dioenez, orok du bere muga: hala nola iraultzal-diak, pizkundeak, eta adimenduz beteriko belaunaldi borrokala-riak. Aipatu liburuan (*Euskal Kulturaren...*), gerra ondoko ilunpe-ei urte loratsuak darraizkie eta hauei, berriz, saldukeria, «vascon-gadismoa», etsipena.

Liburuak, bere laburrean deigarri eta datuz hornitua, baditu, ene aburuz, bizpahiru puntu egiatik urruntzen direnak. Besteren artean, *Egan* eta *Euzko Gogoa*-ri egiten dien kritika. *Egan*-i buruz zera dio: «Mitxelena-ren inguruan gero ateratzen hasiko zen "*Egan*" aldizkaria (1954), nahiz berrizaleago izan, bazuen, "jakin-lariak" xuxen esaten duten bezalaxe, halako "kolaboratzaile pro-dukтуaren" fama». Eta aurrerago: «frankismoaren bedeinkazioa-reen kutsua». Txillardegik bere belaunaldikoen apologia egitean kontestua atzendu duke, dirudienez, eta beste zenbaiten eritziak ere (kasurako, *Egan*-en barne-funtzionamenduaz Koldo Mitxele-nak dioena Ibarzabalen liburuan).

Inguruko giroa gutxiesten bide du, gainera, *Euzko Gogoa* eta *Gernika*-ren tematikaz ari denean, hala dioelarik: «Zentsuraren atzaparretatik urruti agerturik ere, "E. Gogoa" k ez zuen Euskal Herriko zapalketa aztertzen, esate baterako. "E. Gogoa" ren poli-tika-gabetasuna eta "Gernika" ren kopeta-zabal-keria (hau eta hu-ra, Talamas eta Zaitegi apezek zuzenduak), oso harrigarri gerta-tzen dira gaur; garai hartan zeuden kultur-aldizkari zentsuragabe bakarrak, beroiek izanik». Honetaz zer esan? Mirande abertzalea-ren artikulua politiko ezagunenak *Gernika*-n publikatu bait ziren. Kazeta horretan berean «Euskadi/Euskal Herria» ri buruzko ezta-baida ere. *Euzko Gogoa*-n Krutwig, Mirande, Ibiñagabeitia eta

beste euskaltzale eta abertzale anitzen artikuluak, garaiko tematika politikoa barnehartzen zutelarik. Eta denok dakigunez, urte haie-takoak dira Txillardegiren idazlantxorik politikoenak, hala nola: «Mendeurren ohargarri bat. Buda Sakiamuni ta bere gaurkotasu-na» (*Egan*, 1956) eta «Orangutanen ugartea» (*Egan*, 1957), bi kasu argigarri aipatzeko.

*Euzko Gogo*a-ren zentsura-gabeziaz ondo letorkiguke Intxaustik idatzi zuena³ gogoratzea, kazeta horren aleak Poliziak ez bait zituen mugaz hona pasatzen uzten. Eta duda izatekotan, Jon Etxaideri galde dakiok, hau Martutenen izan bait zen hura zela kausa kate-burdinak esku-lagun zituelarik.

Hondar-solas antzean

Badakit tartean eta ilun, urte horietako gertakari franko utzi dudala, J. San Martin eta Hernandorenaren auzi-mauziak *Herria*-n, Intxausti, Azurmendi etabarren euskarari buruzko lis-karrak *Jakin*-en, eta beste hainbat. Zernahi gisan, horren aspaldi-koak ez diren ideiak, egungoen adierazle eta gaurko egoerarekin duten zerikusi haundiarengatik gogoratu nahi izan ditut, besteak beste, (norbaitek esan zuenez) gure aro hau, hitsa izanagatik ere, gurea bait da.

Tx.L.

1 «Eskuineko» kritika aurretiaz ezagutu zuen Txillardegik, «Orixe»k *Leturiaren egunkari ezkutua* zafratu zuenean. Ohargarria dukegu, orain ikusita, Orixe-k Txillardegi eta Txillardegik Atxaga kritikatzeko emandako arrazoiak erkatzea. «Barrenak ez dit agintzen ixilik egotea, liburu onek gaurko gazte jendearen artean egin dezaken kaltearengatik» idatzi zuen «Orixe»k. Txillardegik, hauxe: «... berri bat jakin eraziko diat gaur: hire izkribuak eta iritziak kontuan hartuak izaten direla, gazteen artean batez ere».

2 Adjektibazio aldetik eta besteren artean, horrelakoak erabiltzen ditu: «Nor-teño», «Sortzikero», «Abertxale», «Euzkadillero»...

3 *Jakin*, 13. zk. (1980), 97-119 orrialdeetan.

1984eko erdal liburuak euskal herriaz

Joan Mari Torrealdai

Ehun bat libururen informazioa jaso dut hemen. Erdal liburuak dira, erdaraz idatziak, baina gai bezala Euskal Herria edo gure herriko arazo nahiz alderdiren bat darabiltenak. Beste liburu asko ere bada Euskal Herrian egina edota inprimatua, baina gureaz ari ez dena. Horien berririk ez dut hemen ematen. Bestalde, euskarazko produkzioaren berri aurreko zenbakian eman nuen (*Jakin*, 34. zk.).

Zerrendak osatzeko erizpidetzat, lege-gordailuaren urtea hartu ohi dut urtero-urtero. 1984eko lege-gordailudunak dira, beraz, bildu ditudan ehun liburu horiek. Urte horretako besterik ere badelakoan nago, zenbat ez badakit ere. Informazioa jaso ahala, zerrenda luzatuz joan gaitezke, baina oraingoz dagoen horretantxe ematen dugu inguratutakoa.

Euskarazkoan bai, baina erdarazkoan ez dut egiten produkzioaren azterketarik. Erdal liburuari buruz informazio bibliografiko hutsa eman ohi dut; alegia, titulua, egilea/itzultzailea, argitarazlea, herria, edizioa, orrialdeak, luze-zabaleko neurriak.

- Allende el viento. Txillardegui. Haranburu Editor. Donostia. 20,5 × 14. 181 p.
- Amar a Euskalerría conociéndola - Laburdi-Benabarra-Zuberoa. Lapitz, J. José. Juan José Lapitz. 21 × 15. 255 p.
- Apaches de París, Los - 1.ª parte. Mina, Javier - Oses, Pedro. Pamiela. Iruña. 26,5 × 19. 92 p.
- Apaches de París, Los - 2.ª parte. Mina, Javier - Oses, Pedro. Pamiela. Iruña. 26,5 × 19. 92 or.
- Aproximación a la geografía social y urbana de la comarca donostiarra. Gómez Piñero, Francisco Javier. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. Donostia. 24 × 15,5. 337 p.
- Arana-Goiri'tar Sabin. Omenaldia. Anónimas y colectivas. Idatz Ekintza, S.A. Bilbao. 19,5 × 13. 280 p.
- Atlas lingüístico vasco. Olabuenaga, J. Ignacio. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 30 × 21,5. 121 p.
- Autores vascos - I (Abad-Atutxa). Amezaga, Elías. Gorka. 24 × 17. 422 p.
- Batiburrillo navarro. Anecdótico popular pintoresco. Iribarren, José María. Gómez-Edyvel. Pamplona. 21 × 14,5. 284 p.
- Becada, La. Ettore, Garavini/Lainz, José María. X.X. X.X. 20,5 × 14,5. 320 p.
- Biografía de tres figuras nacionales vascas, Arana-Goiri-Agirre-Leizaola. Ugalde, Martín de. Sendoa. Donostia. 21 × 15. 137 p.
- Carnaval, El. Análisis histórico-cultural. Caro Baroja, Julio. Taurus. Madrid. 21 × 13,5. 398 p.
- Carnaval en Navarra. Garmendia Larrañaga, Juan. Haranburu Editor, S.A. Donostia. 20 × 14. 255 p.
- Cocina popular vasca, La. (en 100 excursiones). Anónimas y colectivas. Sendoa. Donostia. 21 × 16,5. 366 p.
- Cocinar para los amigos. Elorza, Luis. Sendoa. Donostia. 20,5 × 16,5. 198 p.
- Computer shock vasconia año 2001. Krutwig Sagredo, Federico. F. Krutwig Sagredo. Donostia. 22 × 15. 493 p.
- Confinados en las Andróminas. Martínez Ayuso, Julián. Julián Martínez Ayuso. Eibar. 20,5 × 13,5. 314 p.
- Cultura Ibero-euskérica - Libro II. García Berlanga, Francisco. Autor-Editor. Algorta. 24 × 17. 95 p.
- Cultura Ibero-euskérica. Libro III. García Berlanga, Francisco. Autor-Editor. Algorta. 24 × 17. 134 p.
- Descubrir mi comarca - 4.º EGB - Ciclo medio - área de experiencias (social-natural). Anónimas y colectivas. Erein. Donostia. 26 × 19. 143 p.
- Descubrir mi entorno natural - Ciclo medio - 5.º EGB - área de experiencias (naturales). Herreros, Adriano. Erein. Donostia. 26 × 19. 154 p.
- Descubrir mi localidad - Guía del profesor - Ciclo medio - 3.º EGB - área de experiencias (social-natural). Anónimas y colectivas. Erein. Donostia. 21,5 × 15. 129 p.
- Descubrir mi país - Ciclo medio - 5.º EGB - área de experiencias (sociales). Cortabarría, M.ª Angeles - Igea, Koldo. Erein. Donostia. 26 × 19. 214 p.
- Diccionario general y técnico breve - Euskara batua - I. Español-Euskara, II. Euskara-Españera. Múgica Urdangarín, Luis M.ª. Sendoa. Donostia. 21,5 × 14. 665 p.

- Diccionario ilustrado de mitología vasca - Tomo I - Obras completas.** Barandiarán, José Miguel de. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 22,5 × 17. 450 p.
- Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín - Tomo 1º.** Larramendi, Padre Manuel de. Txertoa. Donostia. 31,5 × 22,5. 435 p.
- Diccionario Vasco-español-francés.** Azkue, Resurrección M.^a de. Euskaltzaindia. Bilbao. 30,5 × 22,5. 1.219 p.
- Diplomatario de Salinas de Añana. (1194-1465).** López Castillo, Santiago. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 × 16,5. 144 p.
- Drogas y escuela.** Anónimas y colectivas. Escuela Diocesana Asistentes Sociales. Donostia. 21 × 15,5. 134 p.
- Ejercicios espirituales en un túnel. En busca y encuentro de nuestra identidad perdida.** Oteiza, J. Hordago. Donostia. 21 × 15. 510 p.
- Estío festivo, El. Fiestas populares de verano.** Caro Baroja, Julio. Taurus. Madrid. 21 × 13,5. 320 p.
- Experimento 1 - Ciencias físico-naturales (área de experiencias) 6.º EGB.** Anónimas y colectivas. Erein. Donostia. 26 × 19. 288 p.
- Factores negativos en la evolución de la sociedad vizcaína. (Tomo II).** Anónimas y colectivas. Comisión de Vizcaya Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Bilbao. 25 × 17. 338 p.
- Fiestas, costumbres y leyendas de Navarra.** Peña Santiago, Luis Pedro. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 102 p.
- Gigantes de Pamplona, Los.** Comparsa de gigantes y cabezudos de Pamplona. C. Ahorros Municipal de Pamplona. Pamplona. 25 × 23. 194 p.
- Guía práctica de información sexual para el educador - Orientaciones para una intervención en el ámbito escolar y de la enseñanza.** García Fernández, José Luis. José Luis García Fernández. 24 × 17. 520 p.
- Hacia el triunfo de la nación vasca - De la sustitución nacional a la normalización nacional.** Urkola, Mikel. Haranburu Editor, S.A. Donostia. 20,5 × 14. 221 p.
- Hemingway y los Sanfermines.** Iribarren, José María. Gómez-Edyvel. Pamplona. 21 × 15. 220 p.
- Historia de la guerra naval en Euskadi - Tomo I.** Romaña Arteaga, J.M. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 29 × 33. 275 p.
- Historia de la guerra naval en Euskadi - Tomo II.** Romaña Arteaga, J.M. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 29 × 23. 296 p.
- Historia del Athletic de Bilbao.** Terrachet, Enrique. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 24 × 17. 480 p.
- Historia del partido nacionalista vasco.** San Sebastián, Koldo. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 125 p.
- Historia lingüística vasco-románica. Intento de aproximación.** Echenique, M.^a Teresa. C.A.P. Donostia. 28 × 21. 108 p.
- Hombres Mar, Los. Vida y lucha de los pescadores.** Iguñiz, Felipe. C.A.P. Donostia. 25,5 × 20. 108 p.
- Homenaje a la madre. Antología poética española del siglo XX.** Urrutia, Angel. Autor-Editor. X.X. 23 × 15. 100 p.
- Hora del ultraje, La. Memorias de un gudari.** Urrutikoetxea Pedro María. Idatz Ekintza. Bilbao. 21 × 15. 234 p.

- Imposible vencido, El. Arte del bascuence.** Larramendi, P. Manuel de. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 405 p.
- Inquisición española en el País Vasco, La - Luteranos, judíos, moriscos, brujería...** (El tribunal de Calahorra, 1513-1570). Reguera, Iñaki. Txertoa. Donostia. 21,5 × 15,5. 241 p.
- Ir a América - La emigración vasca a América (Guipúzcoa 1840-1870).** Pildain Salazar, M.ª Pilar. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia. 24 × 15,5. 245 p.
- Irún en el siglo XX (1960-1975) III.** Navas, Emilio. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia. 21,5 × 15,5. 831 p.
- Jardín de Eros, El. Poesía en castellano.** Rodríguez Pacheco, Pedro. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 78 p.
- Kiu y Liu y otros cuentos - 1.ª parte.** Mauleón, Jesús. Mintzoa. Pamplona. 21 × 15. 108 p.
- L'émigration basque. Histoire. Economie. Psychologie.** Lhande, Pierre. Elkar. Donostia. 21 × 13,5. 312 p.
- Laberinto vasco, El. Estudios Vascos. (Tomo XII).** Caro Baroja, Julio. Txertoa. Donostia. 19,5 × 13,5. 194 p.
- Labrador vascongado, El.** San Martín, Antonio de. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 280 p.
- Legislación psiquiátrica: crítica y alternativas.** Departamento de Sanidad y Servicios Sociales. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 346 p.
- Libro de los Cantares, El.** Trueba, Antonio de. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 422 p.
- Lucha del euskera, La. Una encuesta básica: conocimiento, uso, actitudes.** Anónimas y colectivas. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 293 p.
- Manzanas, peras y derivados en la cocina vasco-normanda.** Michelena, P. - Uría Irastorza, José. 21 × 15,5. 106 p.
- Maravillosa aventura de Bolita Linda y Colitalarga... o el milagro de la vida, La.** García, J.L. Elkar. Donostia. 22,5 × 17. 29 p.
- Materiales de sociología jurídica.** Ruiz Olabuenaga, J.I. - Caballero F.J. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 87 p.
- Medicina del deporte - Primer congreso de medicina deportiva de Euskadi.** Anónimas y colectivas. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 268 p.
- Medicina de Montaña - VI Jornadas de Medicina de Montaña.** Anónimas y colectivas. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 414 p.
- Memoria. 1980-1984.** Departamento de Cultura. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 25 × 21,5. 96 p.
- Mi primer libro de información sexual - Conociendo nuestro cuerpo.** García, J.L. Elkar. Donostia. 24 × 17. 91 p.
- Miradas. (Fotografías).** Seis fotografías navarros. Depart. Educación y Cultura, Príncipe de Viana. Pamplona. 29,5 × 21. 76 p.
- Mis otros - Novela en castellano.** Ruiz Balerdi, Pedro. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 310 p.
- Montes de Euskalerra - Guía de accesos a los - 2.ª serie.** Beaskoetxea, Eusebio. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao. 22,5 × 15. 103 p.
- Mundo de las divinidades en la mitología vasca, El - 1.ª.** Barandiarán, J.M. Pamie-la. Iruña. 26,5 × 19. 49 p.

- Museo de armas.** Larrañaga, Ramiro (autor literario) / Agirresarobe, Antonio (fotografía). Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia. 29,5 × 21. 186 p.
- Nacionales y Realistas - Un episodio donostiarra (1827).** Tellechea Idígoras, J. Ignacio. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. Donostia. 24 × 16. 82 or.
- Nafarroa Afrika da...** Murillo, Ernesto. Pamiela. Pamplona. 26,5 × 19. 50 p.
- Nobleza de los bascongados, La.** Lazcano, D. Diego de. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 268 p.
- ¡¡No, general!! fueron más de tres mil los asesinados.** Colectivo Afán. Mintzoa. Pamplona. 21 × 15. 176 p.
- Obras Completas Arturo Campión. Tomo V. Mosaico Histórico (I).** Campión, Arturo. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 428 p.
- Obras Completas Arturo Campión. Tomo VI. Mosaico Histórico (II).** Campión, Arturo. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 434 p.
- Obras Completas Arturo Campión. Tomo VII. Mosaico Histórico (III). Don García Almorabid.** Campión, Arturo. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 444 p.
- Obras Completas Arturo Campión. Tomo VIII. La Bella Easo (I).** Campión, Arturo. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 460 p.
- Obras Completas Arturo Campión. Tomo IX. La Bella Easo (II). Blancos y negros.** Campión, Arturo. Mintzoa. Iruñea. 25 × 18. 470 p.
- Ordenación del Sector de Matanza en la Comunidad Autónoma Vasca.** Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 442 p.
- Otro lado de la ventana,** El. Martorell, Luis. Pamiela. Iruñea. 26, 5 × 19. 63 p.
- Paisajes y ciudades.** Caro Baroja, Julio. Taurus. Madrid. 21 × 13,5. 234 p.
- Pasavolantes.** Argos. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 312 p.
- Pelota y los pelotaris, La.** Peña y Goñi, Antonio. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 195 p.
- Prehistoria - Arqueología - Cuadernos de sección 2.** Anónimas y colectivas. Eusko Ikaskuntza, S.A. Donostia. 24 × 17. 256 p.
- Programación del ciclo superior - Lengua castellana - Documento de trabajo y consulta.** Anónimas y colectivas. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 69 p.
- Programa de salud escolar.** Departamento de sanidad y seguridad social del Gobierno Vasco. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 221 p.
- Psiquiatría infantil.** Departamento de seguridad social y sanidad del Gobierno Vasco. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 24 × 17. 115 p.
- P.S.O.E. en el País Vasco, El (1886-1936).** Eguiguren, J.M. Haranburu Editor, S.A. Donostia. 20,5 × 14. 373 p.
- Puerto de Bilbao y sus perspectivas de futuro, El. Tomo I.** Anónimas y colectivas. Comisión de Vizcaya Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. 25 × 17. 274 p.
- Recuerdos...** Lizana, José María de. Amigos del Libro Vasco. Echévarri. 23 × 16. 382 p.
- Sima de Oquina, La - Leyendas vascas.** Cristóbal, Pilar. Ediciones Altea. Madrid. 17,5 × 11. 134 p.
- Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco (Estudios Vascos 1.º).** Caro Baroja, Julio. Txertoa. Donostia. 19,5 × 13,5.

- Teléfono rojo... verde y blanco - Las mejores llamadas.** Goicoetxea, Moncho. Txertoa. Donostia. 20 × 13,5. 287 p.
- Ton y Myrka. La expedición perdida.** Muro, Gregorio (guión). Redondo, Daniel (dibujos). Tarttalo. Donostia. 29 × 21. 46 p.
- Una chicharra canta en el acerolo - Cuentos en castellano.** Murciano, Carlos. C.A.P. Donostia. 21 × 13,5. 21 p.
- Vizcaya bajo las aguas - Agosto-1984.** Inst. Vascongado de Cooperación Iberoamericana. Bilbao. 27 × 23. 119 p.
- Xabier Arzallus: Intervenciones Parlamentarias. Artículos. Entrevistas.** Arzallus, Xabier. Idatz Ekintza, S.A. Bilbo. 19,5 × 13. 258 p.
- Yacimiento prehistórico de la cueva de Ekain, El. (Deba, Guipúzcoa).** Altuna, J., Merino, J.M. Eusko Ikaskuntza. Bilbo. 30 × 21,5.
- 90 crónicas de un viajero impenitente - Gorbela haizea - Viento de hojarasca.** Peña Santiago, Luis Pedro. Txertoa. Donostia. 19,5 × 13,5. 141 p.
- III certamen literario de teatro breve.** Anónimas y colectivas. Ayuntamiento de Santurtzi. Santurtzi. 21,5 × 15,5. 164 p.

Euskal literatura eta gizartea edo Sarrionaindia-ren «Ni ez naiz hemengo»

Anjel Zelaieta

AEK erakunde atipiko eta heroikoak, heroe txiki gisa igorten gaitu euskal hiriburuetan zehar, goian ezarritakoa objektiba dezagun: ez dakigu zein sari lort dezakegun, helburu gaitz hori jadestekotan, baina horrexen esperoan dihardugu.

1. Irteera klasiko bat: zertarako literatura?

Lehen aldiz euskararen primiziak inprentatukeran, hauxe zioskun euron egileak, Etxeparek: «... duten bere lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco solaz eguiteco cantatzeco eta denbora iragaiteco» (Bilbo, 1980, 6-8). Dakusagunez, Etxeparek, Ernazimenduan badihardu ere, ez du, honetan behintzat, joe-
ra ernazentistarik: plazeraren eta irakastearen oreka, lehenaren alde ateratzen da, ingenuoki.

Mogel bizkaitarrak —bizkaitar hizkuntzaz—, aldiz, berak sorturiko elkarrizketez ari delarik, «atractivo que trae de sí el diálogo»

dio, alde batetik. Eta, bestetik: «Estos diálogos no se dirigen a la instrucción de la juventud bascongada, sino a la de los que son tenidos por muy literatos» (Durango, 1881, 6-7). Hots, «instructizeko» ere badira.

Ikusten denez, zein batak zein besteak ezagutzen zuten Horatioren honako hau: «Aut prodesse volunt aut delectare poetae».

Zein jarrera du Josebak guzti honen aurrean? Ikus dezagun astiro-astiro.

2. Josebaren egunkari ezkutua

«Kalendarioari begira» dagoenean (38), hark «1984, otsailak 2» markatzen du: Kandelario eguna da. Hasi, Urtarrilaren 17an egiten du: San Antonio Urkiolakoaren egunean. Bukatu, berriz, Ekainaren 22an, Euskal Foruak galerazi zizkiguteneko egunean. Idaztan-kera honek, mugaketa-modu bat eskaintzen dio: testuak laburrak eta hertsiak ematekoa, alegia. Gau-egunen erritmoan, testu autonomoak burutzen ditu, zeintzuk atzekoz aurrera, erdialdetik edo burutik hasirik irakur ditzakegun.

3. Funtzio apelatiboa

Testuan barrena, lirikotasuna, epikotasuna eta dramatikotasuna tartekatzen dira: edozein pasartetan, baina, ager daitezke funtzio apelatiboa sendotzen duten bigarren pertsonako, eta «zuka-ko», aginterak: «begira ezazu» (83, 209, 218); «imagina ezazu» (111, 128, 131, 150, 236). Edo «komunikazioa eta ezagumena» deiturikoko hauek: «etxetik irteten zaren bakoitzean», «iragaiten zara», «ohar zaitetz»...

Interesgarriago oraindik, ildo honi atxekiz, bereziki hasiera samarrean egiten zaizkigunak: «Ene gogoetak paper batean lotzen ditut eta, aldiberean, aske uzten. Ene gisara ordenatu ditut letrak, baina letra arteak zeuk antola ditzazula eskatzera nator».(18). Edo-ta «Kukuak Erromako zubian» izenburuko hauek: «Ene abotsak oihartzuna eskatzen du irakurlearen espazio lausotik. Ene galdera zure erantzunaren zain geratzen da, hemen, iraganaren ondoan» (68).

Zein da «apelatua»? Sarrío-k Gartzela barruan eraiki duen Ikaslego Unibertsitarioa? Geu? Nire irudiko, aurrena bere ikasleak, gartzelakoak; orain, liburu barruan, errekurso literario bihurtu du «entzulegoa»: Lausberg-ek liokeen *communicatio*-a hain era samur eta apalezko kontestuan ematen zaigu, non irakurleok Sarrío-ren deiari jaramonik plazentena egiten bait diogu.

4. Gartzela-Eskola maisu

Didaktikotasuna —ez didaktismoa— barra-barra dario egunkariari.

4.1. Ustegabeko aipua

Sarrionaindiak gehiago dirudi Borges-en ipuinetako liburu-jagolea, ezen ez Gobernu Zentralaren prisionerua. Casenavek zioen Bilbon, Lhande eta Azkueren hiztegiak buruz zekizkiela gure mutilak. Ez ginateteke, agian, harrituko, dela Axular, dela Azkue, dela Beaudelaire... aipatzearekin. Ustegabean atseginago egiten zaigu, ordea, mundu zabaleko informazio xarmantekin topo egitea: Cervantes-en *Los habladores* entremesa (35), Albret Dürer grabadorea (43), Glastombury aldeko harria (54), Pariseko *Moniteur Universal* egunkaria (91), M. Erdozaini-Etxart-en *Gauaren atzealdean* nobela (163), Johan Huizinga jakintsua (210), eta... Innocentius III.aren *De contemptu mundi* liburua (211), etab.

4.2. Literaturaz ihardunaldiak

Espero zitekeenez, eskritore baten egunkarian, eskriturazko eta literaturazko usteak eta eritziak agertzen dira: literatur komentarioak edo, pitin bat harresia estutuz gero, *poetika*.

4.2.1. Apur ditzagun kateak!

Ez dago «euskal» literaturarik: edo badago literatura edo ez dago: «kuadro fantastiko eta koloretsu» baten aurrean daudelarik, «hori ez da pintura euskalduna» entzutean, zera dio: «Guti izanda, euskaldunok, geu geure burua mugatzen, geu gutiagotzen...» (161).

4.2.2. «Imagina ezazu»

Gorago aipatu izan dugun legez, «imagina ezazu» exortazioa usu entzuten digu: literatura ezertan oinarritzen bada, *irudimeanean* oinarritzen da. «Euskal literaturaren historian ere, pinturan bezala, harrigarria da zer sentsualitate eta imajinazio guti agertzen den» (161). Kafka-z ari delarik, «Intsektua ez da marraztu behar. Ez da hurrundik ere ikusi behar. (...) Marraztu gabe utzi behar da, ez bada norbere imajinazioaren marra gardenez, marra izugarriez» (110) esaten digu. Hona hemen beste zenbait pasarte, laburtuz: «mundu imajinatiboa» (30), «ehuntzen ari garen imajinazioaren oihala» (56). Eta, bukatzeko, kritika borobil eta garratz hauxe: «Euskalduna ez da sekula izan imajinazioaren aldekoa, imajinaziorantz eta etorria. Euskaldunak ez du imajinazioa habitatzen. Euskal artea eta euskal literatura, pentsamendua bera bezala, abstrakto eta laburrak dira» (160).

4.2.3. Poesia soziala edo urgentziakoa

Teorikoki, argi eta garbi, eta garrazkiro, mozten du auzia: «poesiari buruz ihardutean, artearen funtzio soziala eta intelektuarekin konpromezua agertzen da beti kereila gaitzat (...) gauza desberdinak dira arazo honetan politika, etika eta idazkera. Politika mailan, poetari, gizarteko partaide denez, zapalketaren aurkako eta askatasunaren aldeko konpromezua dagokiola argi dago. Euskal poetak, euskal torneroak (...) bezala, Euskal Herriaren askatasunaren alde ekiteko eginbidea du (...) baina ez poeta delako».

Dioenaren arrazoia ere teorikoa da: «poesiak ez du gizarte egiturak aldatzeko haina indar. Poesiak aspaldi galdu zuen bere kulturazio altalmena, eta urritu egin zen bere funtzio soziala».

Eta, dioenak diolarik, interesgarri iruditzen zaigu, oso-osoan, Josebaren ohar hau: «sarritan fiskalizatzen da literaturaren funtzio sozialaren inguruan, fiskalizazio egoera satanizazio argudioak bihurtzen direla. Beraz, horrelako epaiketek ez dute literatura aurretiz betetzea besterik egiten» (Satanizazioaz ari denean, «manikeismoa» delakoaz dihardu).

Mira egin diguna, zera izan da: gartzelako, eta kanpo-bizitzako pasadizuak kontatzean, bukaera metaforikoekin errematatzen di-

tuela. Hona hemen zenbait adibide. Gartzela-mutilek spray-z igurtzi dituzteneko pasartea, honela bukatzen du: «gaua zerratzen ari dela, ez da hemen saguen hotsa besterik aditzen, hormak zula-tzen ari diren saguena» (234). «Vaya desnudándose» izenekoa, beste era honekin: «Betiko barroteak, harpa bat dirudite, inork jo ditzan zain» (143). GALEkoek egindako sarraskiez oroitu ondoren: «Leihotik begiratu ez gero, patioa zaramaz eta ur butzuz bete-rik dago. Butzuetan zapaburuak ikusten dira, buztankada urduri eta laburretan dabiltzala» (94). Eta honelaxe besteak ere. Metafori-zazio honek salbatzen du testua informazio hutsa izatetik.

5. «Imago mundi»

Gizaki guztiok daukagu geure «mundubisioa» (nahikoa Jainkotiarrak, oro har); munduarekiko uste honetatik, guk uste, jaiotzen da poetika.

Ezer argi badago, ditugun usteak, direla zientifikoak direla filosofoikoak, guztiz ahul direla da. Abraham Moles kultur soziolo-goak dioenez, «kultura fragmentario, desordenatu eta badaezpada-koan bizi gara, pentsamendu tradizionalako ordena eta hierarkia deseginik» (105). Hainbatetan aipatzen du poetak azken ideia hau. «Astronomo zaharrentzat —esaten du «Munduaren imajina» ata-lean— errealitatea *kosmos* zen. Baina egungo zientifikoentzat ez dago sosegu eta orekarik unibertsoan, ez dago *kosmos* ordenaturik, baizik *kaos* oinarri finkorik gabea» (129). Atertu gabe irakurtzen/sakontzen ari den Josebak, Ludwig Wittgenstein filosofoa aipatzen du guzti honen sostengutzat: «Egia deitzen duguna hipotesirik egokiena besterik ez da» (131).

Lehen esperientzia garratz honetaz fabulatzea ere maite-maite du Josebak. Laket zaio horretaz ari diren mito klasikoak berresatea eta berrasmatea: «Giza bizitzan eta gizarte historian beti dago lehen errakuntza bat, errakuntza tipia, ia oharkabean gertatua, une batetako irristaera, baina lehen errakuntza horrek beste batzu sor-tzen ditu, eta errakuntzak ugaldiaz doaz, apurka bata bestearen gainean gehituz. (...) imajina ezazu beste errakuntza tipi bat, tren konduktoreak, inora iristen ez direnez, berandu doazelako ustez edo, belozidada gehitzen duela»... (128).

6. «Furor poeticus»

Kosmosa ulertezina den heinean, eder den horretan, gertatzen da poesia.

6.1. Poesia, ezagutza

«Kaos» honen mende, «ezagumen poetikoa batbateko argia izanen da» (232). Intuizio sakon bat daukagu: «poesiak psikiatriak baino errealtatearen ezagumen handiagoa ematen du, nahiz eta informazio gutiago, esperientzia zientzia baino egiaiagoa delako, imajinazioa zientzia baino ahaltuagoa delako» (141). Etorkizunaren jaun ez zirela, bazekiten Grezia zaharrekoek: «fatuen menpeko» ginela uste zuten: honegatik «laketago zitzaien amaiera tragikoa, gizona fatuaren biktima dela erakusten zuelako, *katarsis* delakoaren bidez beren munduko sufrimenduak arintzen bait ziren, arindu eta sublimatu» (116).

6.2. Malenkonია, heroizitatea da

Egoera kaotiko eta domeinaezin honek, misteriora garamatza. «Izan ere, malenkonია, suizidioa bezala, ingurukoarekiko errebeldia ere bada, eta errebeldia da batipat. Malenkonია bizitzarekiko errebeldia orokorra da» (173). Horixe litzateke «egiazkoa» izatea: uste hau gordetzeko ahalegina da Jon Miranderena ere: «Jon Mirande, bizitzaren zentrorra ailegatzeko eta bere perfekzio burrukan, heroea da, aktore txar eta dendariz beterikako gure herrian» (178).

6.3. Josebaren filiak

«Edward Lear» izenburukoan hauxe irakur daiteke: «learzaleok», «carrolzaleok». (Ez du atzizki hau Arestiz, Mirandéz... ihardutean erabiliko, ezta «plural hurbil» hori ere). Sarrion fabula politak irakurtzea, berrapaintzea eta birsortzea maite du: honetan diharduenean da liluragarrien. Ikus, esaterako, «Poema epiko bat izkiriartzen», «Miletuko dontzeilak», «Tuez-les tous! Dieu reconnaître les siens!»... Ipuin, fabula edo antzekoak aipatzen dituenan,

-garri atzizkia ateratzen zaio: «argumendu miresgarriko ipuin tipi bat» (77), «ipuin miresgarrien egilea» (86), «pertsoneaia interesgarri batetan» (107), «gertaera harrigarri hori» (108), «istorio izugarrien artean» (112)...

Beste filietariko bat, *ezkutatzea* du. Zeldan santzionaturik, badio: «inori obeditu behar ezak halako libertate bat ematen du, libertate tipi tipia, esku barruan kabitzen baita» (57). Ber-bera Otsailaren 24ean ere: «guardiako funtzionarioak ez ikustearren, hobe egun osoan ere ez bada aterik zabaltzen» (60).

Poema-liburua, *Izuen gordelekuetan barrena* titulatu zuen: «hitza gordelekua da sarritan, harreman bidea ezezik» (158), dio. «Mintzaira gordelekua denean» titulatu du, Maiatzak 7an.

Hitzaren gordelekutasun hori, isiltasunarekin lot daiteke: «Poesiaren territorioa bazter territorioa da berez» (230), diosku. Zertarako? Isiltasunean, bazterrean, hitzaren bidez, «experimentatu, esploratu eta ezagumenean» sendotu egiten da (231). Edo, modu apalagoz esanik, zenbaitetan, hitzak «isiltasun zuri hori estaltzeko» (235) ditu. «Hitz goardasolak behar ditugu. Eta bizitzarako hitzak. Zer zaila den isiltasuna, harik eta hezurak zuritzeko etzan arte» (112).

7. Pamiela soinua, igorle

Nafarroako Erresuma zaharreko, Nafarroako Gorteetako 7-4etik igorri digu Pamiela etxeak Sarrio heroea konkista gaitzak lort litzan.

7.1. Aferioak

Heroeak Lizarra Inprimategian aurkitu ditu lehen oztopo iheskorrak. Destinatariogana ailegatu ezinik, edo *bruit* irristakorrez bidaltzen digute: «Erraten inguruan» Josebak ihardunagatik, ikus honako hauek: «hurrietara» (47), «hurrutietara» ordez; «krudel-nat» (49), «krudelena» ordez; «leindako» (132), «lelendako» ordez; «bi» (133), «bai» ordez; «lobari» (184), «laborari» ordez; «aberezainak» (184), «aberezainak» ordez...

Eta errakuntza funtzional hauek: «eta, alderantziz, “guziz itsua da” esate da inkontzientzia da» (79). «Hobeto esanda, idazlea hizkuntzaren eta kontzientzia kolektiboaren arteko mediazioa egiten du» (221).

7.2. Objektua

«Bere panpina galdu duelako negarrez» (23) dagoena kontsolatea da Heroeari Pamielak agindu diona. Mundua kaosaren pean dagoelarik, panpina galdu dugunok (paradisu galduok!), geu gara.

7.3. Heroearen lanabesa

Negarrez aurkitu zuen «hume» hura gozagarritzeko, urrutietara joan beharra izan duen panpinak bidalitako gutunak dira (22): gutunak, noski, Kafka-k/Sarrio-k bidaltzen dizkigute: «Mezularia, Franz Kafka, kalean gora doa bere traxe beltz eta geldoaz, mezularirik misteriosuenaren gisan kale kantoian gartzeko.

Humeak, hurrengo asteetan, panpinaren gutunak jaso zituen, bidaia harrigarri bat kondatzen, geroago eta hurrinagotik» (23).

Sarrio gero eta urrutietarago doakigu (*Ni ez naiz hemengoa*) isiltasunean, gordeleketan, jantziagotuz, guretzat «oihala ehunduz», «bizitzak egiten dizkigun kalteen aurkako babesa» (31) eskainiz.

«Letrarik gabeko liburua zirudien munduak, elurragatik» (52), diosku. Hortxe idazteko, hitzak dauzka, hauetarik «sortzen da alegantzia» (62); «gauzak edertasunez azaltzeko ahalmena» (162) da heroerearen lanabesa. Ez dauka, bestalde, batere bide ezagun edo munduan zehar ibiltzeko «bitakora kaiera»rik. «Orain, jadanik ez dago gramatika poetikorik, poeta bakoitzak asmatu eta moldatu behar du bere poetika, poeta bakoitzak bere bakardade lekutik, bere abots zoroa behar du, bere kantu derrigorrez diferentea eta patologikoa» (186).

Ezaugarri bi, bederen, badauzka lanabes modu honek: lexikoa —eta berpausak kateatzea— oso hautatua da: «(...) ez da sendimenduok poetak sakonkiago bizi dituelako edo (...) ideia berririk otu zaiolako izango, baizik eta forma poetiko egokia hautatu eta hitz proposak josi dituelako» (187). (Pasarte honetan Josebaren

ahotsa inoiz baino zitalagoa zaigu: «(...) barru barruko sendimen-
duok (...) ez dira berez poesia. (...) Tristura deskribatze hutsa (...)
ez da beste inorentzat interesgarria. (...) Tristuratik bakarrik ez da
poema onik sortzen, ez eta amodio hutsetik» (187).

Bestea, iharduna modu apalez egitea da: «Ahaleginduko naiz
(...) abots apalez esaten, ia zurumurrua bezala, ene hitzok ere zara-
taren munduan gal ez daitezen» (235).

Forma dela poesia eta lirikotasuna gauza ororen muinean jartze
honek janzten du, benetan, Josebaren poesigintza.

8. Konklusio gisa

Eritzirik eskatuko balitzaigu, ondoko hauexek emango ge-
nituzke.

8.1. Ageri-agerian agertzen zaigu ikerle-irakasle alderdia: sa-
kontzen dihardu, «hurrutietara bidaiatzen», eta aurkikuntzak mo-
du dotorez eskaintzen dizkigu. (Maisuek legez, latinaldiak ere esan
daroaz: Deus Otiosus, furor poeticus, imago mundi...).

8.2. Orain arte bezala, Sarrio-k barruti maiteena eta hoberena
fabulatzearena du: modu orekatsuz tartekatzen ditu leiendak fun-
tzio errepresentatiboagoa dutenen artean, pasarte urgenteenak me-
taforaz eteten ditu, paiaz paia apaltasuna, diskrezioa eta oreka
zaintzen dira, eta, azkenik, «egunkariaren fikzio»pean atontzen
zaigu guztia.

8.3. Norbaitek esan lezake —Euskaltzaindiko bati entzuna diot
behin— Josebaren testuak topikoz beterik datozela. Gai hau, Sa-
rrio-k argi uzten du berriz ere (berriz ere, lehenago ere esana bait
zeukan): «adierazbide izoztuak ahaztu eta gauzei eta lengoaiari ba-
tez ere beste zentzu bat aurkitzen entseiatu» (29). Irteera, gure iru-
diko, Sarrio-k aukeratua da: formak dira poetikoak, eta lirikotasu-
na da literatur gailurra.

A. Z.

Jaso ditugu

- AGUIRRE FRANCO, Rafael: **Guipúzcoa 1883-1983. Gipuzkoa – Historia gráfica. Historia grafikoa** (euskaratzailea: Edorta Agirre), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1983. 32 × 27 cm. 203 or.
- ALUSTIZA, Julian («Aztiri»): **Euskal baserriaren inguruan**, Ed. Franciscana Aránzazu, Oñati, 1985. 18,5 × 12 cm. 322 or.
- ASUA GONZALEZ, Jose Maria; BARANDIARAN SARASOLA, Maria Jesus: **Emultsio-polimerizatorako errektoreen injineritza**, Elhuyar (Altza bilduma), Donostia, 1985. 29,5 × 20,5 cm. 197 or.
- ATXAGA, Bernardo: **Bi anai**, Erein, Donostia, 1985. 20,5 × 13 cm. 112 or.
- CELAYA, Gabriel: **Trilogía Vasca**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1984. 24 × 17 cm. 215 or.
- GARMENDIA, Vicente: **La ideología carlista (1868-1976). En los orígenes del nacionalismo vasco**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1984. 20 × 14 cm. 709 or.
- GOMEZ RIVERO, Ricardo: **El pase foral en Guipúzcoa en el siglo XVIII**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1982. 24 × 17 cm. 430 or.

- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel: **Ispiluak**, Hordago, Donostia, 1984. 20 × 13 cm. 157 or.
- LOPEZ DE ZANDATEGUI, Cristobal; CRUZAT, Luis: **Recopilación de leyes y Ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa** (introducción, edición y apéndice por S. de Insausti; prólogo de J. I. Tellechea Idigoras), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1982. 30 × 21 cm. 251 or.
- ORIXE: **Santa Kruz apaiza**, Erein, Donostia, 1985. 20,5 × 13 cm. 110 or.
- ORREAGA TALDEA: **Gipuzkoa. Herri eta Eskualdeak**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1983. 24 × 17 cm. 207 or.
- ORREAGA TALDEA: **Gipúzcoa. Pueblos y Comarcas**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1983. 24 × 17 cm. 207 or.
- VINSON, Julien: **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque**, Gipuzkoako Foru Aldundia, (Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Donostia, 1984. 24 × 17 cm. 793 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Eboluzioaren norabideak**, Elkar / Elhuyar (Islada bilduma), Donostia, 1985. 24 × 17 cm. 340 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Nora doaz zientzia eta teknika?**, Elkar / Elhuyar (Islada bilduma), Donostia, 1985. 19,5 × 13,5 cm. 292 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Zinetika kimikoa (I)**, Elhuyar (Altza bilduma), Donostia, 1985. 29 × 21 cm. 205 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»**, XVIII-1, 1984. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. 24 × 17 cm. 239 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Egan**, 1-2 zk. (1984). Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. 21 × 14 cm. 173 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Senez (Itzulpen eta Terminologiako Aldizkaria)**, 1. zk. (1984). Itzultzaile Eskola, Martutene-Donostia. 24 × 16 cm. 150 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTADISTIKA-ZUZENDARITZA: **1981eko Euskadiko Komunitate Autonomoko Etxebizitzen eta Biztanleen zentsua. Desanexioak. Censo de Población y Vivienda 1981 de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Desanexiones** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 25,5 × 21 cm. 50 or.

- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **1982ko Euskal Herriko K.A.ko Nekazal Zentsua. Aziendak, makineria eta lana. Censo Agrario 1982 de la C.A. de Euskadi. Ganadería, maquinaria y trabajo** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 30 × 21 cm. 439 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **1982ko Euskal Herriko K.A.ko Nekazal Zentsua. Inbentarioak. Censo Agrario 1982 de la C.A. de Euskadi. Inventarios** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 30 × 21 cm. 452 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **1982ko Euskal Herriko K.A.ko Nekazal Zentsua. Lurraren erabilera. Censo Agrario 1982 de la C.A. de Euskadi. Utilización de la tierra** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 30 × 21 cm. 498 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **Euskal Herriko K.A.-ko Nekazal Zentsua. 1982. Argitalpen laburtua. Censo Agrario de la C.A. de Euskadi. 1982. Edición reducida** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 30 × 21 cm. 120 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **1984. Euskal Urte-kari Estatistikoa. 1984. Anuario Estadístico Vasco**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1985. 26 × 21,5 cm. 464 or.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA: **Euskal Herriko K.A. 1984eko laburbilduma. C.A. de Euskadi. 1984. Panorámica** (euskaratzailea: UZEI), Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1984. 18,5 × 13 cm. 135 or.
- EUSKO JAURLARITZA. OSASUNKETA ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA: **Umearo eta gaztarorako egoitz zerbitzuak Euskal Herriko Komunitate Autonomoan. Servicios residenciales para la infancia y la juventud en la Comunidad Autónoma del País Vasco**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1984. 25,5 × 19,5 cm. 119 or.

JAKIN

EUSKAL NEKAZARITZA

EGOERA eta ETORKIZUNA

ETB: ez dago girorik
Galizia zaila
Erdal liburuak Euskal Herriaz
«Ni ez naiz hemengoa»
Txillardegi, hogeitun urteren buruan

Apirila
Ekaina

35

1985

JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia

Tel.: (943) 27 17 13